

**Paul TILLICH**

# **Fedearen dinamika**

**Itzulpena eta pentsabideak:**

**Paulo Agirrebaltzategi**

**Sarrera:**

**Joxe A. Ibarbia**

**Epilogua:**

**Joseba Arregi**

**J A K I N**

**ARANTZAZU**

**OINATI**

*JAKIN* liburu sorta (8)

Zuzendari: Joseba Intxausti

*GOGOETA saila*: Paulo Agirrebaltzategi  
Hendrike Knörr

Paul Tillich-en **Fedearen dinamika** Harper & Row Publishers-ek eman zuen argitara **Dynamics of Faith** izenburuarekin. Ruth Nanda Anshen-ek antolatu eta argitaratzen duen **World Perspectives Series** saileko liburuki bat da hau. Hala eskatu zaigunez, zuzendari berorrek ematen duen sailari buruzko argipena liburu honen azkenean ematen dugu.

© 1957 BY PAUL TILlich

ED. FRANCISCANA ARANZAZU

NUMERO REGISTRO 1.692

DEPOSITO LEGAL S. S. 603/72

---

IZARRA IRARKOLA - PEÑA Y GOÑI, 13 - DONOSTIA

# Aurkibidea

Argitaldariaren oharra ... ..	7
<b>PAUL TILlich ETA BERONEN PENTSABIDEA.</b> Joxe A. Ibarbia	9
Tillich, mugarteko teologaria ... ..	12
«Fedearen Dinamika» ... ..	14
Fedea eta erlijioa ... ..	16
Erljioaren mugaketa ... ..	18
Fede konzeptua ... ..	20
Fedea eta Goiagerkundera ... ..	23
Fedea eta erlijio sinboluak ... ..	25
Fede mota ezberdinak ... ..	28
Zalantza eta zihurtasuna (kemen): fedearen tasun bi ... ..	30
<b>SARRERA GISA</b> ... ..	35
<b>FEDEA ZER DA</b> ... ..	37
<b>Pentsabidea</b>	
1. Fedea gizonaren azken axola ... ..	43
2. Fedea gizonaren barne bilketa ... ..	47
3. Fedearen sorburua ... ..	52
4. Fedea eta sainduaren dinamika ... ..	57
5. Fedea eta zalantza ... ..	61
6. Fedea eta fede elkartea ... ..	68
<b>ZER EZ DA FEDEA</b> ... ..	77
<b>Pentsabidea</b>	
1. Fedearen okerbideratzea adimenaren aldetik ... ..	80
2. Fedearen okerbideratzea nahimenaren aldetik ... ..	86
3. Fedearen okerbideratzea sentimenaren aldetik ... ..	89

<b>FEDEAREN SINBOLUAK</b> ... ..	92
<b>Pentsabidea</b>	
1. Sinboluaren esanahia ... ..	96
2. Erlijio sinboluak ... ..	99
3. Sinboluak eta mituak ... ..	104
<b>FEDE MOTAK</b> ... ..	112
<b>Pentsabidea</b>	
1. Fedearen osakiak eta hauen dinamika ... ..	118
2. Fede mota ontologikoak ... ..	121
3. Fede mota moralak ... ..	129
4. Fede mota ezberdinen batasuna ... ..	135
<b>FEDEZKO EGIA</b> ... ..	140
<b>Pentsabidea</b>	
1. Fedea eta arrazoimena ... ..	147
2. Fedezko egia eta zientziatzko egia ... ..	150
3. Fedezko egia eta historiatzko egia ... ..	160
4. Fedezko egia eta filosofiatzko egia ... ..	164
5. Fedezko egia eta honen ezagupideak ... ..	171
<b>FEDE BIZITZA</b> ... ..	176
<b>Pentsabidea</b>	
1. Fedea eta kemena ... ..	185
2. Fedea eta norbere baterakuntza ... ..	192
3. Fedea, maitasuna eta ekintza ... ..	200
4. Fede elkarteak eta honen agerpideak ... ..	206
5. Fedeak elkarren buruz-buru ... ..	211
<b>AMAIERA</b> ... ..	216
<b>TILLICH DELA-TA. Joseba Arregi</b> ... ..	219
<b>Bizitza: izankizun eta fedebide</b> ... ..	219
Fedea osotasun bat ... ..	220
Fede faltsoak ... ..	221
Maila esistentzialekoa ... ..	222
Fedean gaiak du garrantzia, ez hitzak ... ..	224
<b>Teologiatik ere Euskal Herrira</b> ... ..	225

## Argitaldariaren oharra

*Liburu honek giza fedeaz hitzegiten du, fede guzien aurretiko fedeaz. Giza fede guzien funtsa, egia eta gezurra ekarri nahi ditu argitara liburuak.*

*Liburu hau aldrebes irakurri behar da, atzekoz aurrera alegia. Lehendabizi, Joseba Arregiren Tillich dela-ta. Ondoren, Joxe A. Ibarbiaren Paul Tillich eta beronen pentsabidea. Azkenik, Paulo Agirrebaltzategik ematen dituen Pentsabide horien laguntzarekin, Tillich-en beraren itzulpena.*

**Paul Tillich  
eta beronen pentsabidea**

**Joxe A. Ibarbia**

Hona hemen zer  
dioen P. Tillich-i buruz Heinz Zahrnt-ek, hogeigarren  
mendeko teologia protestanteaz idatzi duen bere liburu  
bikainean:

Tillich biraurkitzea, gazteriak biraurkitzea batez  
ere, bigarren mundu gerla ondorengo teologi  
alorreko gertakaririk nagusienetakozat jo behar  
da (1).

---

(1) *Die Sache mit Gott*, R. Piper und Co. Verlag, Mün-  
chen (1966) 383 or.

Hori esatean, Alemaniako teologi giroaz bakarrik ari da Zahrnt. Ezingo genuke inola ere esan Euskal Herrian Tillich aurkitua dugunik (2).

Euskal Herritik kanpora, berriz, eta katolikoan landetan, Tillichen teologiazko ideiak eta idazlanak erabiltzen dira, bai; ez, ordea, benetazko teologiazko idazlanetan eta saiakeretan, sekulargintza, Jainko-heriotzaren teologia eta beste holako zabaltzen dituzten liburuetan baizik. Eta erabili ere arinegi eta gaingirokiegi erabiltzen da Tillichen izena, bere mailatik oso urruti dauden Van Buren, Vahanian, Altitzer, Hamilton eta abarrekin lotuaz, alegia. Gainerakoan ezezaguna-edo da Tillich teologaria teologia katolikoaren alorretan. Eta badute errurik agian teologari protestanteek berek ere. John Robinson, apezpiku anglikanua, esaterako, horren zaratatsu argitara zen *Honest to God* bere liburu aipatuan, azaletik eta alderdi batetik bakarrik aurkezten digu Tillichen pentsakera. Ez da bidezko Tillichen pentsakera – alderdikeriaz –, «sekulargintza», «Jainkoaren heriotza» edo «erlijio gabeko kristautasuna» eta antzeko pentsakera zindotasun gabekoen hesietan sartu eta hestutzea.

Hogeigarren mendeko teologari handienetako bat dugu, noski, Tillich. Berak idatzi duenaren ugariari eta mardulari gagozkiela, Tillich dugu agian K. Barth handiarekin alderatu genezakeen teologari bakarra (3).

K. Barth-i parekaturik, hain zuzen, neur genezake hobeekin P. Tillichen teologiaren balioa eta premia. Tillichek

---

(2) Hala ere, Joseba Arregik Tillichen aurkezpen ederra egina du *Erljioa hauzipean* izeneko liburuan (JAKIN sorta 5) 58-74 orr. Eta beste zenbait aldiz ere JAKIN taldeak erabilia du Tillichen izena bere liburuetan.

(3) Ikus W. NICHOLS, *Systematic and Philosophical Theology*, Penguin Books, London (1969) 234-235 orr.

berak behin eta berriro goraiatu izan du Barthen eginkizun historikoa teologiaren barrutian: izan ere, bere *goiagerkundera bai, erlijioa ez* deihots edo slogan duela bide, gure mendeko profeta handi gertatu zaigu Barth; hau jabetu da *protestantismo berri burgesaren teologia liberalaren joera gizakoiegia ukatu beharraz eta kristautasunaren egiazko paradoxa berriz idoro beharraz* (4). Gizakoitasunaren gizakoiak teologia jota zedukan hartan, gogotsu jaulkitzen zuen Barthekek bere deihadar profetikoa, teologiak Jainkoagandik eta Kristoren goiagerkunderetik, eta ez gizonagandik, hasi behar duela gogotsuki hotseginaz.

Tillichek ere onartzen du, bai, teologiaren oinarria goiagerkundera dela: bat dator hontan Barthekek teologia liberalari egin dion kritikarekin. Baina horren berriztu nahiak Barth urrutiegi bultzatu ote duen dago Tillich. Goiagerkunderaerakiko zintzotasuna teologiaren alde bat besterik ez da, Tillichen ustez. Bai omen du beste eginkizunik ere teologiak, eta goikoa bezain garrantzizkoa gainera: hau da, gizonaren egoera, bere burubidea eta arazoak ezagutzeari; guzi honi erantzun behar dio teologariak egungo hizkera bizi batez, agerkundera argibide duela, hori bai.

Hildo biko bidea darabil, beraz, Tillichek: batetik, gizonaren *galdera* ezartzen du (eta hontarako filosofia esistentzialistaren ekarriak darabilzki erruz), eta, bestetik, Jainkoak bere agerkunderan ematen duen *erantzuna* erakusten du.

Galde-erantzun jokabide honek bistakoa eta ezinbestekoa dela emango luke, eta teoriak behintzat teologari oro saiatzeko da hortan. Egitez eta jardunez, ordea, zaila da eginkizun hau, izpiritu eta ikuskera zabala eskatzen bait

---

(4) *Systematic Theology*, The University of Chicago Press, Chicago (1951), at. I, 5 or.



dio teologariari, eta edonoren esku ez dagoen jakinduria ere bai gizonari eta agerkundeari buruz.

Tillich izan dugu, hain zuzen ere, sintesi zail hori egiteko izpiritu zabala eta beharrezko jakinduria beregan izan dituen gizaseme urri horietako bat.

Hortarako ez ditu lagun makalak izan gainera bere buru argitasuna eta bere bizitzan ibilitako lurraldeen eta historiazko gertakari garrantzitsuen esperentzia paregabea.

## Tillich, mugarteko teologaria

Tillichek berak eman digu bere gogabidean aztarnarik utzi duten esperentzien laburpen bat (5). *Bitarteko* teologari: izen hauxe jarri dio Tillichek bere buruari; hots, bata bestearen kontrako joeratan erdibidea bilatzen duen teologaria. Bere bizitzaz ere idatzia du liburu bat, *Mugartean* izenekoa. Izenburu bixi-bixi honek beronek ematen digu Tillichen teologiazko asmo eta egitaraua. Hone-laxe laburtzen du W. Nicholls-ek: *Antitesi gezurrezkoen bitarteko izan nahi du Tillichek, eta alderdi biak elkarbatu* (6).

Tillichek berak digunez, bere bizitzako gorabeherak eman omen zioten bitartekoarena egiteko sena. Aipaturiko *Mugartean* liburuan biltzen dizkigu bizi behar izan zituen esperentzia muturrekoak eta bata bestearen kontra-

---

(5) *On the Boundary*, Ed. Collins, London (1967); *The Protestant Era*, The University of Chicago Press, Chicago (1957) V-XXVI orr.; *Autobiographical Reflections, Theology of P. Tillich* liburuan (C. W. Kegley — R. W. Bretall) New York (1952) 3-21 orr.

(6) *Aip. lib.*, 234 or.

koak: aita zuzena, agintekoia, burukoi xamarra, batetik; ama, berriz, maitagarria, igarozalea, ekinzale xamarra, bes-tetik; baserria eta hiria (Starzeddel eta Berlin); giro bur-gesa (bere familia) eta proletargo giroa (bere esloka la-gunak); hemeretzigarren mendearen azkenaldiko teologia liberala batetik, eta Barthen eta honen jarraitzaileen teolo-gia ortodoxoaren kontrajoera, bestetik; hemeretzigarren men-deko idealismo alemanitarra eta hogeigarren mendeko kon-trajoera esistentzialista; bere etxeko jainkozaletasun giroa (aita elizartzain protestante zuen), eta mugimendu sozia-listen gizarteko kezkak; nazismoaren basakeria, eta Ipar Amerikako demokrazia. Bizikizun guzi hauk agiri dira nolabait P. Tillichen pentsakeran (7).

Baita - eta hona hemen benetan garrantzizkoa Ti-llichen bizitzan - Tillich ez zen sekula esperentzia horie-tako bakar batera erabat menperatu. Berthen eta Tillichen antzinako eztabaida batetan, nazismoak Tillich herbeste-ratu aurretik alegia, *Inkisidore Handiaren* aurkako bur-rukan lehiatuegia zebilela salatu zuen Berthekek, Dos-toiewski-ren pertsonaia ezagun hura aipatuaz. Zuzen ze-bilen Barth bere salakuntzan noski. Eta Tillichek onartu zuen, onartu, Barthen oharpena, eta aurrera jo zuen In-kisidore Handi guzien aurka burrukan, hots, absolutuke-ria guzien aurka, nahiz politikazko iraultza zalea nahiz dotrinazko dogmazalea izan absolutukeria hori. Zerbaite-gatik jo dute Tillich, liberaltzat teologari ortodoxoek, eta ortodoxotzat teologari liberalek. Horrexegatik agian ez du Tillichek jarraitzaile eskolarik sortu, zientziatzko balioa horren garai eta agiria izan arren. Alderantziz, egia baka-rra bilatzera bildu nahi izan zituen Tillichek elkarren kontrako teologi joera eta eskola guziak.

Hona hemen zergatik den Tillichen oraingo gorakada

---

(7) Ikus *On the Boundary*.

hori eta zergatik ari den esangura berezi-berezia bereganatzen, gordezale edo atzerakoiek eta aurrerakoiek, izpiritukoiek eta gizartekoiek, liberalek eta ortodoxoek ari duten burruka une hontan.

## «Fedearen Dinamika»

Tillichen hainbeste libururen artean, laburrenetakoa, bai, baina baita esanguratsuenetako hau hartu dugu gure euskal irakurleei eskaintzeko. Laburrenetakoa delako, hain zuzen, liburu hontantxe ageri da nabarien Tillich *mugarterko teologariaren* kontrakoak elkartzeko joera eta sena.

Artikulu eta konferentzitan azaldu du Tillichek gehienbat bere gogoeta; eta gero bildu, antolatu eta liburutan argitara eman ditu haiek. Horregatik, osoan argitaratzeko idazten den liburu batek izan ohi duen batasunik ez dute haren liburu gehienek. *Fedearen dinamika* ez da horietakoa.

Artikulu-konferentziaz gainera, zenbait liburu sistematiko ere argitaratuak ditu Tillichek; baina zabal-lodiak izaki, ez zaizkigu oraingoz egokienak iruditu euskal irakurleei eskaintzeko. Hauetan nagusi-nagusiena *Systematic Theology* du Tillichek. *Fedearen dinamika* ez da hauetakoa ere.

*Fedearen dinamika* liburu laburra da; baina labur eta guzi, fede arazo handi eta zabalaz idatzi diren libururik biribilenetakoa da ezpairik gabe. Ez orrialdetan, eta bai mami marduletan du liburu honek bere esana. Eta beharbada bere laburtasuna du baliorik handienetako bat ere: laburpena da, eta bere laburrean ematen du gaurko kristau teologiaren arazorik bizienetako eta larrienetako baten ikuspegi osoa.

Baina edozein zientziatzko nahiz literaturazko idazlan, garaiak eta garaiko arazoez deitu eta sortzen dute. *Fedearen dinamika* honek ere gure garaiko galdera konkretuei erantzun nahi die. Azken aldiko teologian nabarmenki jardun dira elkarjoka fede burutaben bi. Biak elkarbatu nahi ditu Tillichek. Batetik, adimen-nahimenezko fedea dugu, bestetik, sentimenezko fedea, Tillichek berak bigarren kapituluaz azaltzen duenez. Aurrenekoa izan da gure dotrinetan edo kristau ikasbideetan ikuskera katoliko-katolikoena bezala hartu izan dena: hau da, goitik agertutako egia egiazat ematea, nahiz eta giza adimenarentzat ulertezinak izan. Agertzen dizkigun Jainkoaren itzalagatik edo sinesteko agintzen digun Elizaren aginpideagatik sinetsi behar dira egia horiek. Sentimenezko fedea, ordea, Schleiermacher-i leporatu izan zaio gehienetan, teologiari honen fede burutapena inola ere sentipen hutsetara mugatzen ez bada ere, Tillichek berak gogorarazten digunez (8).

Tillichen fede konzeptua Schleiermacher-enetik gertuago dabil adimen-nahimenezko fedetik baino, fedearen iturburua adieraztean batez ere. Tillichen ustez, fedea ez da gizonari kanpotik agintzen zaion zerbait: norbere esperentzia bizia da fedea, gizonak bere baitan Jainkoa bertako duela ohartzea da fedea. Fedea ez da sentipen hutsa, ez da adimenezkoa bakarrik, ez da nahimenaren nahiezkoa bakarrik. Norbere osoarena da sinesmena.

Fedearen esangura garbitu beharra dagoela esan ohi du Tillichek. *Erljio mintzairan hitz guti dago bere esangura garbitzeko fede hitzak baino premia handiagorik duenik* (9). Tillichek ez du batez ere begi onez ikusten

---

(8) Ikus *Perspectives on 19th and 20th Century Protestant Theology*, SCM Press Ltd, London (1967) 95 eta hurren orr.

(9) *Systematic Theology*, III, 130 or.

fedeari maiz eman ohi zaion adimen kutsu handiegia. Ustearekin nahasi izan omen da sarritan fedea (9 bis), bu-ruak bere lehiaren lehiaz lortuko balu bezala edota adimenak ulertezineko eta zentzurik gabeko zerbaiti, eta kanpoko aginpidedunen batek hala agintzen duelako, mene-gitea balitz bezala. Honela, fede bi berezten dizkigu Tillichek: filosofiazko fedea eta erlijiozko fedea:

erlijiozko fedea giza izpirituaren arlo guziak besarkatzen ditu, norbere osoa; filosofiazko fedean, ordea, gizonaren nortasuna baztertuta-edo geratzen da, bere adimena goiko mailan jartzen delarik (10).

## Fedea eta erlijioa

Gure garaiko teologiaren arazorik bizienetakoa fedea-ren eta erlijioaren harremana da eskierki. Hogeigarren mendeko teologia protestanteak – K. Barth eta D. Bonhoeffer gidari – zorrozki astindu du erlijioa, eta fedea indartu eta goraipatu. Barthen ustez, gizona gurtzea da erlijioa, honen bidez gizonaren antzeko eta mailako jainkotxo eraiki nahi bait du gizonak; fedea, ordea, egiazko Jainkoaren hitza onartzea da, Idazteuneko agerkundearen bidez mintzatu zaigun Jainkoaren hitza, alegia. Istituziozko guzia astindu nahi du Teologi joera honek, nahiz ez-kristau erlijioena nahiz kristautasunarena. Joera hontantxe sartzen dira «erlijio gabeko kristautasuna», «Jainkoaren

---

(9 bis) *Ustea eta sinesmena*: Tillichek bere hirugarren kapituluan darabil erruz berezketa bat: *faith* eta *belief* (gaztelera *fe* eta *creencia* izango lirake). Euskeraz *fedea* eta *ustea* jarri ditugu.

(10) *Biblical Religion and the Search of Ultimate Reality*, The University of Chicago Press, Chicago (1955) 66 or.

heriotza» eta «sekulargintza» izeneko teologi bideak. Kontuz baina! Barthelemy berak ez zuen hauek bezain ertzeraino jo, kristautasunaren instituzioei dagokienez batez ere.

Erljio-fedeen harremanen arazo honi buruz ere erdibidea hartzen du Tillichek. Bere idazkietan zehar ikusenezake esanahi berezirik duen zerbait: hau da, maiz berdintsu erabiltzen ditu *erlijioa* (ez *erlijioak*) eta *fedea*, batari eta besteari adiera berdintsua emanaz. *Fedearen dinamika* honen lehen kapituluak aurkitzen dugun fedearen mugaketa berbera edo ia ia berbera aurkienezake erlijioari buruz, bere *Christianity and the Encounter of the World Religions* liburuan ere (11). Fede-erlijioen antitesi modernu honen mutur biak onartzen ditu Tillichek: ez dago federik gabeko erlijiorik eta ez dago erlijiorik gabeko federik ere. Fedearen agerpide dugu erlijioa, batetik; eta, bestetik, erlijiorik gabe izkutatu eta suntsitu egiten da fedea.

Hala ere hauzi hau erabakitzekeo Tillichen abiaburua protestante-protestantea dugu. Ikusia dugu dagoeneko fedearen bere mugaketan. Hitz errazez esanaz, Tillichek nahiago du fedetik erlijiora jo, erlijiotik federa baino. Beretik nabari du Tillichek joera hau *Fedearen dinamika* hontan bertan, erlijio sinboluez ari zaigunean. Bere beste liburu batetan, bere bizitzako aurkikunde handienetakotzat daduka fede-erlijioen lotura hau aurkitu izatea. Schleiermacheren teologiak ez zuen eragin tipia izan Tillichen burubide hontan eta beste hainbeste R. Otto-ren *Das Heilige* liburuskak (12). Hona hemen nola dioen Tillichek berak: *Sagaratuarekiko esperentziatik abiatu behar dugu Jainko ideiarra jotzeko, ez alderantziz* (13). Joe-

---

(11) Columbia University Press, New York (1963) 4 or.

(12) Ikus *Autobiographical Reflections*, 6 or.

(13) *Ibid.*

ra hau eta erlijioaren ikuskera hau esistentzialak deitu ditu Tillichek.

## Erljioaren mugaketa

Azter dezagun sakonkiago Tillichek erlijioari buruz duen pentsaera. Bere *Christianity and the Encounter of the World Religions* liburuan erlijioaren mugaketa hauxe ematen digu:

Azken axola batek gizona oratuta edukitzea da erlijioa, azken axola horrek beste axola-moduak atariko eta azaleko bihurtzen dituelarik, eta gure bizitzaren esangura-galderari erantzuna ematen diola (14).

Erljioaren mugaketa *klasikoez* oso bestelakoa dugu Tillichen hau: *Buruzkoak* deitzen ditu berak mugaketa horiek. Hona hemen *buruzko* mugaketa horietako errazena: *Jainkoa edo jainkoak gurtzea* da erlijioa. Erljioaren mami, hots Jainkoa, adimenez ezagutzean jartzen dute abia-buru bezala buruzko mugaketek; Tillichek, ordea, ez du adimenezko ezagutza erlijioaren aurretik ematen, atzetik baizik.

Bana dezagun, baina, Tillichen erljioarekiko burutakizuna. *Azken axola* omen da erlijioa. Psikologiazko hizkeratik jaso du *axola* (*concern*) hitz hori, bai, baina Tillichek ez du bere adiera zuzenekoan hartzen, sinbolu bezala baizik, eta ontologiazko zerbait adierazteko erabili. Ez litzake bidezko izanen, bada, hitz honi sikologiazko esanahi hutsa ematea, Schleiermacheren erljio definizioko *sentipena* - «erabateko menpekotasun sentipe-

---

(14) *Atp. lib.*, 4 or.

na» litzake erlijioa – norbere fruitu hutstzat hartzea bi-degabekeria litzakeen bezalaxe – hala dio Tillichek (15) –. Giza izpirituak duen dimentsio bikoitzez nor bere bizitzan oihartzeak dakar funtsarekiko axola hori. Aldez aurretik bi neurrialde edo dimentsio eskatzen ditu, bada, azken axolak gizonagan: batetik, gizona Baldingabearekin – Jainkoarekin, esan nahi da – *berez eta izatez elkarturik eta baturik* dago, eta neurrialde honek ematen dio gizonari Baldingabearenganako axola eta joera; bestetik, gizona Baldingabearengandik *bizitzez eta jardunez berezia eta aldendua* dago, eta honek sortzen du gizonagan larritasun eta hestutasun gisako bat. Bigarren neurrialde hau ikutzen du batez ere *axola* hitzak; baina erlijiozko axola ez da bildur hutsa, bildurra eta konfiantza biak batera baizik; gizona *zerizanez* Jainkoarekin lotuta eta *bizitzez* Jainkoagandik berezia bait dago.

Ardura ugari du gizonak bere bizitzan. Bat bakarra izan daiteke, ordea, azkena, gorena eta baldingabea, eta beste axola guziak baino nagusiagoa denez, guziak bere menpera ditzakeena. Azken axola da erlijiozko axola. Azkenak eta gorenak, hots Jainkoak, erne dezake azken axolarik; azkena ez denak, berriz, atariko eta azaleko axola besterik ezin dezake erne. Tillichek ez du, ordea, Jainkoa *zerbait* bihurtu nahi; Jainkoa ez da beste *zerbait*, mugadun guzien pareko *zerbait*, gure giza pentsamoldearen arabera. Jainkoa bera giza izpirituan agertzen den bezala ikusi nahiago du Tillichek, gizonaren izenlagun bezala, gizonaren tasun edo nolakotasun bat bezala. Bere esaera aipatua erabiliaz, *gizonaren izanaren hondoa eta indarra* da Jainkoa (*the ground and power of being*).

Erljio burutakizun honi izatezko burutakizun edo definizio esistentzial izena eman zaio. Tillichek berak ere

---

(15) Ikus *Systematic Theology*, I, 42 or.



horixe emana dio (16). Hemen ez dadukagu esistentzialismoak - eta Schelling-ek, Kierkegaard-ek, Nietzsche-k eta Heidegger-ek bereziki - Tillichen pentsabidean izan duen eragina aztertzeke betarik. Alda ditzagun bakar-bakarrik erlijioaren adiera esistentziala azaltzeke Tillichek berak darabilzkien hitz batzu:

Erljioaren adierak esistentziala izan nahi badu, erlijio esperentzia jator orok dituen bi aldeak nabarmen jarri behar ditu: erlijio esperentzia horren barnean dagoela gizona eta esperentzia hortan ezik, gizona ezin daitekeela jainkoaganatu (17).

## Fede konzeptua

Erljioari buruz esanberri dugun guzia esan genezake Tillichen fede burutakizunari buruz ere. Hona hemen *Fedearen dinamika* liburuaren lehen kapituluan, hasieran, nola zehazten duen fedea: *Azken axolaz axolatuta egoatea da fedea*. Hala ere eginkorra da batzutan fedearen eta erlijioaren arteko berezkuntza bat. Erljioak berezkoa du bere azken axolaren funtsezkotasuna, bai; eta benetan azkena eta baldingabea dena, eta ez beste ezer, izan daiteke benetazko azken axolaren jatorria.

Izan dezake, ordea, norbaitek funtsaren azken axolarik - haxe du izan ere erlijioaren dinamikak bere-berezkoa -, axola horren mamia eta sortzailea berez azkena eta baldingabea izan ez arren: atariko eta baldinpetua izan arren. Hona hemen *erlijio-gisako* direlakoak. Erli-

---

(16) Ikus *Theology of Culture*, Oxford University Press, Oxford (1959) 10 or.

(17) *Ibid.*, 189 or.

jio-gisako hauen arazoa zenbait idazlanetan aztertua du Tillichek. Nazismo erlijio-gisakoa, Komunismo erlijio-gisakoa eta sekularismo erlijio-gisakoa aztertu ditu bereziki berak (18). Erlijioen eta erlijio-gisakoen barne dinamika berdina da itxuraz: biotan dago azken axolarik. Bada alde garrantzizkorik, ordea, erlijio-gisakoen artean. Erlijio-gisakoetan azaleko eta baldinpetua den zerbait azken axolakizun bihurtzen du gizonak: nazioa (nazismoak), gizarte paradisuaren utopia (komunismoak), jakintza, aurrerapena edo mundu hontako beste edozer (sekularismoak). Horien gaiak edo «gauzak» berezten ditu erlijioa eta erlijio-gisakoa: erlijioak azkena edo baldingabea du bere gaia edo gauza; erlijio-gisakoak, aldiz, mugatua eta baldinpetua du bere gaia edo gauza. Baina Tillichek ez du erlijioaren «gauzaz» mintzatu nahi, erlijioaren muinak giza bizitzako *zerbait-norbaiten* tartea gainditu egiten bait du. Fede gaia da beraz, erlijioa eta erlijio-gisakoa muin-muinean berezten dituen. Fedea erlijioaren muin bihurtzen duten horietako zenbait aipatuko dugu hemen.

Tillichen eritziz, bi neurrialde edo dimentsio ditu fedea. Giza gogoaren gaia da, batetik, fedea; baina, bestetik, goiagerkunderaz, Izpirituak emaniko dohaina da fedea. Hona hemen Tillichen hitzak: *Fedea ez da gizonari kanpotik agindu dakioken zerbait, ezta gure nahimenaren lehiaren lehiaz erne dezakegun zerbait* (19). Bizitzaren joankortasuna garaitu nahi duen gizon honek benetan azken minik eta axolarik izango badu, bere barnean behar du mugagaberik; eta honek bihurtzen du fedea *gizonak ahal dezakeen zerbait* (20). Gizonak ahal izateak, ordea, ez du esan nahi fedea giza izpirituaren eginkizun

---

(18) Ikus *Christianity and the Encounter of the World Religions*, 5 eta hurren orr.

(19) *Biblical Religion...*, 51-52 orr.

(20) Ikus *Fedearen dinamika*, 53 or.

batekin berdin daitekeenik, ezta giza izpirituaren arloren baten ekarria izan daitekeenik ere. Izpiritu jainkozkoaren dohaina da fedea batez ere; izan ere *jainkozko Izpirituak hartu egiten ditu giza gogoaren arloak eta horien ontziak gainezkarazi fedean* (21).

Hiru aldi berezten ditu Tillichek gizonaren fede esperentzian: giza gogoaren Izpirituaganako irekitzea, aurkez duen jainkozko Izpirituaren onartzea – gizonagandik urruti baino urrutiago egon arren –, eta – hirugarren –, beste gauza guziak gaintituaz, Izpirituarekin noiz elkartuko eta bategingo itxarotea (22). Graziazko dohainak dira hiru aldiok, baita fedeari irekitzea ere. Fedea grazia eta dohain izate hau funtsezko da noski; bestelan ez fedea izango litzake fede, ez erlijioa litzake benetazko erlijio, gizonak bere burua bere aldetik salbatu nahi izate zentzugabea baizik.

Horregatik gizonaren konbertsio eta onbidea eskatzen du fedea. Gerkerazko *metanoia* hitzak ematen du hobekien nola den fedea Izpirituaren dohaina. Gizonaren joera eta norakoa aldatzea esan nahi du *metanoia* hitzak. Bi alderdi ditu joera aldatze honek: bata ukatzezkoa, hau da, aurretiko joera ezeztatzea; eta onartzezkoa bestea, hau da, joera berri bat hartzea, Izpirituaren eraginaz, alegia. Joera aldatze honek, berriz, zera dakar berekin: gizonak aurretzean bere burua bere erdigunetzat jartzea.

Goian aipatu dugun erlijioaren mugaketan bereziki nabarmen dago nola den fedea Izpirituaren doaina. Azken axolak heldu, oratu egiten dio gizonari, Tillichen esatez. Esaera dotorea ez baldin bada ere, ongi begitaratzen du azken axola ez dela gizonak bere ekintzaz, gogartez eta

---

(21) *Systematic Theology*, III, 133 or.

(22) Ikus *ibid.*

nahiaren nahiaz erne dezakeen zerbait, gizonari *ematen zaion* zerbait baizik. Gizonak bere indarrez lorturikoa balitz azkenerakiko axola, ezin axola hau azkena izan, gizon mugatu eta baldinpetuak ez bait daduka ezer absolutu eta baldingaberik sortzerik.

## Fedea eta Goiagerkundera

Azken pondu horrek fedearen eta agerkundearen harremanen arazoa burutarazten digu. Agerkundearen burutakizuna du, hain zuzen, gairik jakingarrietakoa Tillichen teologiak (23). Fedeak eta erlijioak berez dute goiagerkundera beren oinarria. *Orokorra* da, beraz, goiagerkundera.

Gizon guziek dute goiagerkundera esperentziarik, *dio Tillichek*. Gizon guzietan edonon ematen zaie zerbaitetan dute erlijioak beren oinarria: Agerkundera ematen zaio gizonari, beti salbamen indarra duen esperentzi mota berezi hori... Jainkoak ez du lekukotasunik gabe utzi bere burua (24).

Hiru hitzetan azaltzen du Tillichek agerkundearen barne egitura: «misterioa», «extasia», «miraria».

a) MISTERIOA AGERTU. Tillichen iritiz, misterioa ez dute izkutatzen gizonaren eta misterioaren harremanez kanpoko gorabehera batzuek, ez; misterioa *berez* da misterio, bere egituran eta muinean, giza eskemetan bildu

---

(23) Ikus *Systematic Theology*, I, 71-157 orr.

(24) *The Significance of the History of Religions for the Systematic Theologian: The future of Religion*, Harper and Row, New York (1966) 81 or.

ezina. Misterioak bere misteriotasuna galtzen badu ez da misterio, gauza ezezagun baina ezagun daitekeen bat baik: misterioa ez da, ordea, gauza bat, norbait-zerbaiten harremana baino lehenagokoa da misterioa (25).

Hontantxe datza hain zuzen agerkundearen paradoxa: misterioa, misterio jarraituz, gizonari agertzen zaio, honen hondotasun neurrialdea suspertuaz; hondo honetatik sortzen da erlijioa eta hondoaren bere azken axola (26). Eta hauxe da, hain zuzen ere, *extasia*.

b) EXTASIA. Agerkunde esperentziarik izan duen gizonaren aurkintza edo egoera adierazteko darabil Tilli-*chek extasi* hitza. Misterioaren agerkundea bereganatzeko, *arrazoimenak bere egoera ohizkoa gainditzen duenean dago gizona extasi egoera ohigabe hontan* (27). Ohigabea izan arren, extasiak ez du giza arrazoimenaren barne egitura txautzen ez hondatzen. Alderantziz, giza arrazoimenak extasi gaitasuna duela esan daiteke orokorki, eta Izpiritu agertzaileak hazi, hedatu, bete eta burutu egiten duela gaitasun hori.

Giza arrazoimenaren eta agerkundearen harremanetat, giza adimenaren ezagutza moten eta agerkundearen ezagutzaren harremanetat, *Fedearen dinamika* liburuaren bosgarren kapituluan ari zaigu Tillich.

d) MIRARIA. Hona hemen agerkunde dinamikaren hirugarren osakia. Hauxe da misterioaren eta extasiaren arteko zubia. Miraririk ezean, eman eta gizonaganatu ezinekoa izanen litzake misterioa, eta ez litzake orduan giza arrazoimenaren extasirik ere izango. Bi hitzek bil-

---

(25) Ikus *Systematic Theology*, I, 108 or.

(26) Ikus *ibid.*

(27) *Ibid.*, 111 or.

tzen dute mirariaren esanahi jatorra goiagerkundeari dagokionez: *gertakari* bat da miraria; mirariak *zerbait adierazten du*. Gure zentzumenez jasotzeko gertakari bat da, bai, miraria; baina esangura izkutu bat du; eta ekstasian dagoen giza izpirituaren hondoak bakarrik uler dezake esanahi izkutu hori.

Bitara jotzen du mirariaren esanahiak: *goruntz* (adierazi eta agertu egiten du mirariak misterioa), eta *albotara* (mirariak misterioa agertu, erlijiozko gizonagan honen ekstasi neurrialdea edo dimentsioa suspertuaz agertzen du), Guzi hau ahal baldin bada, dio Tillichek, extasia giza gogoaren miraria, eta miraria izakien extasia delako da (28).

Hitz ohikoez eta erabiliez ari gara, bada, baina hitz hauen esangura bestelako ideia inguru batetan adierazten dira Tillichen pentsakeran. Burutakizun guzi hauk iku-tuak bakarrik aurkitzen ditugu *Fedearen dinamika* honen zenbait orrialdetan, hirugarren kapituluan, *fedearen sinboluez* ari denean batez ere.

## Fedea eta erlijio sinboluak

Miraria agerkundearen bidea izateak, erlijio sinboluak aztertzeraz garamazki.

Tillichek ematen digun erlijio definizioan, barne-bar-netik lotuta dago azken axola atariko axolarekin. Zer harreman dute, orduan, azken axolak eta atariko axolak erlijioan? Edota mirari baten barne misterioak eta bere agirizkoak?

---

(28) Ikus *ibid.*, I, 117 or.

Azken axolaren eta beste axolen harremanak hirutan berezten ditu Tillichek: elkarrekiko indiferentzia, bien arteko parekotasuna, elkarrekiko laguntasuna.

a) ELKARREKIKO INDIFERENTZIA. Elkarrekiko joera hau

bi muturren artean ari da etengabe batetik bestera: edo gauza mugatuez eta erdizkakoez axolaturik egon, batetik, edo norbere bizitzaren esanahiaz erro-errotik axolatuta egon, bestetik (29).

Honelaxe ari da, erlijioa eta eguneroko bizitza, igandea eta astegunak nabarmenegi berezten eta banatzen dituen gizona: atariko edo azalekoa eta azkena edo barrena elkartzen ez dituen gizona da hori. Hauxe da indiferentzia honen arriskua: azken axola bere benetazko esana galduaz joan daiteke, bere azkentasuna eta funtsezkotasuna galduaz joan daiteke, beste axolen mailako bihurtzeraino. (Atariko axola horiek, ordea, beste azken eta hondoko axola bat dagoelako dira azaleko eta atariko axola). Honela, gizona bere erlijio neurrialdea galduaz doa.

b) BIEN ARTEKO PARETASUNA. Harreman honen bidez, atariko axolei eta azken axolari balio berdina ematen zaie. Erlijio-gisakoek, esaterako, hauxe egiten dute. Har dezagun, adibide bezala, Komunismo erlijio-gisakoa: helburu zuzena luke komunismoak bere burrukan, hots gizartezko zuzentasuna eta justizia eraikitzea. Baina hortarako darabilzkien bideak eta lortu nahi duen zuzenbidea bera ere bikoitzak dira, giza libertadearen arabera. Komunismoak, ordea, bikoiztasun hau ukatzen du, bai bere helpidetan bai bere helburuan, bizitzaren bikoiztasuna bizitzak berak garai dezakeela uste du eta. Honela,

---

(29) *Ibdi.*, I, 13 or.

berez bikoitza den zerbaiti, hots komunismoaren iraultza erakunde eta helburuari, baldingabeko balioa ematen dio.

Utopiak berotu egiten ditu gizonak, dio Tillichek. Baina utopia beti utopia, mugatua eta baldindua dena ez baita sekula azken baldingabe bihurtuko (30).

d) ELKARREKIKO LAGUNTASUNA. Harreman honen bidez, atariko axolak (eguneroko ogia irabaztea, esaterako) azken axola baldingabearen – hauxe da gizonaren azken helburua – ontzi eta serbitzari bihurtzen dira: azken axola mamitu eta zertu egiten dute. Azken axolak aurretiko atariko axolei sakontasuna eta erlijio kutsua ematen dien bitartean, atariko axoletan gureganatzen zaigu azken axolagaia.

Erljioa ez da, Tillichek dioenez, giza gogoaren arlo berezirik. Arlo guzien sakona da erlijioa. Gogo bizitzaren muina, oinarria eta hondoa da erlijioa (31).

Azken axola gizonaren atariko axolen sakontzat hartzean datza Tillichen erlijio sinboluei buruzko pentsakera. Giza gogoaren arlo guziak eta bizitzaren eta izaki muga-tuaren dimentsio bakoitza eta guziak dira gai, sakonaren sinbolu bihurtzeko. Sakontasun neurrialdeak eta azken axolak harreman min-mina dute beren artean. Sakontasun neurrialdea da Tillichek Azkenari (Jainkoari) ematen dion nolabaiteko izena. Jainkoa ez da, Tillichen eritiziz, goienekoa, urrutikoa, gizonaren izanaren hondoa (ground) baizik. Hondo hau, gizonak bere bizitzan ohar-meneratzean, azken axola bihurtzen da gizonarentzat, eta atariko axoletan agertzen, hau da, gizonaren bizitzan eta izan osoan.

---

(30) *Christianity and the Encounter...*, 19 or.

(31) Ikus *Theology of Culture*, 5-8 orr.



Idea hauen hildotik adierazi behar dugu *Fedearen dinamika* honen hirugarren kapitulua: *Fedearen sinboluak*.

## Fede mota ezberdinak

Goazen aurrera azken axolaren eta atariko axolen harremana aztertuz. Tillichek dioenez, izaki mugatuak eta atariko axolak azken axola, erlijioa, agertzeko sinbolu-bide dira. Baina giza bizitzan gauza mugatu, arlo eta bizikizun ezberdin ugari dago. Horrela bide eta era asko du azken axolak agertzeko. Hontantxe datza erlijio moten sorburua. Tillichen ustez, erlijio- eta fede-mota ezberdinik bada go, fedeak, bere burua agertzeko eta mamitzeko bide ezberdinak dituelako da.

Hala ere, mota ezberdinetan agertze hau ez da erlijio-fedeen alderdi bat besterik. Funtsean erlijio esperentzia guziek, fede guziek dute eta behar dute izan zenbait elementu berdin. Tillichen hitzak, berriz ere: *Sagaratuaren esperentzian beti dago zenbait elementu jakin, beneran Sagaratuaren esperentzia baldin bada* (32). Erlijio fenomenuaren iraupideak deitzen ditu Tillichen elementu hauk. Beraz, erlijio eta erlijio esperentzia guzietan dira nolabait osagarri erlijioaren iraupide hauk. Hiru dira erlijio fenomenuaren iraupideok.

R. Otto-k eginiko erlijio esperentziaren azalpena, sagaratuarekiko edo misterioarekiko esperentziazat hartuz, gogoz onartzen du Tillichek (33). Sagaratuarekiko espe-

---

(32) *The Significance...*, 86 or.

(33) R. Ottok "sagaratuarekiko" esperentzia erabiltzen du, eta ez "misterioarekiko" esperentzia; hala ere, hemen biak, *sagaratua* eta *misterioa*, antzekotzat hartzen ditugu: Jainko esperentzia esan nahi dute biok. Baina bada aldetxorik bien

rentziaren osaki denak ditu azken axolak ere. Hiru haue-  
tatik du, bada, Sagaratuarekiko esperentzia honek, hiru-  
rak elkarren osagarri: Sakramentuzkotik, mistikazkotik,  
profetiko-moralezkotik: gauza horien bidez bakarrik izan  
genezake guk, izaki mugatuok, Sagaratuarekiko esperen-  
tziarik. Gauza sagaratu hauk ez dira Sagaratua bera, or-  
dea, Sagaratuaren agerpide baizik. Sagaratua eta gauza  
sagaratuak ez nahasteko, beste bietatik behar du Sagaratua:  
sekular ez, *bestelako* (munduko ez, bestelako) nabaitu  
behar dugu Sagaratua (mistikazkoa), eta *garbi eta era-  
bateko* nabaitu behar dugu Sagaratua (profetiko-moralez-  
koa) (34).

Erlijio esperentzia jator orok berez du hiru horieta-  
tik: *sakramentuzkoa*, Baldingabearen eta gizon mugatua-  
ren elkargune bezala, alegia; *mistikazkoa* eta *profetikoa*,  
berriz, beren kritikabidez sakramentuzkoa sasierlijioan  
erortzetik zaintzen dutela. Argi eta garbi dio Tillichek:

...Sagaratuaren esanahia osotzen duten guziek  
behar dute Sagaratuarekiko esperentzia jator gu-  
zietan nolabait izan, eta, beraz, erlijio guzie-  
tan (35).

Baina hiru horiek ez daude erlijio guzietan era eta  
hein berdinetara. Erlijio esperentziaren agerpide ezberdi-  
nak dira erlijioak; eta hauetako bakoitzak neurri ezber-  
dinez daduka erlijio esperentziaren hiru horietatik. *Erlijio*

---

artean: *misterio* hitza teologiak agerkundeari buruz darabilena  
da (ikus 23-24 orr.); *sagaratu* hitza, ordea, erlijio fenomenolo-  
giak edozein erlijio esperentziari buruz darabilen hitza da.  
Tillichen aburuz, hala ere, edozein erlijio esperentzia jator  
agerkunde esperentzia da beti.

(34) Ikus *The Significance...*, 87 or.

(35) *Christianity...*, 67 or.

*konkretu bakoitzean hortetako bat gailen izateak ematen dio erlijio horri bere berezitasuna* (36). Ezinbestekoa da hau, *gizonak, mugatua izaki, ez daduka inoiz egiaren alderdi guziak oreka oso batetara biltzerik eta* (37); bidezkoa da, beraz, hiruretariko bat gailen izatea. Honelaxe sortu dira, sortu ere, erlijio mota ezberdinak eta erlijio mota bakoitzeko joera eta modu ezberdinak.

*Fedearen dinamika* hontan bi fede mota edo erlijio mota berezten ditu Tillichek: ontologiazkoa eta morala. Baina ontologiazkoa aztertzean bitan banatzen du: sakramentuzkoa eta mistikazkoa. Mintza gaitezke, beraz, hiru fede edo erlijio motez: hau da, sakramentuzkoaz, mistikazkoaz eta profetikoaz, Tillichek berak beste zenbaite-tan egiten duen bezala (38).

## Zalantza eta zihurtasuna (kemena): fedearen tasun bi

Bi neurrialde edo dimentsio aurkitzen ditugu fede-erlijioetan, Tillichen eritziz: 1) *Sakona*: neurrialde hontan aurkezten da Baldingabea tartekorik gabe, bere misterioa agertuaz, eta azken minaren oinarria ezarriaz; 2) *Agiria*: neurrialde honen bidez agertzen da misterioa; azaleko axolek osatzen dute neurrialde hau; horietxek dira barneko azken axolaren sinboluak.

Neurrialde biak behar dituzte erlijioek eta fedeeek. Ti-

---

(36) *The Significance...*, 86 or.

(37) Ikus *Fedearen dinamika*, 119-120 orr.

(38) Ikus *The Significance...*, 86 eta hurren orr. *Protestant era*, 16-31 orr., eta abar.

llichek ez ditu, horregatik, ertzeko joerak onartzen: *agerkunderik bai, erlijiorik ez*, eta holakoak. Ez dago fedetik gabeko erlijio egiazkorik; ez dago erlijiorik gabeko fede egiazkorik.

Baina neurrialde bikoitz horrek ondorio bikoitza ere badu: 1) Fedeak bere *agirizkoa* baldin badu – eta aldakorra litzake hau –, giza fedeak berezkoa du zalantza. 2) Fedeak bere *sakonezkoa* – eta aldaezina – baldin badu, kemenaren kemenez garaitu behar da fedearen zalantza, fedezko zihurtasuna lortzeko.

Zer esan nahi dute, ordea, bi ondorio hauek?

Fedearen agirizkoaren ondorioa da zalantza: formulak, rituak, sinboluak behar ditu fedeak misterioaren erlijiozko esperentzia agertzeko. Misterioaren presentziaren ondorioa da fedearen kemena edo adorea eta zihurtasuna, presentzia honek izakien mugatasuna gainditzen du eta.

Hontara dio Tillichek bere *Fedearen dinamika* liburuan: Ez dago fedeko zalantza kentzerik, *mugatu batek mugagabea hartzea eta bereganatzea delako sinesmena* (39). Honexegatik astindu du Tillichek behin baino gehiagotan Eliza katolikoa. Bere buruarekiko segurantzia eta zihurtasun handiegia omen du Eliza katolikoak. Tillichen aburuz; horra hor, zergatik bihurtzen dituen idolu bere iztituzioak eta dogmak. Fedeak, ordea, zalantza eskatzen du, Jainkoarekiko segurantzia eta zihurtasuna giza zalantzaren eta zihurtasun ezaren bidez bakarrik agertzen direlako. Osterantzean, Jainkoaren ordezkari dogmak eta iztituzioak jarriko genituzke, hau da, erabat baldinpetuak

---

(39) Ikus *Fedearen dinamika*, 61 or.

direnei Baldingabearen balioa erantsiko genieke. Eta honelo erlijioa deabruzkotu egingo genuke (40).

Zalantza hori, ordea, kemenaren bidez garaitu behar da. Tillichen libururik esanguratsuenetako batek izenburu hauxe du: *Courage to be* (Izateko kemena) (41). Filosofia esistentzialistak gure mende hontan horren biziki aztertu duen larriaren garaipentzat azaltzen du Tillichek fedea. Gizonaren arazoa aztertu du esistentzialismoak; ez-izateak, heriotzak bere mehatxupean dadukan gizonaren izatezko larria, alegia. Gizonaren izateari, ordea, fedearen zihurtasunak bakarrik eman dezaioke irtenbiderik; fedea, goiagerkundearen bidez, barrundatzen duen misterioa da giza izatearen oinarria eta indarra.

Fedea, izatezko zalantza ukatu ezik, garaitu egiten du kemenaren bidez. Hortara, Tillichen fede burutakizunak berezko ditu zalantza eta zihurtasuna (kemena).

\* \* \*

Gai hauk eta beste zenbait idoro ditzakegu Tillichen liburu hontan: batzuk ikutuak eta aipatuak bakarrik; beste batzuk landuagoak.

Geroztik landuaz joan da Tillich gai hauetako asko bere teologiazko idazlan ugarietan. Hauetako batzu aipa-

---

(40) Berdintsutzat daduzka Tillichek *erlijio-gisakoa* eta *erlijio deabruzkotua*. Erlijio deabruzkotuak bere erlijio sinboluak (dogmak, instituzioak eta) baldingabe eta erabateko bihurtzen ditu, aldaezinak balira bezala; erlijio gisakoak, berriz, gauza sekularrak eta kultur lanak absolutu bihurtzen ditu. Erlijio-gisakoen eta erlijio deabruzkoen, bien kontra saiatzeko da Tillich.

(41) Collins, Fontana Library, London (1962).

tuak ditugu gure oharretan. *Systematic Theology* da, ez-pairik gabe, bikainena eta funtsezkoena denetan: berrogei urte-edo erabili zituen Tillichek liburu hori burutzen.

Galde genezake zeintzu ote diren *Fedearen dinamika* honen gai berezienak edo berrienak. Nere aburuz, bi gai aipatuko nituzke: *fede mota ezberdinak*, batetik, eta *erlijio-gisakoak*, bestetik. Txit gaurkoak ditugu bi gai hauk, eta gaur-gaurko teologiaren zenbait aztergaiekin lotuak: sekulargintzaren eta fedearen harremanekin batez ere. Zabalak, eta une berean neurtua eta segurua, deritzagu Tillichen pentsakerari. Onartzen du Tillichek, onartu, bizitza sekular edo mundutar baten bidez fedea bizi daitekeela (horixe besterik ez da, izan ere, fede mota profetiko-moralezkoa); baina, bestalde, sekularismoaren arriskutatik geure buruak zaintzeko esaten digu: hau da, erlijio-gisakoen sekularismotik eta sasifedetik geure buruak zaintzeko.

Tillich protestante dela-ta – protestantetzat aitortzen du bere burua – norbaitek horrenganatzeko aurreritziarik eta bildurrik-edo balu, hona hemen Tillich eta teologia katolika bereziki hurbiltzen dituzten Tillichen teologiaren zenbait pondu: bere erlijio sinboluekiko burutakizuna eta sakramentuak fedearen berezko elementutzat hartzea; fede bizitzan elkarteari ematen dion garrantzia – harrigarria benetan pondu hau, fede protestantea bakoizkeriazkotzat eta norberekeriazkotzat dadukan zenbaitentzat; gogotan hartzekoa da, baita ere, Tillichek fede bizitzan maitasunari eta ekintzari ematen dien garrantzia: harrigarria hau ere, beharbada, protestanteen *fedearen bitarteko justifikatzea* delako erakaspena hestuegi ulertzen duenarentzat.

Tillichen teologiak kristau taldeen elkarrizketarako eta ekumenismora bideratzeko balio handia duela esan nahi du guzi horrek: hontan ere, bitarteko gizona dugu Tillich, hots, *mugarterako teologaria*.

Baina irakurleak berak somatu eta nabaituko du gu-  
zi hau Tillichen gogoetan murgiltzean. Horixe bait da,  
izan ere, itzulpen honen xedea: teologia protestantearen  
ataltxo bat besterik ezpada ere, zuzen-zuzenean ezagutze-  
ko aukera izan dezatela euskal irakurleek; eta aukera izan,  
bereziki, gure mendeko teologaririk nagusienetako bat zu-  
zen-zuzenean ezagutzeko: PAUL TILLICH.

*Koreako Seul-en, 1972ko ukazkena*

Joxe Anjel IBARBIA

## Sarrera gisa

Erljioaz mintza-  
tzen garenean, nahiz teologi mailan nahiz herri  
mailan, hitz nahasi eta adibiko ugari aurkitzen  
dugu; hala ere, nekez aurkituko dugu *fede* hitza  
baino nahasiagorik: hitz hau oker ulertzen de-  
lako, sortzen dira zenbait alferrikako eztabaida.  
Hitz honen bidez gizonaren burua konponduko  
bada, aurretik hitzaren beraren esanahia konpon-  
du beharko dugu: gizonaren osasunerako baino  
horren kaltetarako egokiagoa bait da gaur *fede*  
hitza. Izan ere, hitz honek gizonaren burua naha-



si eta bere izpirituzko bizitza okerbideratzen duelarik, batzutan axolagabekeriara edo eskeptizismora bultzatzen du gizona; bestetan, ordea, lehiakeriara edo fanatismora; batzutan bere adimenaren etsaitzat hartzen du gizonak fedea; bestetan, ordea, bihozkada eta liluramen hutsez fede hitzari menpekotzen zaio gizona; fedea dela-ta, inoiz benetazko erlijioari uko egiten dio gizonak, eta beste ordezeko-mordezkoren bati atxikitzen zaio. Zeharo baztertu beharko ote dugu, orduan, *fede* hitz hau?

Nahita ere ez dago baztertzerik: tradizio indartsua du bere alde. Eta bestalde, ez dadukagu oraindik fedearen esanahia emango digun beste hitzik. Oraingoz, beraz, hauxe dugu fede arazoaz jarduteko bide bakarra: hitzaren beraren mamia *argitu*, eta nahasten eta iluntzen duten eraskinetatik *garbitu* (eraskin hauetakoren batzuk mendeetan zehar fedea berekin badaramazki ere).

Idazle honek badu kezkarik fedea gizonaren barnean duen indar izkutuaz irakurlea konbenzituko ote duen ala ez; badu beste kezkarik ere: irakurlea segurtatuko ote du, gero, fedea ikutzen duen munduaren garrantzia mugagabeaz. Hala ere, idazle hau fedearen mamia *argitzeko* eta fedea bere eraskinetatik *garbitzeko* gauza izango delakoan dago: hauxe da, hain zuzen ere, idazlearen asmo nagusia.

## Fedea zer da

### Pentsabidea

#### 1. — FEDEA GIZONAREN AZKEN AXOLA

##### a) *Azken axola eta atariko axolak gizonaren bitzitan:*

— *Axola bakoitzak nagusi izan nahi du: azken axola...*

— *Beste axola guziak bere menpeko jarri.*

b) *Azken axolak hiru berezgarri ditu:*

- *Atxikimendu osoa eskatzen dio gizonari: eskaria...*
- *Bizitzaren betekuntza eskaintzen dio: agintzaria...*
- *Menpekotzen ez bazaio, amenazoa jartzen dio (gizonaren ondamendia): mehatxua edo zemaia.*

d) *Adibideak:*

- *Itun Zaharreko fedea: laberi buruz, bere eskari, mehatxu, agintzari eta guzi, azken axola baldingabeaz axolatuta egotea*
- *Mendebaleko garaitzapenaren, gizarte mailaren eta ekonomi indarraren axola: edozein azken axola fede modu bat da.*

**2. — FEDEA GIZONAREN BARNE BILKETA**a) *Fedea eta gizonaren nortasuna:*

- *Fedean nortasun osoak hartzen du esku*
- *Fedean nortasunaren elementu guziak bil-tzen dira*
- *Fedea nortasunaren muinean gertatzen da*
- *Fedeak gizonaren nortasuna gainditu egi-ten du.*

b) *Fedearen dinamika eta giza nortasunaren di-namika:*

- *Kontzientea eta inkontzientea: Kontzien-*

*tean gertatzen da fedea, inkontzienteko indarrak eskuperatuaz: Fedea eta askatasuna berdinak dira*

- *Nerau-Neraugaineko: Nerau-an gertatzen da fedea (Neraugainerakoari arau-printzipioak jartzen dizkio)*
- *Arrazoimena-extasia: arrazoimena nortasunaren bilgunea da; extasia norberegandik irtetzea. Fedea arrazoimenean gertatzen da, baina ez da arrazoimenaren emana; fedea extasia da, baina arrazoimena ukatu gabe*
- *Ezagumena eta nahimen-sentimena: fedea ez du ez ezagumenak, ez nahimenak ez sentimenak sortzen, baina hirutatik du fedeak.*

d) *Fedea eta psikologia:*

- *Fede-psikologia desiragarria da*
- *Edozein fede-psikologiaren oinarrian dago fedea bera.*

**3. — FEDEAREN SORBURUA**

- a) *Gizonak sinesten du: gizona gai da federik izateko, azken baldingabearen egarria duelako.*
- b) *Azken baldingabea sinesten da: Edozein gauza izan daiteke «azkentasunaren» ontzi. Jainkoa ere azkentasunaren ontzia da eta, beraz, fedegai.*
- d) *Fedean, azken axolan, sujetu-ojetu, norbait-*

-zerbait bikoitzaren bikoitzasuna gainditu egiten da:

- Azken baldingabeen biltzen dira fededuna eta fedegaia
- Sinesmena da sinesmenaren sorburua
- Sasifedean ez da gainditzen norbait-zerbait bikoitzasuna: horren fedea benetazko azken axolazkoa ez delako.

#### 4.— FEDEA ETA SAINDUAREN DINAMIKA

a) *Fedea eta saindua: edozein fedegai saindu bihurtzen da gizonarentzat.*

b) *Sainduaren konzeptua:*

- *Ez da gizabide aldetik ona dena*
- *Mundu hontako gauzetatik aparte dagoena da, erabat bestelakoa dena.*

d) *Sainduaren dinamika (eta fedearen dinamika):*

- *Gizona liluratu eta ikaratu (fedean: iritsi ezineko baldingabea eta gizon baldinpetuaren baldingabeaganako egarria)*
- *Saindu erabat bestelakoa gizonari gertuakoa gertatzen zaio*
- *Saindua on-gaizto bikoitzasunaren gainetik dago; baina bietatik du: kreatzaile eta hondatzaile gertatzen da gizonarentzat (azken axola benetazko fede eta sasifede gerta dakioken bezala). Bietatik behar du izan...*

## 5. — FEDEA ETA ZALANTZA

a) *Zalantza eta kemena:*

- *Fedea zihurra da azken baldingabeari atxikitzea den heinean*
- *Fedeak berezkoa du zalantza eta arriskua, fede horrek mami konkretua hartzen duenean: ez dadukagu zuzeneko zihurtasunik gure fedearen mami konkretuari buruz*
- *Fedearen zalantza onartzeko kemena behar da.*

b) *Zalantza motak:*

- *Zientzien zalantza: meto­duzkoa*
- *Giza joerazko zalantza: eskeptikoa*
- *Fede zalantza: esistentziala (edo bizi-zalantza).*

d) *Fede zalantza eta bizitza:*

- *Fedeak berezkoa duen zalantza hori ez da bizitzan beti horrela gertatzen*
- *Fededunaren bizitzan zalantza agertzeak ez du fedea ukatzen, fedea baieztzen baizik*
- *«Fedea galtzea» delakoa ez da fedea galtzea, hori finkatzea baizik.*

## 6. — FEDEA ETA FEDE ELKARTEA

a) *Fede formulak eta elkarteak:*

- *Herriak sarritan zalantzarik gabe onartu*

*beharrezko formula batzuekin berdindu izan du fedea; honela finkatzen da elkar-  
tea*

- *Fedeak beti hizkuntza bat behar du, eta, beraz, elkarte bat. Elkartean gertatzen da beti fedea, bere mamian*
- *Horregatik sortu dira Kredoak: fede formulak...*

b) *Fede elkarte eta herexea:*

- *Kredo horiek onartzera behartuta dago fededuna, sasifedean eror ez dadin*
- *Sasifedean erori dena da herexea*
- *Eliza eta Erresuma elkartuta daudenean, herexea gaizkile zibiltzat hartzen da*
- *Elkartasun horren kontra sortzen da liberalismoa: baina liberalismoak ere fede konkretu bat behar du.*

d) *Fede elkarte eta gizonaren autonomia:*

- *Herri agintariek fede elkarte guziak onartu behar dituzte, eta horien funtsezko berdinak hartu herriaren batasuna lortzeko*
- *Fede elkartearen kredoak ez dute fede zalantza eragotzi behar: fede dinamikoa fede geldia bihurtuko litzake bestela*
- *Fede elkartearen kredoak bere buruaren kritikabidea izan behar du*
- *Honela fedeak elkartearentzat ere arrisku bat izan behar du.*

## 1. — Fedea gizonaren azken axola

Azken axolaz axolatuta egotea da fedea: fedearen dinamika, beraz, gizonaren azken axolaren dinamika. Gizonari, bizidun guziei bezala, gauza asko axola zaio, batez ere, bere izatea baldinpetzen dion franko: zer-jana, zer-jantzia, eta abar. Baina gizonak, beste bizidunek ez dutena, badu izpirituzko axolarik ere: jakitea, estetika, gizarte bizitza, politika. Hauetan bada biziki axola zaionik ere, maiz ezin bizikiago, eta gai guzi



horiek bizitzazko axola direnez, bakoitzak du bere eskaria: hots azkena eta baldingabea izatea, gizabanakoaren edo gizartearen bizitzan. Azken eta baldingabe izate honek, berriz, atxikitasun osoa eskatzen dio axola hori onartzen duenari, eta ordainetan betekuntza osoa eskaintzen dio, beste eskari guziak hortara menperatzea edota honen izenean arbuiatzea eskatuko badio ere. Nazio batek bere bizitza eta hazipena azken axolatzat jartzen baldin baditu, beste axola guziak (ekonomia, osasuna nahiz bizitza, familia, estetika nahiz jakinduria, zuzenbidea nahiz gizatasuna), guziak hari opaldu behar. Gizonaren azken axola norbere bizitzako alde guzietan norbere eguneroko kezka txikietan ere bai zer esan duen jakiteko, ezagubide bikainak dira gure mendeko abertzalekeriak. *Jainko* bakar baten ingurura biltzen dira gauza guziak, hau da, *nazioaren* ingurura: deabruzko jainkotxo delabari bai, baina azken axolaren baldingabetasuna argi azaltzen duen jainko horren ingurura alegia (1).

---

(1) *Azken axola*: hitz hauen bidez Tillich-en *ultimate concern* itzultzen dugu. *Azken* itzak ez du hemen esan nahi *beste guzien ondoren* datorrena. *Azken* esaten dugun bezala *aurren* ere esan genezake. Izan ere, *ultimate concern* hitzek kezka, axola, artegatasun sakonena, barruekoena, hondokoa, absolutua, "gorena" esan nahi du. Tillichek berak ere izan du zalantzarik bere ideia hori adierazteko hitzak aukeratzean. Euskeraz ere ez da erraza izan hitz egokienak hautatzea: azkenik *azken axola* aukeratu dugu; baina horien argigarri bezala beste zenbait hitz erabiliaz; dena dela, *azken axola* hitzek nolabaiteko teknikatasuna hartzen dute, *ultimate concern* hitzek bezala. Bestalde horien esanahia argiago gertatzen da beste hauek kontrajarriaz: *atariko* edo *azaleko axolak*, Tillichen *preliminar concern* itzultzeko. *Atariko* eta

Baina sinestean, azken axolak gizonari jar-tzen dion eskari baldingabea ezezik, horrek agin-tzen dion funtsezko betekuntza osoa ere onartzen du gizonak. Agintzari honen mamiak ez daduka derrigorrez banandua edo zehatza izan beharrik. Zehaztugabeko sinboluz ere adieraz daiteke, edo ta hitzez-hitz har ezinezko sinbolu zehatzez. Esate baterako, norbait, norbere nazioaren alde hilda gero ere, nazio horren *handiangoan* partzuerizatea, edo *enda salbatzaile batek* mundua esku-ratzea eta... *handiangoa* hori eta *eskuratze* hori ez dira hitzez-hitz hartzeko sinboluak. Bi adibide hauetan *funtsezko batekuntza* absolutua agintzen da, eta eskari baldingabearen esanetara ez jarriz gero, batekuntzarik ezaren amenazoa dakar.

Adibide bat —eta ez adibidea bakarrik— Itun Zaharreko erlijioan agiri den fede tankeran dugu. Eskariz, mehatxuz eta agintzariz, azken axolaren eta minaren funtsezkotasuna eta nagusitasuna du horrek. Axola honen mamia ez da nazioa —jude-guen nazio zaletasunak batzutan axola hori be-reganatu nahi izan baldin badu ere—, eta bai zuzentasunaren Jaungoikoa. Gizon nahiz nazio gu-zientzat zuzentasunaren irudia agertzen duelako, Jaungoiko orokorra deitzen zaio, mundu osoaren Jaungoikoa. Bera da judegu jainkotiar guzientzat

---

*azaleko* hitzak ez dira, beraz, beretan bakarrik ikusi behar, horrela gutiespen kutsua bait dute; *azken* edo *barren* axolari kontrajarriaz baizik.

*Azken axola* ez da, Tillich berak nahi duenez, gizonaren *funtsezko axola* bakarrik eta bai funtsaren *giza axola* ere (Itzulpen-oharra).

azken axolagai eta horregatik bere izenean ematen da agindu bikain hau: *Zeure bihotz osoz, zeure arima osoz eta zeure ahalmen osoz maiteko duzu zure Jaungoiko Jauna* (Deut. 6:5). Hori xe adierazten du azken axolak eta hitz horietatik dator azken axola esaera bera ere. Hitz horietatik adierazten dute zalantzarik gabe fede jatorraren jatortasuna, hots, azken axolagaiari osorik atxikitzeke eskaria. Atxikimendu hori aletzen duten aginduz eta eskariz oparoa da Itun Zaharra, eta baita horiekin batera doazen agintzariz eta zemaiz ere. Hemen ere zehaztugabeko sinbolutan ematen dira agintzariak, hauek nazioaren eta norbanakoaren batekuntzara jo arren. Zemaia edo amenazoa, berriz, batekuntza horren ukatzean datza: nazioaren deuseztatzean eta norbanakoaren porrokatzean, alegia. Itun Zaharrekoentzat fedea zera da: Jaberri buruz, bere eskari, mehatxu, agintzari eta guzi, azken axola baldingabez axolatuta egotea.

Beste adibide bat —edo kontradibidea, baina hain adierazgarria hala ere— garaitzapenaz edo azken onaz eta gizarte mailaz eta ekonomi indarraz azken axola edo axola baldingabea izatea da. Hauxe da Mendebaleko kultur giroan —horren lehiati edo norgehiago-zalea den kultura hontan—, kristau askoren *Jainkoa*, eta azken axolagai orok egin behar duena egiten dio horrek ere: bere legeekiko menpetasun baldingabea *eskatu*, gizonak ordain bezala elkarrekiko harreman jatorrak; norbere burubidea eta norbere *eros* kreatzailea opa behar badizkio ere. Bere *amenazoa*, ordea, gizarteko eta ekonomiazko hon-

damena da, eta bere *agintzaria* —konkretatuga-bea hau ere, agintzari hauetariko guziak bezala— norbere batekuntza. Honelako fede moduek berez-ten dituzte gure garaiko literatur lan gehienak, erlijio kutsu handia ematen dielarik. *Point of No Return* bezalako nobeletan agiri dena ez da taxuketa okerrik, ez, fede okerbideraturik bai-zik. Beronen agintzaria betetzekoan, ustel ger-tatzen da.

Fedea, norbait azken axolaz axolatuta egotea da. Fedearen mamia, hortakoz, arras da fededu-narentzat garrantzizko; ez ordea, fedearen defini-zio formala ematean. Eta hauxe da fedearen dina-mika ulertzeko jarri behar dugun lehen urratsa.

## 2. — Fedea gizonaren barne bilketa

Azken axola denez, norbere osoaren osoarena da fedea. Norbere bizitzaren muinean gertatzen da eta honen elementu guziak barneratzen ditu. Giza gogoaren gogoaldirik bilduena eta erdi-koena da fedea. Ez da gizonaren *zati* bere-zi baten ekinaldia, ezta bere osoaren egin-kizun eta *arlo* berezi bat ere. Zati-arlo guziak biltzen dira sinestean. Fedea ez da, hala ere, za-ti-arloen kopurua. Bai horietako bakoitzaren eka-rria bai ekarri guzien kopurua, dena gainditzen du fedea. Beronek, ordea, gizonaren zati eta arlo guzietan behin eta betiko eragipena du.

Fedeak, norbere osoaren ekarria delarik, gi-

za bizitzaren dinamika bere dinamika du. Era askotan azaldu izan da dinamika hau, psikologia analitikoaren azkenaldiko joera berrietan batez ere. Joera hauetariko gehientsunen ezagugarria zera da: beren pentsakera kontraindar-, sokatira- eta agian eskatima-ideiak moldatzen dutela. Pentsamolde honek biziki dinamikazkoa bihurtzen du nortasun psikologia eta fedearetik ere teoria dinamikazkoa eskatzen, norbere egin-tza guzietan norberekoena bait da fedea. Psikologia analitikoan, azkenburuko polartea eta nagusiena inkontzientearen eta kontzientearen artekoa da. Norbere osoaren emana delarik fedea, ezin antzik eman ere, nortasunaren egiturako oharkabezkoak gogoan eduki gabe. Hortxe dau-de beti, eta hein handi batez berek erabakitzen dute fedearen mamiarena. Baina, bestalde, ohartuzkoa, kontzientea, da fedea, eta oharkabezkoak fedearen sortzean esku hartu ahal izateko, guziok gaintitzen dituen norbere barne muinean sartu behar. Holakorik gertatu ez, eta indar oharkabeek inolako bilgunerik gabe determinatzen badute gogaldia, ez de federik gertatzen, eta oldarrek betetzen dute horien tokia. Izan ere, askatasun gaia da fedea. Askatasuna, ordea, norbere bilgunean bildu ahal izatea besterik ez da. Fedea eta askatasuna aurka jartzen dituzten hainbeste eztabaida, fedea norbere askabidea, hots, bilgunea dela ikustean, konponduko lirake. Alde hontatik askatasuna eta fedea berdinak dira.

Fedea ulertzeko garrantzizkoa da, baita ere, Freud-ek eta bere jarraitzaileek *Nerau-Neraugai-*

*neko* deituriko polartea (*polaridad*) (2). *Neraugaineko* konzeptua erabat adibikoa da. Batetik, kultur bizitza osoaren oinarria da. Izan ere, hain eraginkor den *libidoa* lotu egiten du, horren eragipena neurripetuaz. Baina bestetik, gizonaren bizi indarrak soiltzen ditu, kulturaren hersturabide osoarekin gogait eraginaz, eta giza gogoan neurosialdi bat sortuaz.

Ikusgune hontatik, fedeaaren sinboluak *Neraugainekoaren* agerpidetzat hartzen dira, edo, zehazkiago, *aita* irudiaren agerpidetzat, honek maitzen bait du *Neraugainekoa*. *Neuragainekoa* ren teoria ezegoki honen jatorria Freud-en arau-printzipioen ukapen naturalistan datza. *Neraugainekoa* benetazko printzipioen gainean eraikitzen ez baldin bada, jauntxo zapaltzaile bilakatzten da. Benetazko fedea, ordea, bere agerpide bezala *aita* irudia erabiliaz ere, egiaren eta zuzenbideaaren printzipio bihurtzen du irudi hori, *aita* berberagandik ere zaindu behar den printzipio, alegia. Fede-kulturak finkatzeko, gauzen arau-printzipioei lotu behar zaie derrigorrez *Neraugainekoa*.

Galdera bat dakarkigu honek: nola dago fedea, norbere barne bilketa denez, gizonaren arrazoimen egiturari lotuta. Hizkuntza ulertzean, egia ezagutzeko eta ona betetzeko gizonak duen gaitasunean, bere edertasunarekiko eta zuzenbidea-

---

(2) Honela euskeratzen ditut Freud-en *Ich* eta *Uber-Ich*, ingelesez eta gaztelaniaz *Ego* eta *Super Ego*, frantsesez *Moi* eta *Sur-moi* itzuliak.

rekiko joeran agertzen da arrazoimena. Guzi honen egiten du gizona arrazoimendun, eta ez azterkatzeko, taxutzeko eta argudiatzeko gai izateak bakarrik. Baina arrazoimenak esanahi zabal hau izan arren, ez dago gizonaren benetazko gizatasuna eta giza gogoaren arrazoimenezkoa berdina direla esaterik. Gizona gai da arrazoimenaren alde nahiz aurka erabakirik hartzeko: arrazoimenaren gainetik zerbait kreetzeko edo arrazoimenaren azpitik zerbait hondatzeko eta xautzeko gai da gizona. Hau da gizonak norbere gain duen ahalmena, norberetik harremanen erdigunea: gizonaren alde guziak biltzen diren bilgunea, alegia. Fedea ez da giza arrazoimenaren eginkizunetako bat, inkontzientearen emana ez den bezalaxe. Fedeak, alderantziz, gizonaren arrazoimenezkoak nahiz arrazoimenaz kanpokoak gaintitzen ditu sinestean.

Norbere bilketa eta erdigunea izanez, *extatikoa* da fedea. Arrazoimenaz kanpoko inkontzientearen oldarrak nahiz arrazoimenezko kontzientearen egiturak gaintitu egiten ditu fedeak. Gaintitu bai, baina txautu ez. *Extatiko* izateak ez dio fedeari arrazoimenezkoa izaterik ukatzen, izate biak berdina ez izanik ere. Eta bestalde, arrazoimenaz kanpoko zirkinak barrutu egiten ditu fedeak, horiekin berdinu gabe noski. Fedearen extasian edo *ateratzean* egia- eta etika-balioari buruzko kezkarik dago; badago baita maitasun eta gorroto iraganik ere, burrukarik eta biradiskidetzerik, norbanakoaren eta gizataldearen eragipenik. *Extasiak norbereregandik at ego-tea* esan nahi du —norbera izateari utzi gabe

noski—; eta «atera» ere, norbere erdigunean bilduriko zera guziekin batera atera.

Oraindik bada beste polarte bat ere gizonaren bizitzan, fedea ulertzeko garrantzizkoa hain zuzen: hau da, ezagumenaren eta sentimen-nahimenen arteko sokatira. Geroago saiatuko naiz argitzen nola dagoen fedearen okerbideratze askoren sustraia, fedea bera gogo-arlo horietako baten edo bestearen alorretan sartzean eta mugatzean. Orain-oraingoz ahal denik argien eta garbien zera hau finkatu behar da: sinestean beti gertatzen dela jakite bat, ez buruazterketak bere aldetik ekarria bezala, fedearen onartze-atxikimendu osoarekin bat-batera baizik. Honek, era berean, fedea *sines-nahiak* bere aldetik emana delako ustea ere arbuiatu egiten du. Nahimenak azken axolagaia baieztatzen du noski, baina fedea ez du nahimenak sortzen. Fedezko extasian, nahimenaren onartze-atxikimenduak alde bat dira, bai; ez, ordea, extasiaren beraren sorburua. Eta hauxe berbera esan daiteke sentimenari buruz ere. Fedea ez da bihozkada bat, ez du holakorik esan nahi *extasia* hitzak. Fedean bada sentipenik, bai, gizonaren gogoaldi guzietan bezala. Baina sentimenak ez du federik sortzen. Fedeak jakitezko mamia du, eta nahimenaren nahia da fedea. Norbere alde guzien bilketa da fedea. Jakina, sinestean alde guziak bildu beharrak ez du ukatzen alde horietako batek edo bestek sinesmodu berezi batetan indar handiagoa izan dezakeenik. Horrelako aldeak sines-«modua» konkretatzen du, baina ez sinesmena bera ematen.



Honek dakarkigu fede psikologiari buruzko galderaren erantzuna ere. Gizonaren nortasun barrutian gertatzen den guzia izan daiteke psikologi gaia. Eta erlijio filosofiari nahiz apostolutzan ari denari oso axola zaio jakitea nola gertatzen den sinesmena psikologiazko bilakaera edo prozesu osoaren barnean. Baina fede-psikologi modu bidezko eta desiragarri honen aldean bada besterik ere, eta horrekin aurrez-aurre dagoena: hau da, fedea, fede ez den zerbaitetik eratortzen saiatzen dena, hots, bildurretik maizenik. Azterbide honen aurrezema zera da: bildurra edo fedea elkar lezakeen beste edozer, fedea bera baino jatorrizkoagoa eta funtsezkoagoa dela. Aurrezema hau ezin froga, ordea. Alderantziz, ondorio horietara daraman zientzi metoduan bertan ere, federik badela benetan froga daiteke, hori bai. Fedea beste ezeretik eratortzeko eginahalen aurretik fedea bera dago, eginahal hauek ere fedean bait dute beren oinarria.

### 3. — Fedearen sorburua

Orain arte sinesmena bera zer den eta norbere dinamikarekin zer harreman duen azaldu dugu. Norbere osoaren erdiguneko bilketa da, beraz, fedea: axolaldi baldingabea, mugagabea, azken axola da fedea. Beste galdera hau sortzen zaigu orduan: zein da axola oro-besarkatzaile eta oro-gainditzaille honen sorburua? *Axola* hitzak elkartasun batean lotzen ditu bi elkarkide: axolatuta dagoen *gizona* eta honen axolagaia edo hori axolatuta dadukana. Alde bioi buruz, gizo-

nari honen baitan eta honen munduaren ingurumarian begiratu behar diogu. Gizonak azkenaren minik izateak gizonaren beraren izakeraz zerbait agertzen digu, hau da, eguneroko esperentzia erlatibu eta igarokorren jarioa gainditzeko gauza dela gizona. Gizonaren nabaikuntzak edo esperentziak, sentipenak, gogoetak, guziak baldipetuak dira. Etorri eta joan ari dira; eta beren mamia ere axola mugatu eta baldinpetuarena dute, baldingabearen balio mailara jasotzen ez badira behintzat. Baina hortarako gizonak gai izan behar aurrez; mugagabea izan behar gizonak berak aurrez. Gai da, bai, gizona, bere muin-muineko bilketa pertsonalean, azkenaren (3), baldingabearen, erabatekoaren, mugagabearen esanahia ulertzeko. Gaitasun honek bakarrik ematen dio bidea federik *izateko*. Gizonaren izankizunak izatera jotzen duten indarrak dira. Gizona, mugagabearekiko honen arretak bultzatzen du sinestera: izan ere, mugagabeari dagokio gizona, honek mugagabea bere esku izan ezinik. Hona hemen, hitz soiletan, bizitzaren emanean edo jarioan hezurmamituta azaltzen den *bihotzaren egonezina*.

Axola baldingabea, hau da, fedea, baldingabearekiko axola da. Grina mugagabea, hau da, fedea, mugagabearekiko grina da. Edo gure lehen hitzak honera ekarriaz, azken axola, azken-

---

(3) Erderaz, *lo último, lo santo, lo profundo...* neutroan esan ohi da, errealidadea bere soiltasun osoan emateko. Euskeraz ez dugu horrelakoren premiarik, izenlagun hutsak horixe bera eman dezaigukelarik (Itzulpen-oharra).

tzat nabaritzen denari buruzko axola da. Honela, fedearen *norbait*-esanguratik edo esanahi sujetibutik —*norbere* barnebiltetatik, alegia— haren *zerbait*-esangura edo esanahi ojetibura itzuli gara —hau da—, sinestearen bidez esan nahi den *zer* hortara. Gure azterketaren une hontan, sinesmenean adierazten dena *Jaungoikoa* edo *jainkoaren bat* dela esateak ez luke ezertarako balioko. Maila hontan galdetzen duguna zera da: zertan datza Jainko ideiaren *jainkotasuna*? Baldingabetasun-azkentasunean datza, hona hemen erantzuna. *Tasun* horrek darama Jainkoaren jainkotasuna. Hau ikusiaz, ulertzekoa da zergatik, giza erlijioen historian zehar, ia *zeru-lurretako* gauza guziak azkentzat eta absolututzat hartu izan diren. Baina beste zera hau ere ulerterraza zaigu: hots, kritikazko printzipio bat jardunean ari zela eta ari dela gizonaren erlijio kontzientzian, hau da, benetan funtsezkoa den printzipio bat beste printzipio baten aurka: bere burua funtsezkotzat eman bai, baina izatez azaleko, igarokor eta mugatua denaren aurka, alegia.

*Azken axola* esaerak sinesmenaren *norbait*-aldea eta *zerbait*-aldea elkartzen ditu, bada: *Fides qua creditur*, edo *norbere* sinesbide den fedea, eta *fides quae creditur*, edo sinesten den fedea. *Norbere* barne bilteta, hau da, *azken axola*, adierazteko esaera klasikoa da aurrena. Bigarrena, berriz, bilteta horren helburua, hau da, *azkena bera* —jainko sinboluz emana, hain zuzen—, adierazteko esaera klasikoa da. Berezkuntza hau oso garrantzizkoa da, bai, baina ez funtsezkoa: izan ere, alde batak ez du bestea ga-

be izaterik. Ez dago federik, helburu-mamirik gabe. Zeredozer adierazten du beti sinesmenak. Eta ez dago fedearen *zer* hori edo helburu-mamia iristerik, sinesmenaren bidez ezik. Azken axolaz lotuta egon gabe, jainkotiar gaiez mintzatzetik ez du zentzurik. Izan ere, sinesmenean adierazten den helburu-mamira ez dago hurbiltzerik sinesmenaren bidez ezik.

Azken baldingabe, mugagabe, erabateko-eta hitzetan norbait-zerbait bitartea gainditu egiten da. Sinesmenaren beraren azkena eta sinestean ikutzen duen azkena berbera dira. Sinboluz adierazten dute guzi hori mistikoek, beren jainkoarekiko ezagutza eta Jainkoak berekiko duen ezagutza berbera direla esanaz; eta horixe adierazten du S. Paulok ere, zera esaten duenean: *Jainkoak bera ezagutzen duen bezalaxe ezagutuko duela berak Jainkoa* (Ikus I Kor. 13: 12). Jainkoa ezin daiteke *zerbait* izan, une berean *norbait* ez delarik. S. Paulok dioenez, (ikus Err. 8: 15), *ez dago otoitz emankorrik egiterik, Jainkoak berak, Izpiritu denez, gure barnean otoitzegiten ez baldin badu*. Esperentzia horixe bera da, hitz soilez azaldurik, azkenarekiko, bandingabearekiko esperentzian norbait-zerbait ohizko eskema izkutatzea. Sinesmenaren sorburua sinestean bertan dago, egon, norbait-zerbait eskema gaindituaz. Hortxe, dago, bai, norbait bezala eta zerbait bezala; eta biok gaindituaz dago gainera.

Fedearen izakera honek azkentasun egitazkoa eta aizuna edo gezurrezkoa berezteko beste

erizpide bat ere ematen digu. Mugagabetasunik izan ez, eta mugagabetasuna galdatzen duen zerbait mugatua —nazioa edo garaitzapena— ez da norbait-zerbait eskema gainditzeko gauza. Fededunak norbait bezala hartu arren, zerbait bezala jarraitzen du. Horri hurbiltzeko aski du horren ezagutza, eta eskuratu ere beste edozer bezala eskura dezake. Azken aizunaren barruti hesigabea azkentasun maila asko dago, hori bai. Nazioa, esaterako, azkentasun benetazkotik hurbilago dago garaitzapen-beharra baino. Nazioarekiko extasian, fedearen norbait-aldea inguratu eta irensteraino hel daiteke zerbait-aldea; baina aldiko baten ondoren, norbait-aldea gainera etortzen da berriz ere, erro-errotiko etsipenaren etsipenak jota, eta orduan nazioari eskeptizismoz eta taxukeriaz begiratzen diolarik, bere eskari bidezkoiei ere bidegabea egiten die. Aizunago izan sasifedea, zailago da norbait-zerbait tarteko leizea garaitzen. Hori bait da egiazko fedearen eta sasifedearen aldea. Egiazko fedeko azken axola egiazko azkenarekiko axola da; sasifedean, ordea, mundu barneko gauza mugatuak azken mailako bihurtzen dira. Sasifedeak dakarren ondorio ihesezina zera da: *bizi-etsipena*, gizonaren bizi-muineraino sartzetainokoa, alegia! Hona hemen sasifedearen dinamika: fedea da, eta fedea denez hain zuzen, gizonaren barne bilketa; bilgune hori, ordea, guti gora behera azalekoa da; beraz, horrelako sinesmenak gizonaren erdigunea galerazi eta norbere nortasuna zatikatzen eta desbateratzen du. Sasifedeak ere, extatikoa izanik, izkuta dezake aldi batez ondorio hori. Baina azkenik nabari izaten da, nabari.

#### 4. — Fedea eta sainduaren dinamika (4)

Fedearen barrutian sartzen dena biziaren saindutegian sartzen da. Federik non dagoen, han dago saindutasun kezkarik ere. Berriz ere, sasifedeari buruz esandakoaren aurka dagoela ematen du honek. Baina ez dago ez sasifedeari buruz guk geuk esandakoaren aurka. Herriak *saindu* hitza erabiltzeko moduaren aurka dago bakar-bakarrik. Gizona bere hondoa eta funtsean axolatzeko duen edozer, *saindu* bihurtzen da. Sainduarekiko kezka jainkozkoa norberegana izatearen kezka da, hau da, gure azken axolaren mamiaz kezkatzea. Itun Zaharrean handikiro agertzen da kezka eta artegatasun hau: Aitalehen eta Moiseren ikuskarietatik hasita, Profeta handien eta salmisten esperentzia ikaragarrietaraino. Agertu eta guzi, misteriopean geratzen da *saindu* hori, eta aurkitzen dutenei bi aldetara eragiten die, hau da, bereganatuaz eta atzeraraziaz era berean. Rudolf Otto-k, bere *The Idea of the Holy* liburu klasikoan, *lilura* eta *ikarabide* bezala adierazi ditu *sainduaren* bi joera horiek. (Otto-ren hitzetan: *mysterium fascinans et tremendum*). Erljio guzietan idoro daitezke bi tasunok, aurkitu ere gizonak beti eta beti bi era horietan aurkitzen bait ditu bere azken axolagaiak.

Argi zaigu zergatik dituen *sainduak* bi joera

---

(4) *Saindua, sainduaren*, eta abar ere *lo santo, de lo santo* eta abar esateko erabiltzen dira hemen (Itzultzailearen oharra).

horiek, sailduarekiko esperentziaren eta azken axolaren harremana ikusten badugu. Giza bihotza mugagabearen bila ari da, hontan bakarrik nahi bait du mugatuak bere atsedetik izan. Mugagabearen ikusten du bere betekuntza. Hona hemen zergatik duen erakarmen eta lilura extatiko hori azkentasunik eta funtsezkotasunik ageri duen edozerk. Bestalde, azkenak bere baldingabetasuna agertu bai, eta bere erakarmen lilurazkoa badu ere, une berean ikusten da nolako alde beteezina dagoen mugatuaren eta mugagabearen artean, eta, beraz, mugagabea lortzeko eginahal mugatu guzien ezina. Jainkozkoaren aurrean norbere burua suntsitzea bera da, gizonak sailduarekin duen harremanaren agerpide sakon bat. Sinemen jator orotan, azken min eta axola guzien barnean dago suntsitze esperentzia hori.

Saindutasun hitzari jatorrizko eta bidezko esanahi bakar hau eman behar zaio, ohi diren horren beste erabilera guzien orde. *Saindua* moralezko bikaintasunarekin berdindu izan dute, batez ere Protestante talde batzuek. Okerbideratze honen historiako zergatiek saindutasuna eta fede zer diren ikusteko beste bide berri bat ematen digute. Gauza eta giza esperentzia arruntetik aparte dagoen zera adierazi izan du sailduak jatorriz. Saindua munduko harreman mugatuetatik banatuta dago. Horregatik banatzen dituzte erlijio modu guziek zenbait leku eta egin-tza saildu, beste toki eta egin-tza guzietatik. Saindutegian sartzea saildua aurkitzea da. Berez mugaz harutz eta urrutiratuta dagoena hurbil eta bertako gertatzen da hemen, bere urrutitasuna

galdu gabe, hala ere. Hona hemen, zergatik deitu den saindua *guziz-bestelakoa*, hau da, gauza arruntan bilakaeraz bestaldekoa, edota —lehen esana aipatuaz— norbait-zerbait leizeak baldinpeturiko mundu hau ezbezalakoa, arras bestaldekoa. Mundu hau gainditzea: horra hor sainduaren misterioa eta iritsiezina. Ez dago baldingabearenganatzeko bide baldinpeturik; ezta mugagabearenganatzeko bide mugaturik ere.

Sainduaren misterioak bi aldetara darama gizonaren sainduarekiko esperentzia. Izan ere, bai kreaizaile bai hondatzaile izan daiteke (gogora berriz nazioarekiko sasifedearen lilura), eta baita honen ikarabidea eta suntsikortasuna ere izan daitezke bai hondatzaile bai kreaizaile (gogora Indiako pentsamoldearen Sivak edo Kalik duen joera bikoitza). Bikoiztasun hau —eta honen aztarnarik Itun Zaharrean ere idorotzen dugu oraindik— erlijio-kizunetan edo erlijio-kizun modukoetan nabari da: nahiz erlijio-erlijioak izan, nahiz erdi-erlijio oso bikoitzak izan (besteen edo norbere izpirituzko edo gorputzezko oparia-eta). Bikoiztasun hau jainkozko-deabruzkoa dei genezake: jainkozkoa sainduaren kreabideak sainduaren deuseztabidea garaitzean nabari da; deabruzkoa, *o r d e a*, sainduaren deuseztabideak sainduaren kreabidea garaitzean. Direnak direla —eta Itun Zaharreko erlijio profetikoan uler daiteke sakonkien— burruka bat irabazita dago: sainduaren kreabideak bere deuseztabidearen kontra, alegia. Eta garaipen hau hain osoa izan delarik, sainduaren konzeptua bera ere aldatu egin da. Hain zu-



zen ere, zuzenbide eta egia bilakatu da sailduta-suna. Kreatzaile da, eta ez hondatzaile. Benetaz-ko oparia legearen menpeko izatea da. Pentsa-bide honek berdintzen ditu azkenik saildutasu-na eta moralezko bikaintasuna. Baina hortaraz gero, *banatua, bestelakoa, lilurakorra eta ikara-garria, guziz bestelakoa* izatea galtzen du saildu-tasunak. Guzi hori gabe, ordea, hona hemen zer bilakatu den saildutasuna: moralbide aldetik ona eta logika aldetik egiazkoa dena, horixe da saildua. Jadanik bere jatorrizko esangura gal-du egin du. Bilakaera osoa laburtuaz: jatorriz on-gaiztoen hautabeharraren azpitik dago sail-dua: jainkozkoa eta deabruzkoa, bietakoa da; deabruzkoaren hautabidea baztertzean, saildu-aren beraren esanahia aldatzen da: arrazoimenez-ko bihurtzen da saildua, eta egiazkoaren eta ona-ren pareko; horregatik berriz ere bere esanahi jatorrizkoa idoro behar.

Sailduaren dinamika honek fedearen dinami-kari buruz esandakoa egiztatzen du. Egiazko eta sasifedea bereztuak ditugu. Saildua, deabruzkoa denez eta hondatzaile bere funtsean, sasifedea-ren mamia berbera da. Sasifedea fede da orain-dik ere. Saildua, deabruzkoa izanda, saildua da artean ere. Hona hementxe agirien erlijioaren bi-koiztasuna eta nabarmenen fedearen arriskua: sa-sifedea da fedearen arriskua, eta sailduaren bi-koiztasuna bere deabruzko ahal izatean datza. Gu-re azken minak edo hondoaren axolak geu honda gaitzake eta baita geu senda ere. Baina ezin gu az-ken axolarik gabe bizi sekula.

## 5. — Fedea eta zalantza

Orain berriro ere fedearen esangura, gizonaren norbere erdiguneko bilketa denez, alegia, zehazkiago eta sakonkiago emango dugu. Sinetsi, izaki mugatuak sinesten du, mugagabeak eratua duen eta mugagabearengana bihurtua den izaki mugatuak, alegia. Edozein egintza mugatuk dituen muga guziak ditu sinesmenak, eta hala ere, muga horien gainera mugagabeak hartzen du esku sinestean. Fedea zihurra da, sainduarekiko esperentzia den heinean. Baina fedea, mugatuak mugagabea bere baitan hartzea den heinean, ez du zihurtasunik.

Fedeko zihurtasunik eza kentzerik ez dago, onartu egin behar da. Eta dudazkotasun hori onartzeko fedea badu *kemena* deritzakegun zer-bait. Fedea bitatik du: zihurtasuna ematen duen berezko zihurpidea eta zihurtasun eza. Guzi hau onartzeari *kemena* deritza. Zihurtasun eza kenez erotean azaltzen du fedea agiriaren bere indarra eta dinamika.

Fede-kemenen harremana adieraztekoan, ohi den baino esangura zabalagoan hartu behar da *kemena* (5). Izan ere, *kemena*, fedearen osakia denez, norbere burua ausardiaz finkatzea eta baieztatzea da, ezereztatze indarrak eta guziagatik (power of non-being) —edozer mugaturen etor-

---

(5) Ik. Paul Tillich, *The Courage to Be*, Yale University Pres.

kia bait dira indar hauk—. Ausardiarik eta kemenik dagoenean hondamendirik ere izan daiteke. Eta sineste bakoitzean gerta daitekeena da gainera. Arriskatu beharra dago, arriskatu. Norbere nazioa azken axola nagusitzat hartzen duenak, kemena eta adorea behar ditu axola horri eusteko. Baldingabearen baldingabetasuna bakarrik du gizonak zihurra: grina mugagabearen grina mugagabea izatea bakarrik. Norbere zer-izanarekin datorkid gizonari hori. Norbere burua bezain bereko, zuzeneko eta zihurra du gizonak horixe. Nork bere burua gainditzean ere norbera izan ahal izatea da hori. Baina gure azken axolaren mamiari buruz, ordea, nahiz eta nazioa, garaitzapena, Jainkoa edo baita Idazteuneko Jainko izan mami hori, ez dago horrelako zihurtasunik izaterik: Fede-mami horietaz ez dugu ezagutza zuzenekorik. Norbere azken axolatzat hartzea arriskua da, eta, beraz, kemenaldi bat. Azken axolagaitzat hartutakoa atariko axolagai igarokor gertatuko ote den arriskua dago—nazioa, esaterako—. Azken axolagaian sinestea inork arriska dezakeen arriskurik galantena da benetan. Izan ere, hutsezkoa gertatzen bada, norbere bizitzaren bizigaia bera zeharo porrokatzen da; gizona, norbere egia eta zuzentasuna eta guzi, duin ez den zerbaiti menpekotzen zaio orduan. Norbere erdigunea galdu du orduan gizonak, berriz norbereganatzeko aukerarik gabe. Norbere nazioak bere sinesgarritasuna galtzean, jendeak izan ohi duen etsipen kontrajoerak argi eta garbi frogatzen du horren nazioarekiko axola sasifedea zela. Hein handi batetan, azken axolak ezinbeste-

koa du porrokatze hori, bere axolgaia benetan azkena eta absolutua ez den zerbait baldin badu. Hauxe da fedea beregain hartu behar duen arriskua; hauxe da izaki mugatu batek bere burua baieztatzean ezin arbuia dezakeen arriskua. Azken arriskua eta azken kemena da azken axola. Ez du ez arriskurik, eta ez du kemenik ere behar azkenaren funtsezkotasun soilari buruz. Baina arriskurik du, ordea, eta kemena eskatzen dio gizonari azken axolak bere mamia zehazten duenean. Eta fede orok du mamirik bere baitan, *Zerbait* edota *norbait* axola izaten bait zaio gizonari. Baina zeredozer hori eta neredonor hori baliteke inola ere azken axolagai ez izatea. Orduan fedea bere axolaren mamian hutsegiten du, axola baldingabearen baldingabetasun soilan bertan hutsegiten ez baldin badu ere. Jainko *bat* izkututzen da izkutatu; baina jainkotasuna geratzen da artean. Fedea arriskua, sinesen den jainko *hori* hustutzea eta urtutzea da. Eta aisa gerta daitekeena hauxe da: jainko *hori* hustu-urtutzean, fededuna etsipenak jotzea, azken axola-mami berriz bere burua betetzeko eta bere ardigunean eta barnebilgunean berrizteko gauza izan ezinik. Ez dago inolako sinesmenetik arrisku hau uxatzerik. Zertxo bati buruz bakarrik ez dugu arriskurik, eta bai zuzeneko zihurtasuna —eta hortantze datza, hain zuzen, gizonaren handia eta antsia—: hau da, mugatua izatearen eta mugagabea izangarriaren tartean egoitea.

Guzi hau fede-zalantzen harremanetan agertzen da zehazki. Zeredozer egia dela uste izate-

tzat hartzen bada fedea, orduan zalantzak eta fedeak ez dadukate bat etortzerik. Fedea azken axolak gizona arduratuta edukitzea bezala ulertzen bada, ordea, orduan zalantza fedearen osaki beharrezko bat da. Fede barneko arriskuaren ondorio bat besterik ez da hau.

Fede barneko zalantza izkutua ez da inolako gertaerei buruz edo inolako ondorioei buruz izan daitekeen zalantza. Ez da zientzi inbestigazioak bere odol eta arnas duen zalantza berbera. Teologari ortodoxoenak ere ez dizu ukatuko saio-ikerkunderen edota logikazko pentsabidearen alorretan metoduzko zalantzarik izateko eskubiderik. Zientzi ustari edo teoria bat zalantzapetik libre dagoela esango lukeen zientifikoak, bertan utziko lioke zientifiko izateari. Uste dezake, bai, teoria *hori* jardunbide guzietarako egokia dena. Bestela ez litzake teoriaren edo ustariaren teknikazko aplikapenik egiterik izanen. Eman genezake, bada, horrelako uste moduak ekintzarako aski den jardun-zihurtasunik baduela. Teoriaren atariko eta azala bakarrik ikutzen du honelako zalantza moduak, ez bere funtsa, hondoa eta barrrena.

Bada beste zalantza motarik ere; goiko zientziatzko zalantza hura metodu-zalantza dei genezakeelarik, beste hau, alderantziz, zalantza eskeptikoa dei genezake. Zalantza eskeptikoa gizonaren uste guziekiko joera da, zentzumenen esperentzietatik hasi eta erlijiozko kredoetaraino. Esakari bat ezik joera bat da hori batez ere. Izan ere, esakari balitz, bere kontra jarriko li-

tzake. Gizonak egia-rik ezagutzerik ez duela esatea ere, printzipio eskeptiko honek epaitu beharko luke eta baieztapen bezala ezinen luke iraun. Zalantza eskeptiko jatorrak ez du baieztapen itxurarik erabiltzen. Zihurtasun oro benetan ukatzeko *joera* da zalantza modu hori. Horregatik, logika bidez ezin bota. Ez bait du bere joera *esakari* (aserción) bihurtzen. Horrelako joerak etsipenera edo zinismora, hauetako batetara, edo aldizka bietara, bideratzen du gizona. Eta maiz, hautabehar hau eramanezina bilakatzeko bada, orobatera eta edozein axola ukatzera eta zapaltzera darama gizona. Bina gizonak ez daduka horrelako ihespidean luzarora irauterik, bere burua eta izana berez axola zaizkionez gero. Hona hemen zalantza eskeptikoaren dinamika. Gizona esnarazi eta askatu egiten du, bai, baina norbere barne bilketaren edapena eragotzi ere egin dezaioke. Nortasunak ez bait daduka izaterik ere, federik ezean. Eskeptikoaren egia-rikiko etsipenak zera agertzen du: egia dela artean haren grina mugagabea. Egia *honi* eta *hari* buruz zinikoak azaltzen duen nagusitasunak zera agertzen du: artean ere egia bera gogotan hartzen duela eta azken axola baten arazoaren zirikada nabaritzen duela. Eskeptikoa, benetan eskeptikoa den bitartean, ez da federik gabe bizi, fede horrek mami zehatzik ez izan arren.

Sinesmen orok barne-izkutuan duen zalantza ez da metoduzkoa, ezta eskeptikoa ere. Edozein arriskuk berekin duen zalantza da. Ez da zientifikoaren zalantza etengabea, ez da eskeptikoaren zalantza igarokorra ere, axolagai edo mami

zehatz batez hondotik axolatuta dagoenaren zalantza baizik. Bizi zalantza edo zalantza esistentziala dei genezake, zalantza metoduzkotik eta eskeptikotik bereziaz. Ez du zalantza honek galdezen esakari jakin bat zuzena ala okerra den. Ez du egia konkretu oro ezeztatzen, baina bizi-egia edo egia esistentzial ororen zihurtasun-ezaz konaturatuta dago. Aldi berean, fedeak bere barnean duen zalantza honek zihurtasun-eza onartu egingen du eta bereganatu ere bai, kemenaren kementez. Fedeak beregan du kemenena. Beregana dezake, beraz, fedearekiko zalantza ere. Ez dira, ez, berdinak fedea eta kemenena. Fedeak badu kemenaz gainera beste osakirik, eta kemenak ere bai fedea baieztatzeaz gainera beste eginkizunik. Hala ere, fedearen dinamikari dagokio kemenak arriskua onartzea.

Fede burutakizun bizi eta dinamiko honek ez dirudi, erlijio handi guzien agirietan —kristautasunean ere bai— aurkitzen ditugun lasaitasun eta konfiantza baikorrari lekurik uzten dienik. Baina ez gara orain hortaz ari. Fede burutakizun dinamiko hau fede konzeptua bera aztertzetik dator: bai bere norbait-aldea edo sujetibua bai bere zerbait-aldea edo ojetibua. Ez da ez inola ere beti hala gertatzen den giza gogoaren egoera azaltzea. Egitura aztertzea ez bait da gauzak nola dauden azaltzea. Bizitzaren barruti guzietan oker ulertze eta hutsegite ugari ekarri ohi du maila horien nahasketak. Hona hemen nahaste horren adibide ereduako edo tipiko bat, larriari buruz arrunki izan ohi diren solasaldietatik jasoak. Larria edo hestutasuna norbere mugatasunarekiko

kezka dela esatea gezurrezkotzat jo izan da batzutan, giza izpirituaren egoera normaletik begiratuta. Larria, baldintzape berezitan agertzen omen da; gizonaren mugatasunak, ordea, ez omen du beti eta derrigorrez larririk sortzen. Baldintzape mugatuetan agertzen da, noski, larria, esperentzia zorrotza izaki; baina bizitza mugatuaren *azpi-egitura* da, baldintzape berezitan, larriaren agertzeari bidea irekitzen dion baldintza orokorra. Zalantza, orobat, ez da sinesmenean etengabeki nabaritzekoa, ez; baina fedearen egitura barnean beti dago zalantzarik. Hauxe da fedearen eta zuzeneko nabaritasun edo ebidentziaren arteko aldea —zentzumenezkoa nahiz logikazkoa izan nabaritasun hori—. Ez dago federik, barnebarnean «-arren» atzizkirik kokatuta ez duenik (zihurra ez izan-*arren* eta), eta batera azken axolazko egoera kementsuki baieztatzen ez bada. Beretzko eta barneko zalantza hau, norbanakoaren eta gizartearen baldintzape berezitan irtetzen da gainera. Agertu den zalantza hau, berriz, ez litzake fedearen ukatzailetzat hartu behar, sinesmenean beti izan ohi den eta beti izanen den osakitzat baizik. Bizi zalantza eta fedea zera bat berberaren —hots, azken axolaren— bi indar-mutur dira.

Fede-zalantzen egitura hau miatzeak ikaragarriko garrantzia du gure eguneroko bizitzarako. Kristau asko, eta beste erlijio taldeetako erlijio-kide ere bai, *fedearen galtzea* delako horri buruz larritasunez eta antsiz betetzen dira eta etsipenak jota geratu. Benetazko zalantzak, ordea, fedea egiztatu egiten du; axolaren sakona, bere



baldingabetasuna, gogorarazten du benetazko zalantzak. Guzi hau oraingo eta geroko elizgizonei ere berdin dagokie: ez teologiaren tesiei buruz zientziatzko edo metoduazko zalantza nabaritzean bakarrik —hau derrigorrezkoa eta betikoa da, teologia betiko premia den bezalaxe—, baita beren elizaren mezuari buruz bizi-zalantza nabaritzean ere —Jesus Kristoa deritzakeen ala ez, esaterako—. Honako erizpide honen arabera epaitu behar lukete beren burua: hots, fedearen nahiz zalantzaren mamiari buruzko beren axola benetazkoa eta azken-funtsezkoa den ala ez.

## 6. — Fedea eta fede elkartea

Erliziozko kredoei begira fede-zalantzei buruz egin ditugun azkeneko ohar horiek hontara bideratzen gaituzte: Herriak fedeari buruz mintzatzaren den gehienetan, burutan nagusi dituen arazoetara, alegia. Esakera edo formulaziotan ikusi ohi du herriak fedea, edota legez finkaturiko dogmetan. Norbere sinesmentzat ezik, gizartearen finkabidetzat hartu ohi da fedea batez ere. Ezaguna da zerk ekarri duen historian zehar jorra hau. Fede berezi baten erakatsien formulazioak zirela-ta, buru askatasuna —bai kultura aldetik bai erlijio aldetik— ukatzen zen garaiak gogoan izaten dituzte ondorengo gizaldiek. Erlijioa azpiratu nahi izan zuten indarren kontra gizonen aska-min ezigaitzak eginiko bizi-ala-hilezko burrukak aztarna sakona utzi du horien inkontziente kolektibuan. Oraindik gure garai hon-taz ere berberau esan daiteke, Erdiaroan eta erli-

jio gudateen garaietan izaniko zapalketak aspaldiko kontuak badira ere. Horregatik, ez da alferrik zaintzen fedearen burutakizun dinamiko hau, beronek ere ortodoxi eta erlijio zapalkera bertitara bideratuko omen gaituelako salakuntzaren aurka, alegia. Zalantza fedearen barne-osakitzat hartuz gero, ez da, gizonaren kreabide askatasuna inola ere hestutzen. Baina fede konzeptu hau —galdetuko du batenbatek— ez ote, erlijio guzietan erabakile den *fede elkartearekin* uztarre-zina? Ez ote fede burutakizun dinamiko hau, ba-koizkeria protestantearen eta giza beregaintasun gizatiarraren agerpide? Fede elkarteak —elizak eta— onar ahal dezake, zalantza berez barneko izan eta zalantza hori bene-benetan hartu beharra bere agerpidetzat onartzen duen federik? Horrelako zalantzarik elkarbide soilek izan dezatela, bego; baina nondik nora utziko fede elkar-teak holakorik bere gidariei ere?

Maiz grinatsuegi jarri ohi diren galdera ho-rien erantzunek alderdi asko dute eta elkartuak eta baldinpetuak daude. Oraingoan, jakina izan bai, baina hala ere esanguratsu den zera hau esan beharra dago: alegia, gizonaren gogo bizitzako egintza oro bezala, sinestea ere hizkuntzari eta, beraz, elkarteari lotuta dagoela. Izan ere, izaki gogodunen elkartean bakarrik gertatzen da hizkuntza. Hizkuntzarik gabe ez dago sinesmenik, ezta erlijio esperentziarik ere! Hizkuntzari bera-ri buruz diogu guzi hori eta baita gizonaren go-go bizitzaren arlo bakoitzeko hizkera bereziari buruz ere. Erlijio hizkera, hots, sinboluzko eta mitu edo alegiazko hizkera, fededunen elkartean

sortzen da eta elkarte hontaz kanpo, ezin erabat uler. Elkarte barnean, ordea, zera egiten du erlijio hizkerak: sinesmenari sinesgai edo mami konkreturik izateko biderik ireki. Bere hizkera behar du fedea, norbere egintza orok behar duen bezalaxe; hizkerarik gabe itxu izanen litzake fedea, bere sinesgai edo sinesmamira ireki gabea; gizona ez litzake bere fedearen jakinean izango. Hona hemen zergatik duen horren esangura gailena fede elkarteak. Fede elkarteko elkarkide izanik bakarrik —baztertuta edo kanporatuta egonda ere— izan dezake fededunak bere azken axolarentzako mamerik edo axolagairik. Hizkuntza-elkartearen baitan bakar-bakarrik mami dezake gizonak bere fedea.

Baina berriro ere galdetuko du orduan batenbategi: fede elkarterik gabe federik ez baldin bada, ez ote du elkarteak bere fedearen sinesmamia kredozko esakera edo formula neurtutan jarri behar, eta elkarkide guziak formula horiek onartzera behartu? Honelaxe sortu dira, sortu ere, kredoa. Honegatixe finkatu dira dogma eta legeetan. Baina guzi honek ez du argitzen nondik nora izan duten mendez-mende horren indar izugarri hori elkarteko fedearen agerpideok, bai taldeengan bai norbanakoengan. Ez du argitzen, ezta ere, nolatan berotu diren buruak tamaina hortan, lehiakeriaren lehiakeriaz fedeko zalantzak eta okerrak garbitu beharrez: eta hori ez kanpotiko indarkeriaz bakarrik, batez ere hortarako gizonaren barnean diren mekanismoen bidez baizik. Izan ere, norbanakoan barnean bertan ezarrita daudelarik mekanismo horiek, oso

-oso eraginkor izaten ziren, kanpotik bultzatu gabe ere. Gertaera hauk ulertzeko zera gogorazazi behar da: alegia, fedea azken axolaren esperentzia denez, axola gaiari buruz norberari erdiguneko atxikimendu osoa eskatzen diola. Norbere funtsezko nortasuna eta izatasuna babespean daudela esan nahi du horrek. Sasiaxolak eta sasi Jainkotiar izateak norbere erdigunea honda dezake. Kristau Elizan-eta, mendeetako nekeen nekez, elkarteko fedearen sines-mamia sasifedetatik zaindu bada, eta horietatik zaintzeko formuletan jarri, ulerterraza da formula horietatik aldentzea kristauaren «arimarentzako» galbidetzat jo izatea. Deabruaren eskutartean eroridela pentsatu ohi da horrelako kristaua. Norbere deabruzko hondamendi hortatik ateratzeko eginahalak dira Elizak jarri dituen zigorrak. Zigorbide hauetan axolagaia —fedearen mamia, alegia— bene-benetan hartzen da. Bizi-ala-hilezko gaia bait da hori.

Baina finkaturiko kredoari nor-mepetzea ez da norbanakoarentzat bakarrik azken garrantzizkoa, absolutua eta erabakilea. Fede elkarteak berak ere norbanakoen eragipen okertzailetik zaindu beharra du. Elizak bere elkartetik kanpora botatzen ditu Elizaren oinarriak arbuiatu bide dituztenak. Hauxe da, izan ere, herexia ideiaaren esangura. Fede hauslea edo herexea ez da uste okerrak dituen (herexiak izan dezakeen alde bat besterik ez da hori, ez herexia bera); axola zuzen edo benetazkotik axola oker edo sasiaxolara itzuli dena da herexea. Beraz, bide beretik bultza dezake beste zenbait elkarkide ere, ku-

tsatu egin dezake, eta honela elkarteari azpiak jan.

Herritarren kidegoaren eta kultur zindotasunaren oinarritzat hartzen badute Eliza herri agintariak —eta haiek gabe ez daduka gizarteak bizitzetik—, orduan herexeari gaizkile zibila (*civil criminal*) bailitza erasotzen diote, eta erlijio-politiken barrutian batasuna zaindu nahian, jendea eskolatuz eta gainetik bortxatuz jokaten dute. Hala ere, asmo hori burutu orduko, berehala bizten eta indartzen da jendearen kontra-joera, bere izpirituzko beregaintasunak hortarata; eta garaipena lortuz gero, guzia astindu eta arbuiatu egiten du jendeak: ez kredo sistemari eusteko ezarri diren politikazko loturak bakarrik, baita kredo sistema bera ere, eta, gainera, maiz fedea bera ere bai. Ezin, ordea, fedea arbuiatu. Izan ere, beste azken axola baten indarrez bakarrik lor daiteke eta lortu izan da beti azken axola arbuiatzea. Elizaren eta bere kritikari liberalen arteko historiazko burruketan burrुकatu direnak bi fede izan dira: fedea fedearen aurka... Liberalen fedea ere agertu beharra du eta fededun guzientzako formulazio berdin batzuen premia, eta baita ere agintarismoaren erasoaldietatik zaindu beharra. Besterik oraindik: axola-mami konkretuak behar ditu liberalen azken axolak, edozein axolak bezala. Liberala ere, historiak egindako eta mugatutako instituzioen barnean bizi da. Berak ere hizkera berezia du eta sinbolu bereziak darabilzki. Ez da horren fedea askatasun soil eta astraktua baieztatzea; alderantziz egoera eta situazio konkretu eta oso batetan ko-

katu eta mamituriko askatasuna da berak sines-ten duena. Askatasuna dela-ta, honi sustrai konkretuak ebakitzen badizkio, hutsune bat sortzen du, indar antiliberalek aisa sartzeko moduzko hutsunea, alegia. Fede kreatzaileak bakarrik jasan dezake fede hondatzailearen eraso. Benetazko azken axolak bakarrik eman dezaioke aurpegia sasiaxolari.

Guzi honek beste galdera hau egitera garamazki: nondik nora izan daiteke ere izan fede elkarterik, gizonaren gogo bizitzako autonomia ezereztatzen ez duenik? Aurren erantzunak herri agintarien eta fede elkartearen harremanetan du bere oinarria. Jardunez edo egitez fede elkarte eta gizartea bat izanik ere, eta izatez gizataldearen bizitza elizaren izpirituzko muinak determinatzen badu ere, herri agintariak, agintari bezala, ez alderdi bateko ez besteko behar lukete bihur, eta fede modu berezkoak eta banatzaileak sortzea arriskatu beharko lukete. Gogo kidegoa indarrez lortzen saiatu, eta benetan beren asmoa burutzen badute, sinesmenari dagozkion arriskua eta kemena baztertu izango dituzte. Gizabi-dearen eredu derrigorrezko bihurtu izango dute fedea, eta funtsezkotasunik gabe utzi gainera, erlijio-kizunak azken axolaz beteko eta egingo badi-ra ere. Bakanka gertatzen da, ordea, horrelakorik gaurko egunez. Gizarte gehienetan fede elkarte ezberdinak dituzte herri agintariak beren eskutan; fede modu batera nahiz bestera gizartekide guziak bultzatzerik ez dute. Holakotan, talde ezberdin guzien funts berdinak (*common denominator*) eta guzien tradizio berdinak ematen dute

gizartearen izpirituzko mamia. Sekularragoa edo erlijiozkoagoa izango da funts berdin hori. Dena dela, fedearen ekarri bat da, eta bi aldetara agertzen da gizonaren jokaeran, hala Ipar Ameriketako Koztituzioan: izan ere, azken axolaren mugabetasuna du jokaera horrek batzutan, baina maizago oraindik atariko axola *gorenekoaren* baldipetasuna. Honegatixe ez lukete herri agintariek hain oinarrizko legearekiko zalantza agertzen eragotzi behar; joera honen lege ondorioak indartu, ordea, bai, indartu behar dituzte.

Darabilgun arazoa erabakitzeke bigarren urratsa fede-zalantzei dagokiena da: fede elkartearen beraren barruko fede-zalantzei dagokiena, alegia. Hona hemen galdera: azken axolako zera konkretuak agertzeko kredoan premia duen fede-elkartearekin uztar ahal daiteke fede bizi edo dinamikoa? Orainarteko azterpenak ematen diguten erantzuna hauxe da: ez dagoela erantzunik ematerik, Kredoak berez zalantza oro ukatu behar baldin badu. Kontzilio baten nahiz gotzain edo liburu baten esana *hutsezintzat* hartu, eta horien itzalpean jartzen direnen fedeak ez du zalantzarik edukitzerik. Burruka eta ezbairik izan beharko dute agian beren barnetan: horien esaneratu ala ez...; baina erabakia hartuz gero, ezin itzaldun horien hutsezinezko esanei buruz zalantzarik onartu. Geldia bilakatu da fede hau; sinesmenean baieztan den azkenari eta baldingabeari berari azezik, erlijio agintedunek formulaturiko hain zera konkretuei ere txintxo-txintxo eta bare-bare atxikitzea eta menpetzea da fede hori.

Honela, azaleko eta baldindua den zerbait — hau da, Idazteduneko fede mamiaren itzulpen eta adierazpen gizatiar eta gaurkotua— azken eta absolutu bihurtzen da eta zalantza arriskutik ateratzen. Protestantismoak irabazi zuen aurrenik honelako fede modu geldiaren sasikeriaren kontrako burruka, eta, ondoren, Protestantismoa bera ere geldia bilakatu zenean, Argiaroko iluminismoak. Fede dinamiko batetara jotzen zuen jatorriz burruka honek —agertu aski makal eta eskas agertu arren ere—, ez, ordea, fedea bera ukatzera, ezta kredo formulak ukatzera ere. Beraz, berriro ere galdera berbera datorkigu: nondik nora elkartu zalantza barne-osakitzat duen fedea, fede elkartearen kredoekin? Hauxe da erantzun bakarra: fede elkartearen azken axola agertzen duten kredoek ere behar dutela beren kritikabiderik beren barnean. Elkartearen fede agerpide guziei —nahiz liturgia, nahiz dotrina-erakatsiak, nahiz etika izan— nabari behar zaie ez direla giza axolaren baldingabea eta azkena bera. Horien eginkizuna, ordea, berorien handikaldean dagoen azkena agertaraztea da. Hona hemen nik *prinsipio protestantea* deitzen dudana: alegia, fede elkartearen agerpidetan kritikabiderik izatea, eta, beraz, sinestean zalantzabiderik izatea. Ez zalantza eta ez kritika ez dira beti gertatzen, baina biak gertagarri behar dute izan fedearen barrutian. Kristau ikusgunetik hau esango genuke: Eliza, bere erakatsi eta iztituzio eta aginpide eta guzi, epai profetikoaren pean dagoela, eta ez inola ere honen gainetik. Fede elkarte gurutzepean dagoela agertzen dute kritikabideek eta zalantzek, baldin gizonaren erlijio bizitzaren epai jainko-



tiartzat hartzen bada gurutzea, eta baita kris-  
tautasunaren epaitzat ere —honek gurutzea bere  
ikur izan arren—. Honela, bada, aurrenik norba-  
nakoaren zera bezala aztertu dugun fede dina-  
miko hori fede elkarteari egokitzen zaio orain.  
Fede elkartearen bizitza etengabeko arriskua da,  
hori bai, fedea bera arriskutzat hartzen bada be-  
hintzat. Baina hauxe da fede dinamikoaren haria  
eta hauxe printzipio protestantearen ondorioa.

## Zer ez da fedea

### Pentsabidea

#### 1. — FEDEAREN OKERBIDERATZEA ADIMENAREN ALDETIK

*Fedea oker ulertzen den guzietan, fede horren sorrera gizonaren atal eta arloetako batean (adimenean, nahimenean, sentimenean) jartzen delako da. Fedea, ordea, norbere osoarena da.*

- a) *Fedea ez da ebidentzi eskaseko ezagutza modu bat: hori ustea litzake...*

— *edo geuk zuzenean gauza bat ezagutu dugulako*

— *edo beste batek hala esan dīgulako.*

b) *Fedea ez da inorengan jartzen dugun konfiantza:*

— *Fedea Baldingabeari dagokio*

— *Konfiantza baldindua den batengan jartzen da: Bibliaren idazlea, Biblia bera.*

d) *Fedea eta ezagutzaren harremana:*

— *Ezagutza giza azterketa lana da; fedea, berriz, azken axolazkoa*

— *Giza ezagutzak gauzaren zihurtasun formala du, baina ez daduka gauzaren mami bera; fedearen zihurtasuna existentziala da: norbera izan-ez-izanaren zihurtasuna (arriskuzko zihurtasuna).*

## 2. — FEDEAREN OKERBIDERATZEA NAHIMENAREN ALDETIK

a) *Katolikoan okerbideratzea: Fedea sines-nahiak sendoturiko ebidentziarik gabeko ustea da:*

— *Sines-nahi hori grazia da*

— *Sines-gaiak Elizaren agintariek ematen dituzte, nahimenak onar ditzan.*

b) *Protestanteen okerbideratzea: Menpekotasuna («fede-menpekotasuna») da fedea:*

— *Azken axolaz kanpotik datorren agindu*

*bati menegitea esan nahi dezake: nahikerian erortzen da orduan*

— *Norbere azken axolari benetan atxikitzea esan nahi dezake: orduan fedea nahime-naren aurretikoa da.*

d) *Nahimenak ez daduka federik sortzerik (arra-zoimenak ez dadukan bezala).*

### 3. — FEDEAREN OKERBIDERATZEA SENTIMENAREN ALDETIK

a) *Fedea menpekotasun sentipena:*

— *Ez da bihozkada hutsa edo sentikeria (psikologia herrikoia)*

— *Baldingabeko menpekotasuna da (Schleir-macher)*

b) *Sentipenezko erlijioa eta zientziatzko kultura:*

— *Berezi nahi dituzte: erlijioa, batetik; kul-tura, bestetik*

— *Baina ez dago erabat berezterik eta ba-nantzerik: fedea gizon osoarena da, ez sentipen hutsa; kulturgintzaren funtsean ere federik agiri da.*

d) *Fedea badu sentipenezkorik; baina sentipe-nak ez daduka federik sortzerik.*

## 1. — Fedearen okerbideratzea adimenaren aldetik

Fedeari buruzko gure azalpen zuzeneko eta positibuak berez ukatzen ditu fedearen esanahia arrisku handiz okerbideratzen duten beste adierazkerak. Berezko ukapen izkutu hori ohartzeko ukapen agiri bihurtu behar da, ordea, herriaren buruak nahasteko izugarrizko indarra bait dute adierazkera oker horiek eta beroriek dira, hein

handi batetan, zientziaroa hasi zenetik, makina bat kristau erlijiotik besteratu dutena.

Ez da, hala ere, herria bakarrik fedearen esangura okerbideratzen duena. Herriaren ostean, filosofiazko eta teologiazko pentsakerak daude, hauek dira, landuago eta ederztatuago bai, baina fedearen esanahia nahasten dutenak.

Fedearen adierazkera oker guziak iturri batetara bil daitezke. Fedea, azken axolaz axolaturik ari izatea denez, norbere osoaren barnebiltzea da. Nortasuna osatzen dutenen arloetariko bat guziz nahiz zatizka fedearekin berdinduz gero, okertu egiten da fedearen esangura. Erabat okerrak ez dira, ez, adierazkera hauk, giza gogoaren arlo guziek hartzen dute sinestean eta. Baina duten egi atala ere okerraren osoan sartuta dago.

Fedearen adierazkera desegokietan erabiliena, fede hori ebidentzi eskaseko *ezagutza* bezala aitortzen duena da. Horrela, nolabaiteko egiantzeko zerbait egiatzat joko litzake, buruzko oinarri zindorik izan ez arren. Oso hartua dugu joera hau gure eguneroko bizitzan. Horrela ulertzen bada fedea, *usteaz* ari gara eta ez fedez. Uste izan, norberak jasoriko berriak zuzenak direla *uste* izaten da. Aspaldi gertaturikoak argitzeko gertakarien agiriak (*records*) baliagarriak direla *uste* izaten da. Uste izan, gertakari sail bat ulertzeko zientzi teoria bat egokia dela *uste* izaten da. Uste izan, urliak joera huraxe izanen duela, edota politika egoera haraxe edo honeraxe aldaketuko dela *uste* izaten da. Uste izate guzi haue-

tan, gertakariak egiantz izateko beste den ebidentzitasunean oinarritzen da gizonaren ustea. Beste batzutan, ordea, egiantz eskaseko zerbait uste izaten da, edota batere egiantz gabekoa, ezina ez izan arren. Teoriazko nahiz jardunezko uste guzi hauen iturria askotarikō xamarra da. Batzutan uste izaten dugu gauzak ondo ezagutzen ditugulako —oso-osorik ezagutu ez arren—; beste askotan baino askoagotan, berriz, esaten digunaren itzalagatik uste izaten dugu: esate baterako, beste uste izateko askitzat hartu duen ezagutza guk ere onartzen dugunean, geu ez baldin bagara ere gauza, ezagutza zuzenenkoa iristeko (aspaldiko gertakari guziei buruz, adibidez). Hona hemen beste elementu berri bat tartean, hau da, esakari bati itzala egiten dionarengan dugun konfiantza. Konfiantza hau ezik, ezingo genuke ezer uste izan, geure oharmen zuzenekoak jasorikoa ezpada. Honen ondorioa, berriz, zera izango litzake: gure mundu hau orain baino oso-osokaxkarragoa izanen litzakeela. Gu menperatu eta lotu gabe, geure jakite alorra edatzen diguten itzalpean jartzea bidezkoa da, beraz. Honelako konfiantza adierazteko *fede* hitza erabil bageneza, geure ezagutza gehienek beren oinarria fedean dutela esango genuke. Baina ez litzake egoki izango. Gizon itzaldunengan gure ustea jartzen dugu, bai, horien aburutan ere bai, ez, ordea, baldintzarik gabe; baina ez dugu horiengan sekula fedetik jartzen. Gizon itzaldunenganako konfiantza baino handiagoa da fedea, konfiantza fedearen osakia izanik ere. Garrantzizkoa da berezkuntza hau; izan ere, Idezteunaren idazleen lekukotasunaren fidagarritasuna azalduaz —lekuko direla

eta, hain zuzen— berorien sinesgarritasun baldingabea finkatzen saiatu bait da aspaldiko zenbait teologari. Kristauak jar dezake, bai, bere ustea Idazteunaren idazlariengan, ez baldintzarik gabe, ordea. Ez du horiengan federik. Ezta Idazteunean bertan ere ez luke federik izan behar. Izan ere, edozein itzaldun sagaratuenarekiko konfiantza baino handiagoa bait da fedea. Norbere osoaren osoaz norbere axolagaian partzuer izatea bait da fedea. Horregatik, *fede* hitza ez litzake ezagutza buruzkoarekin bat-batera erabili behar, nahiz eta ezagutza hori ebidentzia zuzenekoan, zientziaurretikoan edo zientziazkoan oinarrituta egon, nahiz eta norenbaten itzalari lotuta egon; zuzeneko nahiz zeharkako ebidentziari itsatsita eta lotuta bait daude itzaldun horiek ere.

Hitzak aztertzeak arazoaren muinera bertara bideratu gaitu. Ez du fedea mundu hontako zientziaurretiko eta zientziazko ezagutzari dagokiona baieztatzen edo ezeztatzen, nahiz eta guk geure oharmen zuzenekoaren bidez nahiz besteren oharmenaren bitartez gureganatu ezagutza hori. Gure munduaren ezagutza —eta gero bu-ruona, munduaren atal garenez —azterketa lana da, guk geurok egitekoa edo gure konfiantza dutenek. Ez da, beraz, fedeko gaia. Fedearen neurrialdeak edo dimentsioak ez dira jakintzarenak, historiarenak edo psikologiarenak. Alor hauetako egiantzeko hipotesiak onartzea ez da fedea, azaleko eta atariko ustea baizik: jakintsuen metoduz egizta beharrezkoa eta, ikerkunde berririk dela-ta, alda beharrezkoa. Fedearen eta ezagutzaren arteko eskatima gehienak fedea oker uler-



tzean dute beren sustraia: alegia, fedea ebidentzia eskasekoa izan bai, baina erlijio agintarien itzala duen ezagutza modu bezala ulertzean. Hala ere, ez da fedearen eta ezagutzaren nahasketa bakarrik, horien artean, historian zehar, izan diren eskatimen iturria; bada, baita ere, fede gaia dena —fedea azken axola denez noski—, delako zientzi metodo baten ostean gordeta egotea. Honelakorik gertatzen den guzietan, fedearen aurka jartzen da fedea, eta ez ezagutzaren aurka.

Fedearen eta ezagutzaren arteko alde, bakoitzak ematen duen zihurtasun tankeran ere agiri da. Ezagutza mota bi dira ebidentzia osotan oinarrituak eta zihurtasun osoa damatenak. Bata zentzuzko esperentziaren zuzeneko ebidentzia da. Margo berdea ikusten duenak, esaterako, margo berdea ikusten du, eta zihur da hortaz. Ezin izan zihur, ordea, berdea iruditzen zaion gauza hura benetan berdea denentz. Baliteke oker izatea. Baina berak berdea ikusten duela ezin zalantzatan jarri. Ebidentzia osozko beste ezagutza mota, logika- eta matematika-arauena da; aurrezemanak bait dira, ezberdinak eta maiz elkarren aurka-koak izanik ere horien formula moduak. Ezin liteke logikari buruz eztabaidatu, eztabaida bera ulergarri egiten duten barne-izkutuko arauak aurrezeman gabe. Erabateko zihurtasuna dugu, bai, hemen; baina gauzarik ez, zentzuzko esperentziarenean ez genuen bezalaxe. Hala ere, zihurtasun honek badu baliorik. Izan ere, ez dago egiarik zentzu esperentziak emaniko gairik edo mamirik gabe, eta logika- eta matematika-arauek emaniko egitura edo azalik gabe, arau hauek agertzen bait

dute diren guzien egitura. Ohartuz edo oharkabe, gauzen egitura ukatzea da bai teologiaren bai erlijio herrikoaren okerrik handiena. Honelako joera ez da fedearen agerpide, fede-usteen nahasmentuaren ezagupide baizik.

Gauzen ezagutzak ez du inoiz ere ebidentzia osozko zihurtasunik. Giza ezagutzaren aurrerabideak ez du mugarik; ez du amaierarik, *osoaren osoa* ezagutzean ezik. Honelako ezagutzak, ordea, mugagabeki gaintitzen du izpiritu mugatu oro eta bakar-bakarrik Jaungoikoari dagokio. Giza gogoak izan dezakeen ezagutza orok nolabaiteko egiantza besterik ez du. Jardunerako, bai, jardunerako benetan zihur izaterainoko zihurtasun mailarik izan dezakete izadiko legeen nahiz historiako gertakarien nahiz psikologiaren egituraren ezagutzak. Baina teoria aldetik erdi-osea gelditzen da beti ustearen zihurtasuna, eta txikiagotu ere edonoiz txikiago dezakete kritikak eta esperentzia berri batek. Ez da, ordea, honelakoa fedearen zihurtasuna; fedeak ez du itxurazko ebidentzia «formalik» ere. Izate zihurtasuna (*existential*) da fedearena, hau da, gizonaren osoa ikutzen du. Lehen esan dugun bezala, alde bi ditu: bata, ez da arriskua, norbere buruarekiko zihurtasuna baizik, hau da, zerbaitekin azken axolaz edo baldingabeki elkartuta dagoela norbera; bestea, berriz, arriskua da, eta zalantza-kemenak ditu bere barnean kokatuta; benetan azkena eta absolutua ez den eta azkentsat hartuz gero hondatzaile gerta daitekeen axolakizun bati atxikitzea eta itsastea da arrisku hori. Ez da hau narbaritasun edo ebidentzi handi-eskasaren teoriaz-

ko arazoa, ez; *izan-ez-izanaren* arazoa baizik. Ez da buru erabakiari dagokiona, beste barruti batetako da. Fedea ez da uste izatea, ezta egiantz eskaseko ezagutza ere. Horren zihurtasuna ez da buruko erabaki baten zihurtasunik gabeko zihurtasuna.

## 2. — Fedearen okerbideratzea nahimenaren aldetik

Bi aldetara bana daiteke okerbideratze modu hau: katolikoena batetik, protestanteena bestetik. Katolikoena atze handia du Eliza erromatarrean. Aquino-ko Tomasengandik hasten da: izan ere, fedearen ebidentziarik eza nahikundeak bete behar duela esaten zuen harek. Lehenik zera jartzen du Tomasek: ebidentzia mugatuzko ezagutza dela fedea, eta ebidentziaren urria nahimenaren bidez gainditzen dela. Ikusia dugu ez dioela fedearen ulerkera horrek fedearen esistentziasunari tokirik uzten. Fedearen adimen-aldetiko okerkuntzari eginiko kritikak, fedearen nahimen-aldetiko okerkuntza ere ikutzen du funtsean. Lehengo hura da bigarren honen oinarria. Hutsa izango litzake, izan ere, *sines-nahi* hori, teoriaz mamituriko sinesgairik ezean. Mamitu, ordea, adimenak mamitzen dio nahimenari honen sinesgaia. Adibidez, *arimaren hilezkortasuna* delakoari buruz zalantzetan dela batenbat, eman dezagun. Konturatuta dago erakatsi hau —gorputza hil ondoren arimak bizirik jarraitzen duela, alegia— ez dagoela egiztatzerik, ez ebidentziaren bidez ez inoren itzal eta fidagarritasun bidez. Ba-

daezpadako esakari teoriko bat da. Baina bada jendea esakari hori jaulkitzera bultzatzen duen eragilerik. Beraz,, bere *ustea* erakatsi hortan jarzea erabakitzen du, eta horrela honen ebidentziaren hutsunea betetzen. Uste hau *fede* deitzea oker dago, nahiz eta heriotza ondoren bizitzak jarraitzen duela uste izateko arrazoirik ugari izan. Katoliko erromatarren teologia klasikoaren ustez, *sines-nahia* ez da gizonaren lehiaren lehiak sortua; alderantziz Elizaren erakatsien egia onartu eragiten dienei Jainkoak ematen dien grazia da *sines-nahi* hori. Hala ere, ez dio *sineskizunak* berak adimenari *sinestarazten*, ez; nahimenak egiten du adimen hutsak ezin duena. Bat dator fedearen adierazkera hau Eliza erromatarraren agintarismoarekin. Izan ere, *sineskizunak* eman, Elizaren agintariak ematen dituzte, nahimenak eragin da, adimenak onar ditzan. Elizaren bitartez etorri eta nahimenari eragiten dion grazia ukatuz gero, —hala pragmatismoan— nahikeria edo boluntarismo bilakatzen da *sines-nahia*. Honela, nahikeriazko erabaki bihurtzen da *sines-nahia*; nolabaiteko arrazoibidez eutsi daitekeena, bai, baina beste zenbait aldetara berdin-berdin erabili zitezkeen arrazoi. Horrelako *ustea*, *sines-nahiaren* oinarri bezala, ez da inola ere fedea.

Protestanteen *sines-nahi* modua protestanteen beren erlijioa adierazteko tankerarekin lotuta dago. *Fede-menpekotasuna* eskatu ohi da, S. Pauloren hitzak hartuaz. Bi gauza ezberdin adieraz ditzake esaera horrek. Adieraz dezake azken axolak berez eskatzen duen atxikipena. Hori esan nahi baldin badu, hauxe bakarrik da esaten due-

na benetan: giza izpirituaren elementu guziek dutela esku azken axolazko esperentzian —eta egia da hori noski—. Edo bestela, sinesteko aginduari norbere burua menpetzea ere adieraz dezake *fede-menpekotasuna* esaerak, profetengan eta apostoluengan-eta gertatzen den bezala. Izatez, profeten hitza profetikotzat hartzen baldin bada —hau da, jainkozko bezala— mezua jainkozkoztat onartzea besterik ez du esan nahi fede-menpekotasunak. Baina *hitza* profetikoa denentz ezpairik bada, *fede-menpekotasuna* esaerak bere esangura galdu egiten du. Nahikeriazko bilakatzen da sines-nahia orduan. Gauzak leunkiago eta landuago azaldu nahi izanez gero, zera esango genuke: zerbaitek —Idazteuneko pasarteak eta— sarritan heldu egiten digula, heldu, benetazko azken axolaren agerpide bezala, baina ihesegin nahian, gu geu bildur izaten garela agerpide horiek geuron azken axolakizuntzat hartzeko. Holakotan, bidezkoa omen da nahimenari dei egitea, eta ez omen da nahikeriazko erabakirik eskatzea. Egia da; baina horrelako nahikundeak ez du federik sortzen —fedea, azken axola bezala—; bada orduko federik. Menpeko izateko eskabidea, norbera berez dena izateko eskabidea da, hau da, norbere azken axolari iheska ibili beharrean, norbere azken axolaren esanetara jartzea. Gauzak honela izanez gero, ez bestela, eska daiteke fede menpekotasunik; baina menpekotasunaren aurretikoa da orduan fedea eta ez menpekotasunak sortua. Ez dago federik sortuko duen sinesteko agindurik, ezta sines-nahirik ere.

Garrantzizkoa da guzi hau erlijio bidetan jendea hazteko, aholku ematean zuzenki jokatzeko eta fededunei hitzaldiak egiteko. Jendea bihotzean ikutu nahi duenak kontuz ibili behar luke fedea oker adierazten, hots, fedea gizonari jaritzen zaion eskabide bezala azalduaz, eta fede hori ukatzea gogo onik ez izatea bezala. Gizon mugatuak ez daduka axola mugagaberik *sortzerik*. Gure nahimen kili-kolo honek ez dezake sekula fedeari dagokion zihurtasunik eman. Norbere arrazoibideen eta inoren itzalaren bidez fedearen egia lortu ezinari buruz esan dugunaren pare-parekoa da hori. Arrazoibide eta itzaldun horiek, ordea, azkenik onenean nolabaiteko egiantzeko ezagutza besterik ezin eman dezakete. Nahiz uste izateko arrazoibideek nahiz sines-nahiak ez dadukate federik sortzerik.

### 3. — Fedearen okerbideratzea sentimenaren aldetik

Fedea, nahiz adimenaren, nahiz nahimenaren, nahiz bien arteko ekarria bezala ulertzeko eragozpenak, fedea sentimenaren ekarria bezala konprenitzera eragin dio zenbaiti. Erlijioak nahiz mundu sekularrak eutsi izan dio eta oraindik ere eusten dio eutsi nolabait irtenbide honi. Erlijioaren aldekoiei, babespe estalpetuago batetara atzeratzen zirela iruditzen zitzaien, fedeari buruz, adimenaren ekarria zela edo nahimenaren ekarria zela, izandako burruka galdu ondoren. Baldingabeko menpekotasun esperentzia edo sentipen bezala azaldu du erlijioa, teologia protestante be-

rri guziaren aita den Schleiermacher-ek. Hone-lako *sentipen* honek ez du gauza berbera adierazten erlijio barrutian eta herriaren psikologian, jakina. Ez da lurrintsua eta aldakorra sentipen hori; alderantziz mami zehatza du: hots, *baldin-gabeko menpekotasuna*. Badute, bai, hitz hauek guk azken axola deitu dugunarekin zerikusirik. Hala ere, fedea norbere bihozkada hutstzat, eza-gutza-mamirik gabekotzat eta menegiteko eska-bidetzat jotzera bultzatu du jende ugari, *senti-pen* hitz horrek.

Onik onenean onartu zuten fedearen adieraz-kerak hori zientzilariek eta etikazaleek, zientzi iker-kundean eta teknika erakuntzan erlijioa nahas-tea eragozteko biderik onena horixe iruditu bait zitzaien. Sentipen hutsa baldin bada erlijioa, ez du kalterik. Erlijioaren eta kulturaren aspaldiko istiluarenak egin du. Kulturak bere bidetik ja-rraituko du orduan, zientziak gidatzen duela; er-lijioa, ordea, norberak bakarrik eta bakarka be-tetzeko zeregina eta sentipen bizitzaren ispilu hu-tsa izanen da. Ezin egiarik eska erlijioarentzat. Ez du zientziarekin, historiarekin, psikologiare-kin, politikarekin lehiaka ibiltzerik. Erlijioak, ba-da, norbere sentipen babespe txokoan sarturik, arrisku guzia galdu du orduan gizonaren kultur-gintzari dagokionez.

Ez erlijioak eta ez kulturak, ez batuk eta ez besteak, ez lukete horren ongi neurturiko bake itun hori gordeko. Fedeak, azken axolaz axolatu-ta egotea denez, gizonaren osoa eskatzen du, eta ezin daiteke norbere sentipen hutsen norbere-

tasunean hertsu. Egia eskatzen du axolarentzako, eta axola honi itsastea. Ez du sentipen hutsen *bazterrean* egon-beharra onartzen. Gizonaren osoari heltzen baldin badio azken axolak, bere arlo eta alde guzietan heltzen die. Eskari hau ukatzen bazaio erlijioari, erlijioa bera ukatzen da. Baina ez zen erlijioa bakarrik fedea sentipen barrutian hesitzea onar ze zezakeena. Ez zuten holakorik onartzen ezta erlijioa sentipenen txokoan baztertu beharrean zebiltzenek ere. Argi agertzen zuten zientzilariek, artistek, moralistek-eta beroriek ere azken axolaz axolatuta daudela. Erlijioa erro-errotatik ukatu nahi zutenen haien kreakizun horietantxe ere nabari agertzen zen. Filosofi-, zientzi-, eta etika-sistema gehien azterketa zorrotz batek argitzen du, bai, zenbaterainoko azken axolarik daramaten beren baitan, erlijio omen den horren aurkako burrukaren gidari baidira ere.

Fedea sentipenaren aldetik mugatu edo definitzearen eskasa azaltzen du guzi horrek. Fedeak, norbere osoaren sinestea denez, bihotzezkoak eta sentipenezkoak oso sendoak ditu bai. Beti agertzen du sentipenak edo bihozkadak norbere osoaren osoa bizitzaren edo izpirituaren egintzetan. Baina sentipenak ez du federik sortzen. Fedea bere norakoan xedatuta dago eta konkretua da bere mamian. Horregatik eskatzen ditu egia eta atxikimendua. Mugagabearuntz noratua dago, eta agertu, konkretuan agertzen da, atxikipen hura eskatu eta bidezko egiten duen zera konkretu batetan.



## Fedearen sinboluak

### Pentsabidea

#### 1. — SINBOLUAREN ESANAHIA

*Sinboluz agertzen da gizonaren azken axola.*

- a) *Sinbolua eta ikurra edo zinua ez dira berdinak.*
- b) *Sinboluaren sei elementu:*

— *Bere esanahi zuzenekoaz harutzagoko zer-*

*bait adierazten du (hontan ikurrarekin berdina da)*

- *Adierazlea (sinbolua) bere adierazkizunarekin elkartuta dago (adierazlea eta adierazkizuna erdikide dira); ikurra ez...*
- *Izakien zenbait barrunbe izkutu argitzen digu*
- *Geure izpiritua irekitzen digu, izakien barrunbe horiek ulertzeko*
- *Inkontzientean sortzen eta mamitzen da sinbolua*
- *Sortu, hazi eta hil egiten da sinbolua, bizidun bat bezala.*

## 2. — ERLIJO SINBOLUAK

### a) *Zergatik da sinboluzkoa fedearen hizkera?*

- *Edozein azken exolagai jainkozko, sagartu eta mugagabe bihurtzen da*
- *Gizonaren hitz mugatuak ez daduka mugagabea edo azkena azaltzerik*
- *Horregatik edozein federen hizkera bakarra sinboluzkoa da.*

### b) *Zeintzuk dira erlijio sinboluak?*

- *Jainkoa da azken axolaren sinbolurik nagusia eta funtsezkoena:*

+ *Jainkoa ukatzea gizonaren azken axola ukatzea da*

+ *bi alde ditu Jainko konzeptuak: azken*

*izatea eta azkenaren sinbolu konkretua izatea*

+ *azkena bera denez Jainkoa, ez du zentzurik Jainkorik ba ahal denik galdetzeak*

+ *sinbolu konkretua denez Jainkoa, Jainkoaren azkentasuna azaltzeko ego-  
kia den ala ez galdetu behar da.*

— *Jainkoari egokitzen (atribuir) dizkiogun gaitasunak (atributuak)*

— *Jainkozkoa azaltzen dizkiguten beste mila izaki (sakramentu...).*

### 3. — SINBOLUAK ETA MITUAK

#### a) *Zer da mitua:*

— *Jainkoen kondairak*

— *Kondaira horietan mamituriko sinbolu sorta*

— *Edozein fedetan dago miturik eta mituzkorik.*

#### b) *Mituaren kontra: Jainkozkoari giza esperentzia egokitu eta noiz-nonbaiten jartzen duelako:*

— *Mituzko politeismoaren kontra: mituak jainkozkoa zenbait iruditan banatzen du*

— *Monoteismoko mituzkoaren kontra: Desmitugintza: Bi era:*

+ *mitu guziak baztertu eta arbuia*

+ *mitua onartu, mituzkotzat hartuaz.*

d) *Mituaren alde: Bi mota:*

- Berezkoa (*gizon primitibuarena*): *irudi-menezkoa eta zientziatzkoa berezten ez dakiena*
- Kontrajoerakoa: *berezkuntza hori egiten da, mitua problema da; baina mituari lotzen zaio, desmitugintzaren bildur delako.*

e) *Mitu sailak:*

- *Izadikoak*
- *Historiazkoak.*

## 1. — Sinboluaren esanahia

Sinbolu bidez agertu behar da gizonaren azken mina eta axola; sinboluzko hizkera bakarrik da azken hori agertzeko gai, izan ere eta. Alde askotatik azaldu beharra du esan dugun horrek. Gaurko filosofiak sinboluaren esangura eta egin-kizuna ikusgune askotatik aztertu izanagatik, *sinbolu* hitza erabili nahi duen idazle oro sinbolua bera nola ulertzen duen azaldu beharrean gertatzen da.

Sinboluak eta ikurrak biek dute berezgarri berdin bat: hau da, beroiez handikaldeko zerbait gogorarazten digutela beti. Kotxeak tarteka geratu egin behar dutela gogorarazten digute kaleko semaforu gorriek. Argi gorriak eta kotxeen geratu beharrak ez dute berez harremanik, baina itun moduko batez daude elkarlotuta biak, itunak berak irauten duen arteraino. Berbera esan daiteke bai hizki, bai zenbaki eta aldez baita hitzei buruz ere. Guzi hauek ere beroiez handikaldeko doinu eta esangurak gogorarazten dizkigute. Nazio barneko edo nazioarteko itunek ematen diete guzi horiei eginkizun berezi hori, matematikazko ikurrei bezalaxe. Sinbolu izena ematen zaie batzutan ikur horiei; zoritxarrez, ordea, horrela ikurrak eta sinboluak bereztea zailago bihurtzen bait da. Erabakitzailea eta akabaila hauxe da: Ikurrek ez dutela beroiek gogorarazten dutenaren zerean partzuergorik; sinboluak, berriz, bai. Horregatik ikurrak aldatu ere alda daitezke, egokierak edo itunak hartaraturik; sinboluak, ordea, ez.

Sinboluaren bigarren berezgarria garamazki, bada, horrek: hots, gogorarazten digunaren beraren zerean partzuergorik duela sinboluak; ikurrinak, esaterako, nazioaren irudiarenak egiten dituzenez, berea ere badu horren indarra eta duintasuna. Beraz, ezin daiteke alda, ezpada berak sinboluz ematen duen nazioaren izana, historiazko hondamendiren bat dela bide, aldatu artean. Ikurrinari erasotzea ere ikurrin hori bere ezaggarri duen giza-taldearen ohoreari erasotzea ba-

litz bezala hartzen da. Horrelako eraso biraoztat hartu ohi da.

Sinboluaren hirugarren berezgarria hauxe da: osterantzean guretzat izkaturik dauden izan-mailak irekitzen dizkigula. Arteder guziek sinboluak sortzen dituzte, bestela inola ere iritsi ezinezko izan-mailak azaltzeko. Margokiak eta poesiak izakien zenbait atal agertzen digute, zientzia bidez iritsi ezinezkoak, alegia. Artederrezko obra krea-tzaile batetan, hori ezik guretzat hertsirik dagoen neurrialde edo dimentsio batetan aurkitzen ditugu izakiak.

Sinboluaren laugarren berezgarriak, berriz, orterantzean iritsi ezinezko jarraituko luketen izakien neurrialde eta atalak ireki ezezik, neurrialde eta atal horiei dagozkien geure arimaren *neurrialde* eta *atalak* ere irekitzen dizkigu. Antzerki bikain batek giza bizitzaren ikuspegi berririk eman ezezik, geuron barrunbe izkutuak ere ireki egiten dizkigu. Honela, antzerkiak izakietan agertzen diguna gureganatzeko gai gara. Badugu neurrialderik gure barnean, sinbolu bidez ezpada —musikako doinu eta ritmuaren bidez, esaterako— oharmenera ekar ez dezakegunik.

Sinboluak ezin daitezke gurata sor: hona hemen sinboluaren bosgarren berezgarria. Norbanakoaren edo giza multzoaren inkontzientetik sortzen da, eta gure oharkabeguneak onartu ezik, ezin lanik egin sinboluak. Bereziki, gizartezko eginkizuna duten sinboluak —hala politikazko

eta erlijiozkoak—, sinboluak azaltzen diren gizar-tearen baitan —hau da, inkontziente kolektibuan— sortzen dira edo onartzen behintzat.

Sinboluaren seigarren eta azken berezgarria sinboluak asmatu ezin izatearen ondorioa da. Bizidunak bezala, hazi eta hil egiten dira sinboluak. Beren sasoa heldu zaienean hazi egiten dira, eta sasioa aldatzean, hil. *Errege* sinbolua historiaren garai berezi batetan hazi zen; eta gure garai hontan hil egin da ia munduko alderdi guzietan. Sinboluak ez dira hazten, jendea beroien irrikan dagoelako, ez; ezta hil ere, ez dira hiltzen zientziaren edo jardunaren aldetiko kritikagatik. Jatorriz agertu zireneko giza taldeagandik orain iadanik erantzunik jasotzen ez dutelako hiltzen dira sinboluak.

Horra hor edozein sinboluren berezgarririk nagusienak. Gizonaren kultur kreabidearen zenbait alorretan sortu ohi dira sinbolu jatorrak. Politikaren eta artederraren alorrak aipatuak ditugu dagoeneko. Historia ere erantsi genezaieke eta, batez ere, erlijioa; honen sinboluek izanen dute, hain zuzen, gure arreta berezia.

## 2. — Erlijio sinboluak

Sinboluen esangura orokorki aztertu badugu, gizonaren azken axola, esan bezala, sinboluz agertu behar delako izan da! Galde dezake orduan batenbatek: Zergatik ezin, bada, zuzenean eta bere taxutan agertu? Dirua, garaitzapena nahiz na-



zioa azken axolakizun baldin badu batenbatek, ez ahal daiteke zinboluzko hizkeran ezik, zuzen-zuzenean esan? Azken axolaren mamiari *Jainkoa* deritzanean bakarrik ez ote gara ari sinboluen alorretan? Hona hemen erantzuna: mugagabeko axolagai den edozer bihurtzen dela jainko. Norbaiten azken axolagaia nazioa bada, izen sagartu bilkatzen da nazio horren izena, eta zenbait tasun jainkozko jasotzen ditu orduan nazioak, bere izana eta jardupidea oso baina oso gainezkutzen duten tasunak, alegia. Benetazko azken eta baldigabearenak egiten ditu orduan nazioak, eta azken eta absolutu hori sinboluz eman egiten du, eman, sasibidez izanik ere. Garaitzapena azken axolatzat hartzea ez da norbere ahalmenak burutu nahia; hau berezkoa du gizonak; alderantziz, gizartean norbere indarrari eta nagusigoari eustearren, bizitzako beste balio guziak zapaltzeko prest izatea da. Garaitzapenik izanen ez ote dugun bildurra eta larria, Jainkoak kondentatuko ote gaituen bildurraren eta larriaren *sasi-era* bat besterik ez da. Garaitzapena edo azken ona grazia da, beraz; eta garaitzapenik ez lortzea, ordea, azken epai erabatekoa. Horrela, azken axolaren sasisinbolu bihurtzen dira gauza arruntak izendatzeko darabilzkgun burutakizunok.

Zergatik bihurtzen diren burutakizun horiek zinbolu? Azkenaren azkentasun edo baldingabetasunean eta fedearen izakeran dago erantzuna. Mugarik gabe gaituzten du benetan azkena eta absolutua denak mugatuen barrutia. Horregatik mugatua den ezerk ez dezake zuzenean eta bere

taxutan azken mugagabea ager. Erlijioaz ari garella, Jainkoak gaintitu egiten du bere izena berbera. Hona hemen zergatik izan daitekeen horren erraz gehiegikeria bat eta birao bat Jainkoaren izena erabiltzea. Barne-funtsetik axolatu gaduzkarnari buruz —Jainkoa deitu ala ez— esaten dugun edozerk sinboluzko adiera du. Edozer horrek esandakoaz harutzagoko zerbait adierazten du, adierazten duen zerbait hortan erdikide delarik une berean. Fedeak ez daduka egoki agertzeko beste biderik. Sinbolu mintzaira da fedearen mintzaira. Ezin genezake holakorik esan, guk ezezkotzat jo duguna balitz fedea. Baina azken axolaz axolatuta egotea bezala ulertuz gero fedea, ez du sinbolua beste hizkerarik. Hau esatean, beti honako galdera honen zain nago: Baina sinbolua bakarrik? Holakorik galdetzen duenak ikurraren eta sinboluen arteko aldea ez duela ulertu agiri du, eta ezta sinboluzko hizkeraren indarra ere: bikaintasunez eta indarrez ez-sinboluzko beste edozein hizkeraren gaintetik dagoen mintzaira hori, alegia. Ez litzake, bada, esan behar inoiz: *sinbolua besterik ez da*; bai, ordea: *sinbolua haina da*. Guzi hau gogoan dugularik, azal genitzake orain fedearen sinbolu mota ezberdinak.

Gure azken axolaren sinbolurik hondokoena eta funtsekoena *Jainkoa* da. Sinestean beti dago hortxe, baita Jainkoaren ukapena bere baitan baldin badarama ere sinesmenak. Azkenaren minik dagoenean, Jainkoaren izenean bakarrik uka daiteke Jainkoa. Jainko batek uka dezake beste jainkoa, bai. Azken axolak, ordea, ezin dezake bere azkentasuna uka. Beraz, *Jainko* hitzak dioena bai-

eztutzen du azken axolak. Jainkoa ukatzeak edo ateismoak, hortakoz, azken axola oro baztertu nahia ez besterik adieraz dezake —norbere izatearen esanahiari buruz axolarik gabe bizi nahi izatea—. Azken galderari edo arazoari buruzko axolagabekeria da asma daitekeen ateismo tankera bakarra. Gertagarri den ala ez oringoz erabaki gabe geratu behar duen hauzia da. Dena dela, Jainkoa azken axolagai dela ukatzen duenak, Jainkoa baieztatzen ari da, bere axola hortan azken mina baieztatzen du eta. Gu barren-barrendik axolatuta gaduzkana adierazteko oinarrizko sinbolua dugu Jainkoa. Berriz esanaz, oso oker egongo litzake zera hau galdetuko lukeena: Jainkoa ez ahal da, orduan, sinbolu besterik? Izan ere, hurrengo galdera beste honek izan beharko du: zertarako da sinbolu Jainkoa? Eta hauxe izango litzake erantzuna: Jainkoarentzat! Jainkoa Jainkoarentzat da sinbolu. *Jainko* konzeptuan bi alde berezi behar ditugula esan nahi du horrek: azken izatea, bategatik —zuzeneko esperentziaren gaia eta ez-sinboluzkoa berez, alegia—, eta *banandua eta konkretua* izatea, bestetik —gure esperentzia arruntetik hartu eta sinbolu bidez Jainkoari egokitzen zaiona, alegia—. Zuhaitz sagaratu bat azken axolatzat dadukanak bietatik du: axolaren azkentasuna eta zuhaitzaren zehaztasuna, horren azkenarekiko harremana sinboluz ematen duena. Apolo jainkoa gurtzen duena azken minez axolatuta dago, ez soilki, ordea: bere azken axola Apoloren jainkozko irudi bananduan sinboluz emana du: azken axola eta gizona azken minez axolatuta dadukan irudi konkretua. Hona hemen Jainkoa Jainkoaren sinbolu izate horren esanahia. Adiera zehatz hon-

tan, fede mota guzi-guzien sinesmami hondokoa eta funtsekoa da Jainkoa.

Argi dago Jainkoaren esangura honela uler-tzean, zentzugabeak direla Jainkoaren izate edo ez-izateari buruzko eztabaidak. Ez du zentzurik azken axola baten azkentasuna ez baitan jartzeak. Alde hontatik berez da zihurra Jainko ideia. Azkentasunaren sinboluzko agerpidea, ordea, amai-rik gabe aldatzen da gizadiaren historia osoan zehar. Berriz esanaz, zentzugabe izanen litzake azken axola hori zinboluz ematen dutenen iru-dietako bata nahiz bestea ba ahal diren *izan* gal-detzea. Diren guzietan idoro daitekeen zerbait bada *izatea*, jainkozko izakiak ez du, ez, *izaterik*. Ez da, ordea, hori galdetu behar dena, beste hau baizik: hots, zein da fedearen mila sinbolutan fedearen esangura adierazteko egokiena? Hitz ber-ritan: zein azkentasun sinboluk agertzen du az-kena sasiialderik gabe? Hau da gure arazoa, hau, eta ez *Jainkoaren izatea* delako hori. Berez el-kar ezineko hitzak batzea da hori. Gizonaren az-ken axolaren azkena denez Jainkoa, zihurra bai-no zihurragoa da, norberekiko zihurtasuna bai-no zihurragoa noski. Jainko iruditan sinbolatua denez, ordea, ausardia-, kemen-, eta arrisku gaia da Jainkoa .

Fedearen oinarrizko sinbolua da Jainkoa, bai; ez bakarra, ordea. Berari egokitzen dizkiogun gaitasun guziak: ahalmena, maitasuna, zuzenta-suna-eta gure esperentzia mugatuetatik jaso, eta mugatasunaz eta mugagabetasunaz harutzago da-goenari sinboluz egokitzen dizkiogu. Jainkoa gu-

*zieldun* deitzen badu fedeak, bere axola muga-gabearen mamia sinbolatzeko gizonaren ahalmen esperentzia erabiltzen ari da; baina ez du, hala ere, gogozko duen edozein gauza egin dezakeen izaki handiren bat azaldu. Berbera esan dezakegu Jainkoari egokitu ohi zaizkion beste gaitasun eta egintza guziei buruz ere —aspaldikoak, oraingoak nahiz gerokoak izan—. Gure eguneroko bizitzatik jasoriko sinboluak dira, eta ez Jainkoak behinola egindakoaren edo noizbait egingen duenaren berri ematea. Fedea ez da horrelako *kondairak* egiazkotzat hartzea, ez; gure azken axola Jainkoaren egintzetan agertzen duten sinboluak onartzea da fedea.

Fedearen beste sinbolu sail batek gauzetan nahiz gertakarietan, norbanakoetan nahiz elkartetan, hitzetan nahiz idazkietan azaltzen digute *jainkozkoa*. Zera sagaratu guzi horiek sinbolu altxor bat osatzen dute. Gauza sailduak ez dute saildutasunik beren baitan; baina beroiez handikaldera saildutasun guziaren iturria ikutzen dute: azken min eta axolaren iturburua, alegia.

### 3. — Sinboluak eta mituak

Fedearen sinboluak ez dira bakarka agertzen. *Jainkoen kondairetan* bilduta daude —horixe da, hain zuzen, gerkerazko *mithos* (mitu) hitzaren esangura—. Irudi bakoiztuak edo banakatuak dira jainkoak, gizabanakoen antzekoak, sexu aldetik bereztuak, batak bestea sortuak, maitasunez eta burrukaz elkarlotuak; mundu-gizo-

nak sortzen dituzte, noiz-nonbait dagite. Gizonaren handian eta kaxkarrean, egintza kreatzailletan eta hondatzailetan hartzen dute esku. Beroiek ematen dizkiote gizonari kultur eta erlijio tradizioak, eta horren ritu sagaratuak zaindu. Lagundu egiten die gizonari eta baita mehatxurik jaurti ere, familia, tribu edo nazio batzuei batez ere. Irudiz nahiz haragiz agertuaz, toki sagaratuak eraiki, rituak ezarri eta lagunen batzu izendatuaz, kultua sortzen dute. Baina beroriek ere, diren guzien gaintetik dagoen zoriaren agindu-zemaien menpe daude. Hauxe da mitologia, antzinako Grezian horren unkgarriki hazi zenez. Baina berezgarri hauetariko asko edozein mitologitan idoro daiteke. Gehienetan mitologiako jainkoak ez dira denak berdinak. Hierarkia bat dago horien artean: gailurrean jainko agintari bakarra dago —hala Grezian; nahiz irukoitza —hala Indian; nahiz bikoitza —Persian bezala. Gorengo jainkoen eta gizonaren bitarteko bezala jainko zaindariak edo salbatzaileak ari dira; berez hilezkorrak izan arren, alditan gizonaren atsekabeetan eta heriotzean partzuer dira hauk. Hona hemen mituaren mundua, handia eta harrigarria, beti aldakor baina funtsean beti berdina; hona jainkozko irudi eta egintzetan sinbolaturiko gizonaren azken mina eta axola. Jainko-gizonen batzaldien kondairak eta fedearen sinboluak batera jarri, horra hor mituak.

Edozein sinesmenetan dago miturik ere, sinboluzkoa denez gero fede hizkera. Gizadiaren erlijio handi guzietan, mituei eraso ere egiten zaie, kritikatu eta gainditu ere egiten dira. Zergatik

kritikatzen diren, mituaren zer-izanean bertan datza zergati hori. Gure eguneroko esperentziatik jasoriko gaia erabiltzen du mituak. Noiz-nonbaiten neurritan ezartzen ditu jainkoen kondairak, mitua bere noiz-nonbaiten neurrietaz harutzago dagoen azkentasunari badagokio ere. Batez ere, jainkozkoa zenbait iruditari banatzen du mituak, horietako bakoitzari azkentasuna kenduaz, baina horien azkentasun galdea edo eskaria kendu gabe, ordea. Bizitza, gizartea eta norbere kontzientea hondatzeko hainako **ko azken** eskari absolutuen arteko burrukak sortzen ditu horrek nahitaez.

Mituaren kritikak aurren-aurrenik jainkozkoaren banaketa hori arbuiatzen du, eta jainko banatuen gainetik Jainko bakarrera jo, bide ezberdinetatik, hori bai, erlijio mota ezberdinen arabera. Baina Jainko bakarra ere mituzko hizkeratan sartzekoa da, batez ere beraz mintzatu noiz-nonbaiten neurritan egiten da. Azken axolaren mamia zehatza eta konkretua bihurtzean, Jainko bakar horrek ere bere azkentasuna eta baldingabetasuna galtzen du. Beraz, mituarekiko kritika ez da amaitzen politeismoaren mitologia arbuiatzean.

Mituarekiko kritikaren pean dago monoteismoa ere. *Desmitugintzaren* premia du, gaur esan ohi den bezala. Idazteunaren, Itun Zaharraren nahiz Berriaren kondaira eta sinboluen mitu aldeak argitzean eta adieraztean erabili izan ohi da hitz hori; hona hemen horietako zenbait kondaira: Paradisua, Adanen bekatua, uholde handia,

Ejitoko irteera, Mesiaren jaiotza garbia, bere mirari asko, bere berbiztea eta igokundea, bere azken etorrera mundua epaitzeko. Laburki esan, Jainko-gizonen harremanak ematen dizkiguten kondaira guziak berez mituzkotzat hartzen dira, eta desmitugintzarako dira, beraz. Zer esan nahi du, baina, ukapeneko hitz mordoilo honek? Sinbolua sinbolutzat eta mitua mitutzat hartu beharra gogorarazten badigu, onartu egin behar da desmitugintza eta eutsi egin behar zaio. Kontra egin behar zaio eta arbuiatu egin behar da, ordea, sinbolu eta mitu, denak kendu behar direla esan nahi baldin badu. Hontan saiatzea da, izan ere, mituaren kritikabide honen hirugarren maila. Baina ezingo dute sekula azken onik izanen ahalgin horiek, gizonaren kontzienteko ezaguera betikoak bait dira sinbolua eta mitua. Mitu baten ordeztu beste bat jar daiteke, bai, baina ezin gizonaren gogo bizitzatik mitua bera ken. Gure azken axolaren sinbolu sorta bait da mitua.

Mitutzat hartzen den mitua, baina baztertu edo bere ordeztu beste bat jarri gabe, *mitu jalkia* dei daiteke (1). Ber-berez ukatzen ditu kristautasunak jalkigabeko mitu guziak, lehen agindu hau bait du berak aurrez emana: azken absolutua, alegia. Idazteuneko, kristautasunaren irakatsietako eta liturgiako mituzko guziak mituzko-

---

(1) *Broken mith* esaten du Tillichek: mitu apurtua, irekia, argitua... guzi hau litzake, Tillichen aburuz. *Mitu jalkia* jarri dugu: intxaur batek irekitzean edo *jalkitzean* bere barnea azaltzen duen bezala, mitu jalkia edo irekia ere bere mituzkotasuna agirian dadukana da. (Itzultzailearen oharra).



tzat hartu beharko lirake, baina horien sinbolu gisa hortan eutsi beharko litzaieke eta ez jarri zientziatzko ordeztu-mordezkoen batzu horien lekuan. Ez dago, egon ere, sinbolu-mituen ordeztu-korik: berauk dira fedearen hizkera bakarra.

Mitua erro-errotik kritikatu nahia, mituzko ezaguera primitibuak mituaren muina adierazteari aurka egiten diolako da. Desmitugintza ororen bildur da gizon primitibua. Mitu jalkiak egia-rik eta inor etsiarazteko indarrik ez duela uste du ezaguera horrek. Jalkigabeko mituen munduan bizi direnak seguru eta zihur ari dira. *Mitua jalkiaz* —hau da, sinboluzkoa eta mituzkoa dela jakinaraziaz—, zihurgabetasun izpirik sartu nahi izateari aurka egiten diote, maiz itsumustuan. Agintarismo erakundeek, berriz, erlijiozkoek nahiz politikazkoek, eutsi egiten diote jendearen joera horri; berenpeko herriari segurantzia eta agintariei inork oldartuko ez duen indarra eman nahian. Literalismoan agertzen da desmitugintzaren kontrako joera hau. Horien esanahi hurrenean eta zuzenekoan ulertzen dira sinboluak. Izaditik eta historiatik hartzen diren sinbolugaiak hauen adiera berezkoan eta jatorrizkoan erabili ohi dira. Sinboluak bere gaintetik beste zerbait gogorarazten digulakoaz ahaztu egin ohi da. Behin eta betiko gertaturiko egintza magikotzat hartzen da kreakundea. Lurreko tokiune berezi batetan ezartzen da Adanen bekatua eta gizabanako bati leporatu. Mesiaren jaiotza garbia biologiazko bezala ulertzen da, berbiztea eta igokundea fisikazko gertakartzat jotzen, Kristoren bigarren etorrera lu-

rraren edo mundu osoaren hondamendi bezala aditzen. Literalismo honek zera du aurrezema: Jainkoa noiz-nonbaitean diharduen, toki berezi batetan bizi den izaki bat dela; munduko gertakarien bilakaera aldatu ere egiten duela berak eta baita bilakaera honek ere bera aldatzen duela, beste edozein izaki bezala. Jainkoari honen azkentasuna eta funtsezkotasuna eta, erlijioaz ari garenez, honen nagusitasuna eta handitasuna kentzen dizkio literalismoak. Azken baldingabea ez denaren eta mugatu eta baldinpetua denaren mailaraino kaxkartzen du Jainkoa. Azken finean ez da, ez, akabaila eta erabakitzailea mituaren kritika buruzkoa, erlijioak berak bere barnerako egiten duena baizik. Sinboluak hitzez-hitz hartzen baditu, sasifede bilakatzen da fedea. Absolutu izateraino iristen ez den zerbait azken eta absolutu deitzen du sasifedeak. Fedeak, ordea, bere sinboluak sinbolu direla oharturik, jainkoari ematen dio berari zor zaion ohorea.

Bi mailako berezi behar dira literalismoan: bata berezkoa, eta kontrajoerakoa bestea. Berzko literalismoan mituzkoa eta hitzen esanahia berezi ezinezkoak dira. Norbanakoen eta gizataldeen lehen aroa hortantxe datza, izan ere; irudimenak sortutako sinboluak, batetik, eta miatuz eta saiopetuz egizta daitezkeen gertakariak, bestetik, banatzeko gai ez izatean. Erabat bidezkoa da literalismo maila hau eta ez litzake eragotsi behar, ez norbanakoengan ez taldeengan, ahalik eta gizonaren galdetu beharrak kraska dezan arte mituzko ikuskariok hitzez-hitz onartze hori. Hontara heltzean, berriz, bi bide har daitezke:

bata, mitu jalkigabearen ordez mitu jalkia jartzea da. Hauxe da, izatez, bide egokia: hala ere, mitua jalkitzean agertzen den zihurtasunik eza baino norbere galderak uxatzea nahiago duen hainbeste eta hainbestentzat ezinezko bidea da hori. Bigarren literalismo mailan bizitzera behartuak daude, orduan, guzi horiek, hots, ohar mailan: galderak daudela konturatuta egonik ere, erdi ohartuz erdi oharkabe, galderak galezariaz, alegia. Tasun sagaratuz hornituriko agintari ezagutu eta onarturen bat —Eliza edo Idazteuna edo— izan ohi da galderak galerazteko bidea; baldingabeko atxikimendua zor izaten zaio agintari horri. Maila hau ere onartzekoa da, galderen indarra oso makala eta erraz erantzutekoa bada. Ezin onar, ordea, politika edo psikologia direla bide, gizon helduaren izpiritua bere erdigunean hausita baldin badago, bere batasunean zatikatuta, bere osotasunean urratuta. Krisi-teologiaren etsaia ez da literalismo berezkoa, literalismo ohartuzkoa baizik, giza pentsabide berregaina zapaltzen eta oldartzen duena, alegia.

Ez dago fedearen sinboluen ordez beste sinbolu motarik jartzetik, artederrarenak, esateko; ez dago ere zientziako kritikaren bidez sinboluak baztertzerik. Beren leku jatorra dute giza gogoan, zientziak eta arteak bezalaxe. Sinbolu izatean dute beren egia eta indarra. Sinboluak eta mituak haina ez den ezertxok ezin dezake gure azken axola ager.

Beste galdera sortzen zaigu oraindik, hau da, azken axola-mota guziak agertzeko gai ahal di-

ren sinboluak. Adibidez, zera erantzuten digute kristau teologariek: *Mitu* hitza izadizko mituak adierazteko bakarrik erabili beharko litzakeela, hau da, izadian behin eta berriro gertatzen diren bilakaera edo prozesuei —hala urteko sasoi— azken esangura ematen zaienerako. Historiazko bilakaera bezala ikusten bada mundua, bere hasiera, amai eta erdiarekin —hala Kristautasunean eta Judaismoan—, *mitu* hitza ez litzakeela erabili behar uste dute horiek. Funts-funtsetik hestutuko luke horrek mitu hitzaren barrutia. Mitua ezingo litzake gure azken axolaren hizkeratzat har, hizkera honen bazterreko hizkelgi bat bakarrik bezala baizik. Historiak, ordea, izadizko mituak ezezik, historiazkorik ere badela egizatzen digu. Bi indar jainkozkoren gudu zelaitzat hartzen dela lurra —hala antzinako Persian—, horra hor historiazko mitu bat. Jainko kreatzaileak herri bat autatu eta, historian zehar, edozein historia gainditzen duen amai batetara zuzentzen duela, horra hor historiazko mitu bat. Kristoa —handikaldeko, jainkozko izaki bat, alegia— garaiaren betean agertu, bizi, hil eta berbiztu dela, horra hor historiazko mitu bat. Izadizko mituei lotuta dauden erlijioak baino garaiagoa da kristautasuna. Baina beste edozein erlijio bezalaxe, mituzko hizkera mintzatzen du kristautasunak ere. Mitu jalkia, bai, baina mitua; bestela ez litzake gizonaren azken axolaren agerpide izanen kristautasun hau.

## Pentsabidea

### 1. — FEDEAREN OSAKIAK ETA HAUEN DINAMIKA

#### a) Fedearen osakiak:

- Osaki ezberdinak ditu fedeak, fede bizitzan berezi ezin badaitezke ere
- Fede guzietan daude osaki horiek, baina ez neurri berdinean fede guzietan

— *Fedearen osaki horietako bata edo bestea nagusi izateak sortzen ditu fede mota ezberdinak.*

b) *Fede motak eta sainduarekiko esperentzia:*

— *Saindua bertako bezala sumatzen da, mundu arrunta sagaratuaz: izanaren saindutasuna. Fede mota ontologikoa sortzen du*

— *Saindua gizonaren epaile bezala sumatzen da, gizonari moralezko zuzentasuna eta maitasuna eskatuaz: izan-beharraren saindutasuna. Fede mota moralezkoa sortzen du.*

d) *Fede motak eta fedearen dinamika:*

— *Bi fede mota nagusi horien artean sortzen da erlijio barneko eta erlijio arteko soka-tira eta dinamika*

— *Fede mota bakoitzak bere egoera gailditzeko saiatu behar du etengabe, azken baldingabearen bila.*

## 2. — FEDE MOTA ONTOLOGIKOAK

### A) Erlijiozkoak:

a) *Sakramentuzkoa: izaki saindu edo sagaratuaren bidez azken baldingabeagana...*

— *Ez da gauza edo izaki batzu sainduak edo sagaratuak direla uste izatea*

— *Gauza edo izaki saindu horien bidez azken baldingabeak norbait oratuta eduki-*

*tzea da: zerbait saildu bada, fededunarentzat bakarrik da saildua*

— *Horregatik «kanpotik» ezin liteke uler gauza sagaratuaren eta fededunaren harremana*

— *Gauza edo izaki sagaratuok (baldinduak) azken baldingabetzat hartzeko arriskua du: sakramentalismoa...*

b) *Mistikoa: munduko izakion gaintetik azken baldingabeaganatzea...:*

— *Ez da azken baldingabearekin bateginda egotea, hori iritsiko-ez-iritsiko tentsioa baizik*

— *Fede esperentzia ez da izaki sagaratuetan nabaitzen, norbere arimaren erdigunean baizik*

— *Giza adimenezkoa jainkozkoan suntsitzea da fede modu honen arriskua.*

B) *Sekularrak:*

d) *Gizatiarra: humanismoa ez da fedegabezia, gizonaren neurribidetzat gizona hartzea baizik...:*

— *Humanismoa fede da*

— *Azken baldingabea gizonagan sumatzen du (ez izaki sagaratueta, ezta mistikoren extasian ere)*

— *Fede sekularra da, gizonaren muga baretan geratzen delako*

— *Fede gizatiar motak:*

- + *erromantiko-kontserbakorra (fede ontologikoa)*
- + *aurrerakoi-utopikoa (fede morala).*

### 3. — FEDE MOTA MORALAK

*Fede mota hauen Jainkoa legezalea da: moralezko legea (fede mota ontologikoetan legezkorik bazen, baina rituzko legea da hori).*

#### A) Erlijiozkoak:

##### a) Juridikoa (*Judaismo talmudikoa; Islamismoa*):

- *Fedearen agerpidea: Legea*
- *Lege-emailea: Profeta*
- *Mahoma, Moise edo Jesus Lege horren aurkezlari besterik ez dira...*

##### b) Ohiturazkoa (*Konfuzionismoa*):

- *Munduaren legea da azken baldingabearen agerpide oinarrizkoa*
- *Erresumaren eta gizartearen legeak horren aplikazioak dira.*

##### d) Etikazkoa (*Profeta judeguen fedea*):

- *Jainkoaren legea zuzentasun legea da*
- *Eguneroko bizitzan bete behar da lege hori*



— *Legea betetzeak betetzen du Jainkoaren eta gizonaren harremana.*

**B) Sekularrak:**

e) *Gizatiarra: Fede aurrerakoi-utopikoa da Mendebaldearen fede gizatiarra; antzinateko fede gizatiarrak, ordea, ez ziren moralezkoak, sakramentuzkoak baizik:*

— *Gizarteko justizia eskatzen du*

— *Fede honek egin du iraultza munduan*

— *Hau ere fedea da.*

**4. — FEDE MOTA EZBERDINEN BATASUNA**

*Fede mota hauk berez elkarrekin daude; bizitzan elkarjoka sarritan.*

a) *Batasunaren oinarriak:*

— *Fede mota bakoitzean bestetik ere bada-go: guzien arteko dinamikan bilatu liteke batasun biderik*

— *Fede mota horiek ez dira nahaspilo bat: gizonaren joera oinarrizkoak eta fedearen izaera bera azaltzen dute; horregatik batasun biderik bilatu liteke.*

b) *Batasun dinamikaren norabidea: Fede mota guzien batasuna bakoitzak norbere fede modutik ikusten du; baina badago arrazoi ojetiburik ere:*

— *Katolizismoak, Itun Berrian oinarritzen de-*

*nez eta beste zenbait giza jokaera bere baitan bildu duenez, fede mota guzien batasuna duela esan daiteke*

- *S. Paulok bildu zituen bikainkien bere lzipiritu saindu konzeptuan bi fede mota nagusiak*
- *Baina batasun hori dinamikoa da, etengabe eraberritu beharrezkoa; Katolizismoak, hortaz ahaztuaz, sakramentuzkoa puztu zuen beregan, moralezkoa eta profetikoa itoaz*
- *Sakramentalismo honen kontra jeiki zen Protestantismoa: Baina honek, sakramentuzkoa alde batera utziaz, moralezkora jo zuen gehiegi*
- *Berriz lortu behar du Kristautasunak fedearen osaki guzien batasuna, S. Pauloren lzipiritu saindu konzeptua berriztuaz.*

## 1. — Fedearen osakiak eta hauen dinamika

Azkenaren axolaz axolatuta egotea denez fede, era askotara bizi da, bai fededunaren aldetik bai fede gaiaren aldetik. Erlijio- eta kultur-talde bakoitza eta, hein batetan, norbanako bakoitza da fede esperentzia eta fede mami bereziaren jabe. Fede sinboluen aldatzearen arabera aldatzen da fededunaren beraren egoera ere. Fedearen agerpide askotarikoak aztertzeke, egokia

da fede mota oinarrizko batzu bereztea eta horien harreman dinamikoak azaltzea gero. Motaok geldiak dira berez, bata bestearen ondoan lerrotuta daude. Baina badute dinamikazkorik ere. Mota bakoitzak, bere fedearen ikusgune bereziarentzat azken balioa edo balio absolutua eskatzen du. Honek sortzen ditu fede mota ezberdinen arteko sokatira eta burrukak, erlijio elkarte guzien barnean, baita erlijio handien barnean ere.

Zera esan behar da hemen: fede mota horiek burutan eraikiak direla, ez benetan eta bizitzan horrela gertatzen direnak. Ez dago mota garbirik inolako bizitza alorretan. Diren gauza guziak dadukate mota batetik eta bestetik. Hala ere, izaten dira mota bakoitza mugatzen duten berezgarri nagusien batzu; hauk landu behar dira bizitzaren dinamika ulergarri izan dadin. Berbera gertatzen da fedearen mota eta agerpideen artean. Badute beren motako kera, bai; baina sinemota guzietan biltzen da fede mota guzietako zenbait berezgarri, hauetako batenbat gailen delarik, hori bai.

Sainduarekiko esperentzia bakoitzean, adibidez, bi alderdi nagusi berez daitezke. Bata, saindua orain-hemengo une hontan bertan izatea, orain-hemengo une hontan. Bere agertokia eta bere agergaia sagaratu egiten ditu. Giza gogoari indar izugarritz eta liluragarritz oratzen dio. Izaiki arruntetara sarturik, barrutik astintzen du mundu arrunt hau eta extasi moduz-edo beretik atera eta harutzago bultzatzen du. Beregana hur-

bildu ahal izateko arauak jartzen ditu. Bertan eta aurkez izan behar du sainduak eta bertako bezala nabaitu behar, sainduaren esperentziarik izango badugu.

Une berean, diren guziei buruzko epaia darama sainduak. Norbere eta gizartearen saindutasuna eskatzen du: zuzentasuna eta maitasuna, alegia. Gu geurez garen eta, beraz, izan behar genukeena, ematen digu gure azken axolak. Bera dugu gu garenaren legea, bai geure aurka eta bai geure alde. Ez dugu sainduaren esperentziarik izaterik, berak guk zer-nola izan behar dugun agintzeko duen indar eta guzi ez bada.

Sainduarekiko esperentzia honetako lehen alderdia izakiaren *izanaren* saindutasuna deitzen badugu, sainduarekiko esperentzia hontako bigarren alderdia, ordea, izakiaren *izan-beharraren* saindutasuna dei genezake. Laburki, izaneko fede mota edo fede ontologikoa dei genezake lehen, eta izan-beharreko fede mota edo fede moral, bigarrena. Bi fede mota hauek, beren elkarlotura eta beren elkarreskatimak mugatu dute gehienbat fedearen dinamika, bai erlijio bakoitzekoa bai erlijioen artekoa. Norbere fedearen barrunbe mamienetaraino eta baita diren erlijio handien joerataraino iristen da fede mota bien eragina. Biak daude hortxe nonahi sineste bakoitzean. Baina bietatik bat izaten da beti gailen; izan ere, gizonak, mugatua izaki, ez daduka inoiz egiaren alderdi guziak oreka oso batetan biltzerik. Bestalde, mugatua dela-ta, ezin daiteke gizona lasai gelditi azkena eta bere agerpen ego-

kiak axola bait zaizkio fedeari. Gizonaren fedea ez da egokia, ordea, norbere bizitza osoa azken funtsezkoa haina ez den zerbaitek xedatzen baldin badu. Horregatik, bere mugatasunaren mugak gainditzen eta inoiz iritsi ezin dena —azkena berbera, alegia— iristen saiatu behar du beti gizonak. Sokatira edo tentsio hontatik sortzen da fedearen eta igaropenaren edo tolerantziaren hazia. Erlatibismoarekin, azken axola eta kezkarik ez eskatzearekin lotuta dagoen igaropena ukapezkoa da eta ez du mamirik. Nahitaez bere kontra-kontrakoa eroriko da: hau da, igaropenik gabeko absolutismoan. Biak elkartu behar ditu fedeak: bere erlatibutasunean oinarrituriko igaropena eta bere axolaren funtsezkotasunean oinarrituriko zihurtasuna. Fede mota guzietan da bizia hauzi hau, baina kristautasun protestantean batez ere. Fede protestanteari bere burua kritikatzeko ausardiatik eta bere erlatibutasunari buruz aurrez-aurre jartzeko kemenetik datorkio bere handia eta bere arriskua. Inon baino agiriago eta argiago nabari da hemen fedearen dinamika: bere eskariaren absolutuaren eta bere bizitzaren erlatibuaren arteko sokatira eta tentsio mugagabea, alegia.

## 2. — Fede mota ontologikoak

Bertako bezala nabaitzen da aurrenik saindua. Hemen-oraingoa da orduan saindua; eta honek esan nahi duena ez da besterik: zeren batean, noren batengan, gertakariren batetan aurkitzen gaituela sainduak. Izaki banandu edo kon-

kretu batetan ikusten du fedea diren guzien eta izanaren beraren azken hondoa eta esangura. Izanaren zati bakar bati ere ez zaio ukatzen sainduaren ontzi bihurtzeko betarik; eta izan ere, ia izaki mota guziak hartu izan dituzte sainduztat giza taldeek eta norbanakoek beren fedearen bidez. Saindu bihurtu den izakia *sakramentuzkoa* da —aspaldiko hitza erabiliak—. Pitxarreko ur hau, ogi puska hau, kalizeko ardo hau, zuhaitz hau, esku keinu hau, belaunikatze hau, etxe hau, hibai hau, margo hau, hitz hau, liburu hau, nor hau, guziak sainduaren ontzi dira. Guziotan nabaitzen du fedea bere azken minaren eta axolaren mamia. Ez dira aukeratzen batenbaten kasketaldia dela bide, ez, norbaitzuen ikuskarien bidez baizik. Taldeak, bere aldetik, onartu egiten ditu, belaunik-belaun ondorengoenganatu, aldatu, gutiagotu, ugaritu. Izutu egiten dute guziok gizona, eta liluratu; auspez jarrerazten diote, sasigurtzan eroriarazi; kritikaren premia gogorazti; sainduaren ontzi berriak bilatzera bultzatu. Orokorra da sakramentuzko fede mota hau. Erlijio guzietan dago. Fedearen eguneroko ogia da: berori gabe hutsa, soila, eta norbere eta taldearen bizitzarako esangurarik gabea izango litzake fedea.

Sakramentuzko erlijio mota hontan, fedea ez da, ez, gauza bat saindua dela eta bestea ez direla uste izatea. Bitarteko berezi baten bidez sainduak norbera oratuta edukitzea da fede mota hau. Zerbait sagaratu dela esateak zentzurik badu, fedea esaten duelako besterik ez da. Orokorri baliagarri litzakeen buruzko eritzizat har-

tuz gero esakari hori, hitz mordo zentzurik gabekoa besterik ez litzake izango. Baina fedearen *norbait-zerbait* harremanean badu, bai, zentzurik eta egiarik esakari horrek. Kanpotiko ikusle batek zera esan lezake bakarrik: federik duen baten eta bere fedegai sakramentuzkoaren artean badela fedezko harremanik eta elkartasunik. Baina ezingo du uka ez baieztatu, fedezko harreman honek baliorik duen ala ez. Gertakari bezala esan dezake, besterik ez. Protestante batek katolikoren bat Ama Birjinaren irudiaren aurrean atoitzka ikusten baldin badu, ikusle bezala, geratzen da, besterik ez, eta katolikoaren fedea baliozkoa den ala ez esan ezinean. Katolikoa bada, berriz, otoizleagana daiteke, bai, sinesmen bat berean. Fedezko harremanaren kanpokaldetik fedea eritzi dezakeen erizpiderik ez dago. Baina gerta daiteke besterik: hau da, galde dezaioke fededunak bere buruari edota galde dezaioke besteren batek fededunari ea berak nabaitzen duen azken axolaren bitarteko horrek benetazko azkentasunik eta funtsezkotasunik agertzen ahal duen gero. Galdera hauxe da, erlijioen historian, sakramentuzko fede mota hau nahas-irauli eta, bide ezberdinetatik, fedea harutzago bultzatu duen indar bizia.

Galdera honen aurrezamana, berriz, hauxe da: mugatua —izakirik sagaratuena izanda ere— ez dela erabat egokia gizonaren azken axola agertzeko. Giza-gogoia, ordea, ahaztu egin ohi da ezegokitasun horrekin, eta azkenarekin berberarekin berdintzen du gauza sagaratuena: Sakramentuzko gauza hori berez jotzen du saindutzat. Be-



re sainduaren ontzi izatea, bera baino harutzagokoren bat burutaraztea, izkutatu egiten da sinesmen hortan. Ez du sinesmenak jadanik azkenera eta hondora jotzen, azkena sinboluz ematen duenera baizik —zuhaitza, liburua, etxea nahiz norbait izan sinbolu hori—. Bere gardentasuna galdu du fedea. Protestanteek uste osoa dute, Jaunaren Afarikoan edo Mezan ogi-ardoak Kristoren gorputz-odol bihurtzen (*transubstantiazien*) direlako katolikoek erakaskari hori zera besterik ez dela: alegia, jainkozkoaren gardentasun galtze horixe, hain zuzen, eta jainkozko hori gure aurrean dugun mundu honen zati batekin berdintzea. Kristogan gorputzuriko sainduaren presentzia Jaunaren Afariko ogi-ardotan nabaitzen du fedea, bai. Hala ere, fedea okerbideratu egiten da, sakramentuko ogi-ardoek berezko eragipena izan eta kutxan gorde daitezkeen gauza sagaratu bezala hartzean eta erakustean. Fedezko harremanean ezik, ez dago gauza sagaraturik. Sainduak ere saindu badira, beren bitartez saindutasun guziaren iturria nabari delako besterik ez da.

Sakramentuzko fede motaren mugok eta arriskuok bultzatu du zenbait mistiko, historiaren garai guzietan, bere fedean dauden izakiak eta izanaren barruti osoa ere erro-errotik gainditze-ra. Gauza guzien oinarri eta muinarekin berdintzen dute azkena —Batarekin, Esanezinarekin, Izanaren gaintetiko Izanarekin—. Ez da fede mota konkretuak, sakramentuzkoak arbuitzea, mistikoen fedea nahi duena, ez, fede modu konkretu horietaz harutzago jotzea baizik. Bide luze

baten amaia da mistikazko fedea: hau da, sineskera konkretuenetik, konkretutasun oro jainkotasun hutsean izkutatzen den unerainoko bidearen amaiera. Mistizismoa ez dago arrazoimenetik at, ez. Europako eta Asiako mistikorik handienetako batzuk, une berean filosofari handienetakoak izan ziren, argitasunez, tinkotasunez eta arrazoibidez bikainak benetan. Baina zeraz konturatu ziren: azken axolarekiko fedearen mamia ez dagoela ez izakietako batekin berdintzerik —sakramentuzko fedea nahi lukeenez— ezta arrazoimenezko erakundeetan agertzerik ere. Extasi esperentziaren gaia da azken hori, eta ezin liteke hortaz inolako hizkeratan mintza, une berean hizkera honek azkenaz mintzatzerik dagoenik ere ukatzen ez baldin badu. Hauxe da fede mistikoaren agertzeko bide bakarra. Baina galde liteke: Ba ahal dago, gero, ezer agertzekorik, fede mistikoaren mamia ezer agergarriren gainetik badago. Ez ahal dago fedea, sainduaren bertakotasuna nabaitzean oinarrituta? Nondik nora daiteke horrelako esperentziarik, azkenak izan daitekeen esperentzia oro gainditzen baldin badu? Hona hemen mistikoen erantzuna: mundu mugatuaren barrutian bada azken absolutua bertako eta aurkez dagoen une bat, eta giza arimaren hondoa da hori. Une horixe da mugatuaren eta mugagabearen arteko ikugunea. Hor sartzeko, norbere bizitza arruntako gauza mugatu guzietz hustu behar du bakoitzak norbere burua; atariko axola guziek azken axola barrenekoaren esanetara jarri behar dute. Sakramentuzko fedea azken absolutua nabaitzen duenetako izakiez harutza jo behar du gizonak. Bizitzaren er-

dibanatzea gainditu behar du, baita erdibanatzerik sakonena eta orokorra ere, hau da, norbait-zerbaiten arteko erdibanatzea. Erdibanatze hontaz handikaldean dago azken absolutua, eta azken hau iritsi nahi duenak bere baitako banaketa gainditu behar du, gogarpenaren, kontenplazioaren eta extasiaren bidez. Arimaren jokatibide honen baitan, azken axolaren mamia iritsiko-ez-iritsiko hori da fedea. Hurbildu, erori, eta behingoan burutu, ari da fedea. Fede mistikoak ez du sakramentuzko fedea gaitzesten edo arbuiatzen. Sakramentuzko sinesmenaz harutza jotzen du fede mistikoak: sakramentuzko sinesmen guzietan izan bai, baina fede horri gorputza ematen dioten gauza zehatzen azpian izkutatua dagoenera, alegia. Batzutan bata bestearen aurka jarri izan dituzte teologariek fedea eta mistikoen esperentzia. Fedearen eta azken funtsezkoaren arteko leizea ez omen dago betetzerik. Mistizismoak, ordea, bere axola baldingabearen mamian, hots, diren guzien izanaren eta esanguraren oinarrian, sartu nahi du adimena. Hala ere, teologarien eta mistikoen eskatima honek bere neurriak ditu. Mistikoak, izan ere, gogoan du mugagabearen eta mugatuaren arteko alde mugagabea, eta bere mugagabearekiko batasuna atariko mailetan bizi beharra onartzen du onartu; bizitza hontan, izan ere, banakatan, edo beharbada inoiz ere ez, eteten du batasun modu hori azken extasiak. Eta fededunak federik izango badu, bere azken axolako mamiak oratu behar dio derrigorrez. Sakramentalismoa bezalaxe, mistizismoa ere fede mota da; eta bietatik dago edo-

zein fede motatan: mistikazkotik eta sakramentuzkotik.

Berdin baieztatu behar da fede mota ontologikoaren barneko fede modu gizatiar edo humanistari buruz ere. Bereziki axola zaigu fede modu hau miatzea, sarritan humanismoa sinesgabeziarekin berdindu bait da, eta fedearen aurka jarri. Fedea eta humanismoa elkarjoka jarri, ordea, fedea jainkozko izakien izatean eta egintzetan uste izatea bezala definitzen baldinbada bakarrik jar daitezke elkarjoka. Alderantziz, azken absolutuaz absolutuki axolatuta egotea bezala hartzen baldin bada fedea, humanismoak bere barne-izkutuan du fedea. Gizonak bere izpirituzko bizitzaren neurritzat bere burua jartzea da humanismoa: artederrean nahiz filosofian, jakintzan nahiz politikan, gizarteko harremanetan nahiz norbere etikan. Jainkozkoa gizonezkoan ageri da humanistarentzat. Gizona berbera da gizonaren azken axolakizuna. Gizonari, gizon denez, dagokio guzi hau, hori bai: hots, gizon egiazkoari, buruko gizon horri, ez benetan gertatzen den gizonari, ezta bere gizatasun egiazkoa galdu duen gizonari ere. Adiera hontan, bere azken axola gizona dela esaten badu humanistak, izaki mugatuetako azken absolutua bezala gizona ikusten du, sakramentuzko fedea izaki batetan azken absolutua ikusten duen bezalaxe, edota mistikazko fedea giza gogoaren hondotan mugagabearen lekua aurkitzen duen bezalaxe. Horien arteko aldea, berriz, zera hontanxe datza: sakramentuzko eta mistikazko fedeen gizatasunaren mugak gainezkatzen dituztela, eta gizonaz

eta bere munduaz bestaldera saiatzen direla azken absolutua bera iristen, fede gizatiarra gizonaren mugabarnetan geratzen den bitartean. Honen negatik *sekularra* deitu ohi da fede gizatiarra; beste fede mota biak, ostera *erlijiozkoak*. Mundu hontako gertakarien bilakaera arruntaren barrutian dagoena esan nahi du *sekular* hitzak; bilakaera hontatik alboratuaz edo harutza joaz, saildutegian sartzen da gizona. Latinez eta bertatik eratorritako zenbait hizkuntzatan, *elizaren ataurrean egotea* adierazteko *profano* hitza hartu ohi da. Adiera hontan profanua eta sekularra berdinak dira, beraz. Maiz esan ohi du jendeak bera sekularra dela, tenpluaren atez kanpo bizi dela, eta, beraz, federik ez duela! Baina azken axolarik ez ahal duen galdetzen bazaio, baldintzarik gabe eta bere bizitzan benetan hartzen duen ezer ez ahal duen, indarrez erantzungo dizu baietz. Eta azken axolarik baduela esatean, berriaz, fede esperentzian bizi dela baieztatzen dizu. Fede mota gizatiarra du holako jendeak —eta askotarikoa da fede mota berau ere—; sekularra izateak ez du jende hori fededunen elkartetik kanpora uzten.

Ia ia amaigabeko zeregina da fede mota gizatiar honen ager tankera guziak azaltzea: askotara agertu bait da eta askotara bizi da mendebaldeko sail zabaletan eta Asiako kulturetan. Fede mota erlijiozkoen berezketa bera fede gizatiar honi ere egokituz gero —ontologiazkoaren eta moralezkoaren arteko berezketa, alegia—, fede sekularraren mota ontologiazkoa erromanitiko-kontserbakor dela esan genezake; mota mo-

ralezkoa, ordea, aurrerakoi-utopikoa. Ideia inguru hontan, mugatuan —izadian eta historian lehendik gertatzen den mugatuan noski— mugagabea nabaitzea esan nahi du *erromantiko* hitzak. *Kontserbakor* hitzak, berriz, erromantiko hitzarekin batera, izadiaren eta historiaren oraingo izate modu *hauetan* azken absolutuaren aurkezpena sumatzea esan nahi du batez ere. Lore baten hazteko moduan, abere baten ibilkeran, gizonaren banakotasunean, nazio berezi batetan, kultura berezi batetan, gizarte erakunde berezi batetan, guzi horietan saildua ikusten duena erromantiko-kontserbakor da. Horrentzat lehendik dena saildua da eta azken axolaren mami. Garbi dago fede mota honen eta sakramentuzkoaren antza. Fede gizatiarraren mota erromantiko-kontserbakorra sakramentuzko fede sekulartua besterik ez da: jainkozkoa hemen eta orain gertatzen da. Fede mota sekular hontatik dator kulturazko nahiz politikazko kontserbakorkeria oro. Fede izanik ere, aurrezema duen azken baldingabearen beraren neurrialdea izkutatu egiten du horrek. Hutsa bilakatu ahal izatean datza horren makaltasuna eta arriskua. Historiak erakutsia du kultura sekular soilen makaltasuna eta azken hutsa. Horretxek bihurtu ditu behin eta berriz, etorri zireneko fede mota erlijiozkoetara.

### 3. — Fede mota moralak

Lege ideia da fede mota moralen ezagugarria. Legea dohaintzat eta agindutzat jaulki duen Jaungoikoa da horien Jaungoikoa. Norbere burua le-

gearen esanetara jartzen dutenek bakarrik dute Jaungoikoarengana hurbiltzerik. Bada legerik fede mota sakramentuzkoan eta mistikoan ere, bai, noski, eta legeak bete gabe ez daduka inork azken baldingabea iristerik. Baina fede mota bietako legeen artean garrantzizko alde bat dago. Fede mota ontologikoetan ritu arauak eta askesi jardunei norbere burua menpetzeko eskatzen du legeak. Fede mota moralean, ordea, moralezko menpetsuna eskatzen du legeak. Alde hau ez da erabatekoa, noski. Ritu arauak ere beregan ditu moralezko baldintzak, eta etikazko legeak ere barneko ditu ontologiako baldintzak. Baina aski da alde hori, zenbait erlijio handiren sorrera ulertzeko. Mota batari edo besteari jarraitzen diote horiek eta.

*Hiru* eratakoak berez daitezke fede mota moraletan: juridikoa, ohiturazkoa eta etikazkoa. Judaismo talmudikoan eta islamismoan hazi da indartsuen fede juridikoa; Txinako Konfuzionismoan ohiturazkoa da gailen; etikazkoa, berriz, Profeta judeguena da.

Mahomak emaniko goiagerkundera sinestea da Islamismoaren fedea, eta goiagerkundera horixe da horren azken axola ere. Ritu eta gizarte legeak dira, hein handi batetan, Mahomaren bitartez emaniko goiagerkunderak. Erlijio eta kultura guztiak sortu direnetiko sakramentuzko fedearen maila gogorarazten dute ritu arauok. Gizarte legeak, berriz, rituzkoa gaindituaz, *izan behar lukeen*-aren saildutasuna sortzen dute. Bizitza osoa kutsatzen dute lege hauek (hala judaismo orto-

doxuan). Horien sorburua azken axolagaia da, hots, profeta; honen aginduekin berdintzen da horien mamia. Dohain eta agindu bezala (biak batera) nabaitzen da beti legea. Bizigarri eta atsegina da bizia legearen babespean. Guzi hau esan daiteke erdi mailako mahomatarrari buruz, eta berbera esan daiteke, baita, islamismoa oinarritzat dutela, humanismo sekularra —heine handi batetan Greziako iturritatik mantendua noski— hazten dutenei buruz ere. Nazio islamdarren erlijio joera ezagutzen duen batek esango balu Mahomaganago fedea dela hori —Kristoganako fedearen aurkako, alegia—, zera erantzun beharke litzaioke: Ez dela azkenburukoa eta akabaila Mahomagan, hau profeten profeta denez, sinestea, ez, sagaratuta dagoen eta jende gehienaren eguneroko bizia mugatzen duen antolamendu eta ordenu batetan sinestea baizik. Fedearen galdera ez da: Moise ala Jesus ala Mahoma? beste hau baizik: Nork agertzen du egokien norbere azken axola? Erlijioen arteko eskatima ez da uste tankeren arteko eskatima, ez, gure azken axolaren agerpideen arteko eskatima baizik. Jainkozkoaren barruti juridikoko agerpena haren funtsezko agerpena ote den da galdera. Bizitzazko erabakiak dira fedearen erabaki guziak, ez buruzkoak.

Berbera esan daiteke Konfuziok bildu eta formulaturiko ohiturazko arau erakundeari buruz ere. Erlijio gabekoa dela esan ohi da maiz erakunde hori, eta Txinako bizimoduari —Konfuziok determinatzen duen heinean, alegia— fede gabezia hutsa leporatu izan ohi zaio. Baina bada federik konfuzionismoan, eta ez arbasoen gurgin-



tzan bakarrik (sakramentuzkoa da hau), baita aginduen baldingabetasunean ere. Oinarrian munduaren legea ikusten da: erresumaren eta gizartearen legeak horren agerpide besterik ez dira. Hala ere, erlijiozko hauk eta guzi, bere oinarrian sekularra da konfuzionismoa. Honek azaltzen digu Txinako bi gertakari historiko (1) hauen zergatia: Batetik, sakramentuzko eta mistikazko diren Budismoak eta Txinako Taoismoak eragipenik izateko duten giro kontrazkoa, bai horien tankera herrikoian bai horien tankera ederkatuetan; bestetik, komunismoaren fede sekularra-  
ren garaipen erraz batentzako aldeko giroa —komunismoa ere fede mota gizatiar moralezkoetako baita da.

Erljiozko fede mota moralezkoetako hirugarren fede modua —eta eraginkorrena noski— Itun Zaharreko Judaismoa da. Beste edozein fedek bezala, sakramentuzko oinarri zabala du honek ere: herri aukeratua, Jainkoaren eta herriaren arteko ituna, eta ritu legea bere aberastasun handiz eta bere sakramentuzko eginkizun ugaz. Hala ere, «izanaren» saindutasun ontologiazkoarekiko esperentziak ez du inoiz «izanbeharraren» saindutasun moralezkoarekiko esperentzia azpiratu. Profeta judeguintzat, eta apaiz, maisu (rabbi) eta teologarien artean ziren haien jarraitzaileentzat, zuzenbide-legearekiko menpetasuna

---

(1) Historiazkoa (*historical*) eta historikoa (*world historical*): aurrenak historiako une batetan gertatu den zerbait esan nahi du; bigarrenak, ordea, historian garrantzi handi duen gertakari bat. (Itzulpen-oharra).

da Jainkoaganatzeko bidea. Jainkozko legea da azken axolagaia, Judaismo zahar nahiz berrian. Hori da fedearen mami-mamia. Horretxek ematen ditu eguneroko bizitzako atariko axola eta kezketan etengabe azken axola bizi izateko arauak. Beti izan behar du azken baldingabeak hemen-oraingoan, eta eguneroko bizitzako egintza txikienetan ere gogoan izan behar dugu. Bestalde, guzi honek ez du batere baliorik, moralezko legearekiko, hots, justizia eta zuzenbide legearekiko menpetasunarekin batera ez bada. Gizonaren eta Jainkoaren harremanen azken erizpide erabatekoa justizi legearekiko menpetasuna da. Itun Zaharreko profetismoaren handia hontanxe datza: herriak legearen sakramentuzkoari lotu eta moralezkoa uzteko zituen gogoak —eta hainbat zindoago herriaren gidarien gogoak— behin eta berriro moztu izatean, hau da, «izan-beharra» «izanaren» ezagupide jarri izatean. Judueguen fedea duen eginkizun historikoa hau da: Judaismoak berak eta beste erlijio guziek beren sakramentuei buruz duten zihurtasuna epaitu, eta, justizi eskabiderik gabeko azkentasun eskabide oro ukatzen duen azken axola aldarrikatzea.

Nabari da Judaismoaren eragipena, bai kristautasunean eta islamismoan, eta baita mende baldean aurkitu den fede mota gizatiar aurrerakoi-utopikoan ere. Antzinako humanismoak gogoan du, bai, *izan-beharra*. Greziako mitologiak eta poesigintza tragikoak, Greziako jakinduriak eta filosofiak, Erromako legeak eta estoiko erromatarren politikazko humanismoak, guziok azal-

tzen dute *izan-beharraren* garrantzia, bai. Baina antzinako historia osoan mota ontologiazkoa izan zen beti gailen. Berauxe egiztatu du Greziako filosofian mistizismoa eta Erromako Inperioan misterio-erlijioak garaile izateak, eta baita antzinatean gogabide aurrerakoi eta utopikorik ez izateak.

Gure garaiko humanismoa, hemezortzigarren mendez gero batez ere, kristau oinarrian bermatzen da, eta bere baitan du *izan-beharraren* garrantzi gailena, Judeako profetek landu zuten arabera. Horregatik, bere haseratik erakusten du aurrerakoizko eta utopikoizko zera indartsurik. Antolamendu feudalaren eta honen sakramentuzko oinarrien kritikatik hasten da. Justizia eskatzen du: aurrenik nekazariarentzat, gizarte burgesarentzat ondoren, eta gero proletargoarentzat. Hemezortzigarren mendetik honuntza *argitasunaren* alde lehiatzen direnen fedea moralezko fede mota gizatiarra da. Sakramentu bidez sagaraturiko lokarrietatik gizona askatzeko eta gizaki guzientzat justiziā lortzeko burrukatzen ziren. Horien fedea gizatiarra zen, erlijio gisa baino sekular gisa nabariago agertzen zena. Fedea zen noski, eta ez buruzko taxumena edo kalkulu teorikoa, justizia eta egiarekin elkarturiko adimenaren indar handitan usterik baldin bazuten ere haiek. Haien fede gizatiarraren dinamikak aldatu zuen gure mundua, aurrenik mendebalean, gero baita ekialdean ere. Izan ere, hemeretzigarren eta hogeigarren mendeetako proletargoaren iraultza bideek ere moralezko fede mota gizatiar horixe bereganatu zuten. Gure garai hontan egunero

nabari da horren dinamika. Edozein fede modu bezala, utopia tankerazko fede gizatiarra ere azken axolaz axolatuta egotea da. Honek ematen dio onerako eta gaiztorako indar ikaragarri hori. Fede gizatiarraren azterketa hau (eta lehengoa) aurrean dugula, ia itxuragabekeria da mendebal sekularrak fedea galdu egin duela esatea. Fede sekularra du, eta honek jarri ditu erlijio mota guziak beren buruak zaindu nahian; baina fedea da eta ez *fedegabezia*. Azken axolaz axolatuta egotea da fede sekular hori, eta axolagaiari osorik atxikitzea.

#### 4. — Fede mota ezberdinen batasuna

Sainduarekiko esperentzian berez batuta daude ontologiazkoa eta moralezkoa; fede bizitza konkretuan, ordea, elkarrengandik aldenitu egingo dira eta elkarren arteko eskatimatarara eta elkar hondatzera jotzen dute. Hala ere, berezko batasuna ezin zeharo ezereztu: lehen esan bezala, beti dago fede mota bakoitzekotik bestean ere. Sakramentuzko fede mota, esaterako, ritu legez beteta dago: garbitzapenak, prestamena, liturgi arauetikiko menpetasuna eta etika aldetik egoki jokatu beharra. Bestalde, ikusia dugu zenbat rituzkorik dagoen lege erlijioetan —moraletzko fede motan, alegia—. Berbera esan daiteke fede gizatiarrari buruz ere; izan ere, fede mota erromantiko-kontserbakorrean idoro daiteke, batetik, aurrerakoizko eta utopikozkorik; eta bestetik, fede mota aurrerakoi-utopikoa atzeko tradizioetan oinarritzen da, horien oraingo egoera kri-

tikatu eta berorietaz harutza jotzen badu ere. Fede motok batak bestean eskuartzeak, horietako bakoitza askotariko eta dinamiko bihurtzen du, eta bakoitzari bere ontzia gainezkarazten dio.

Fedearen historia, erlijioen historia baino zabalagoa izanik, fede mota ezberdinen aldentze-elkarganatzeen historia da. Sinesmenari nahiz sinesmamiari buruz esan daiteke hori. Gizonaren azken axolaren agerpideak ez dira, ez, inola ere, sailkatu ezineko nahaspilo bat —nahiz *norbait* aldetik ikusi axola hori, nahiz *zerbait* aldetik—. Fedearen historian hazi izan diren eta fedearen berezko ondorio diren giza joera oinarri-oinarrizkoak agertzen dituzte fede mota horiek. Horregatik uler eta azal daitezke, ulertu eta azaldu ere, urrutiratze-hurbiltze horiek, eta beharbada erakutsi ere bai non batera deitezkeen berriz ere. Argi dago hortan ekitea, ekinean ari denaren azken axola moduari lotuta dagoela. Kristau protestante teologaria baldin bada, kristautasunean —eta kristautasun protestantean bereziki— ikusiko du fedearen dinamikaren norabidea eta helburua. Ez dago bestela jokatzetik, norbere azken axolaren gaia bait da fedea. Baina une berean, hortan ari denak arrazoi *berezkoak* eta gauzari dagozkionak jarri behar ditu bere erabakia eta pentsakera oinarritzeko. *Berezko* hitz honek zera esan nahi du hemen: fedearen fede izatetik bertatik ateratakoak izan daitezela, eta fede izatea fede mota guzietan berdina da —*fede* hitza inola ere erabiltzekoa baldin bada. behintzat.

Katolizismo erromatarrak, gizonaren erlijio

eta kultur bizitzako alderdi eta joera aldenduenetakoak elkartzen dituen erakundetzat daduka bere burua eta zuzenki eduki ere. Izan ere, Itun Zaharra —eta honek beronek ere sakramentuzko eta moralezko fede motak bateratzen ditu—, misterio-erlijio elendarrak, gizabanakoaren mistizismoa, Greziako humanismo klasikoa, eta antzinate azkenaldiko zientzi metodoak ditu bere iturburuak. Batez ere Itun Berrian oinarritzen da zuzenean eta Itun Berriak, fede modu ezberdinak daduzka bere barnean, eta etikazkoaren eta mistikazkoaren batasuna berak egiten du, egin. S. Paulok egiten duen Izpirituaren azalpena da horren adibide bikaina. Itun Berrian, norbait Jainkozko Izpirituak oratuta edukitzea da fedea. *Izpiritua* denez, giza gogoan bertan dagoen jainkozko indarra da; Izpiritu *saindua* denez, maitasun-, egia- eta justizi-Izpiritua da. Bate-re zalantzarik gabe, Izpirituaren azalpen haxe dela esango nuke nik fedearen historiak daraman dinamika arazoaren erantzuna eta dinamika horren helburua. Baina erantzun hau ez da gu bertan geratzekoa. Behin eta berriz eman behar da erantzuna, esperentzia berrien arabera eta baldintzak aldatzen diren neurritan. Hau egiten bada, orduan bakarrik da hura benetazko erantzuna eta helburu irisgarria. Ez Katolizismoa ezta fundamentalismoa ere (2) ez dira premia honen

---

(2) *Fundamentalism* hitza darabilte Ipar Ameriketako protestanteen artean, batez ere Biblia interpretatu eta adieraztean, testua hitzez-hitz ulertuz horri lotuegi jokatzen dutenen jokaera esateko. Bibliazko literalismoa izanen litzake. (Itzulpen-oharra).

jabe. Horregatik galdu dute biok jatorrizko batasunaren zenbait aldetatik, eta alderdi bata nahiz bestea dute orain gailen. Horren kontra jeiki da protestanteen protesta, hamaseigarren mendeko Erreformaren aurretik, garai hartan eta ondoren. Horren kontra jaiki behar du beti protestanteen protestak azken baldingabearen azketasunaren izenean.

Protestante talde guziek Eliza erromatarrari eginiko kritika orokorra zera izan zen: bere agintarismoaren bidez barne-kritikabide profetikoa baztertzen zuela eta fedearen moralezkoen eta norberezkoen gainetik fedearen sakramentuzkoak indartu eta puztutzen zituela. Aurreneko okerrak bigarrenaren aldaketa ezinezkoa bihurtu zuen Elizaren baitan, eta ezinbestekoa izan zen etendura. Baina beste hau ere ekarri zuen etendurak berekin batera: sakramentalismo erromatarra eta sakramentueta oinarrituriko aginpide batzailea galtzea. Galera horren ondorioz, gero eta gehiago azken axola mota moralezkoaren aldeko bilakatu zen protestantismoa. Honela Eliza katolikoetako ritu-tradizio ugari galdu ezezik, sakramentu eta mistika esperentzietako sainduaren bertakotasuna osoki ulertzerik ere ez zedukan. S. Pauloren Izpirituarekiko esperentzia, hots fede mota guzien batasun esperentzia, katolizismoan nahiz protestantismoan, bietan galdu egin zen hein handi batetan. Liburu hontako fedearen azalpen honek S. Pauloren Izpirituarekiko ulerkera jo nahi du gaurko hizkera erabiliaz: hau da, norberezkoaren eta extatikoaren, sakramentuzkoaren eta moralezkoaren, mistikazkoaren

eta adimenezkoaren batasuna bezala ulertarazi nahi du Izpiritua. Egiazko esperentzi batetan, fede mota ezberdinen batasuna birrirabazteko gai baldin bada kristautasuna, orduan bakarrik eska dezake fedearen historiak eraman duen eta eraman-go duen dinamika arazoari erantzuteko eta dinamika horren helburua *burutzeko* eskubidea.



## Fedezko egia

### Pentsabidea

#### 1. — FEDEA ETA ARRAZOIMENA

A) *Fedearen eta arrazoimenaren berezko harremana:*

a) *Arazoa:*

— *Sinbolu mota eta fede mota asko dago:  
zeinek du egia?*

— Arrazoimenak eta fedeak ez dute elkar ukatzen: baina zein harreman dute?

b) Arrazoimenaren esanahiak:

— Gizonak duen teknika lanabes bat... (Fedeak azken zentzua emango lioke)

— Gizonaren gizatasuna bera; beste izakien-gandik berezten duena. Arrazoimena gauzen eta gizonaren beraren adigarritasuna litzake...

d) Arrazoimena eta fedea:

— Fedea arrazoimenaren kontra balego, gizonaren gizatasuna ukatuko luke

— Arrazoimena gauza mugatuetan ari da; baina mugagabeari irekita dago, bere burua gaindituaz eta mugatu jarraituaz

— Arrazoimenaren extasi honek arrazoimena betetzen du, ez txautu

— Beraz, fedearen aurrezema da arrazoimena, eta arrazoimenaren betea da fedea.

B) Fedearen eta arrazoimenaren harremana gizonaren bizitzan:

a) Arazoa:

— Fedea deabruzkotuta eta arrazoimena besteraturatuta daude bizitza hontan

— Goiagarkundeak konpondu beharko luke bien harremana

— Fedea, orduan, arrazoimenak goiagarkunde hori onartzea litzake...

— *Arrazoimena eta fedea gizonaren bizitza hontan gertatzen dira eta.*

b) *Goiagerkundearen esanahia:*

— *Goiagerkundera ez da Jainkoak berri batzu jaulkitzea*

— *Goiagerkundera azken axolaren esperentzia da, eta hau sinboluz ematearen esperentzia.*

d) *Arrazoimena eta Goiagerkundera:*

— *Goiagerkunde esperentziak gizon osoari heltzen dio, eta ez dago arrazoimenaren kontra*

— *Goiagerkunderak ez ditu gizonaren okerbi-deak erabat zuzentzen; horregatik gizona beti dago goiagerkunde berrien premian*

— *Gizonaren bizitza bere okerbideratzearen eta goiagerkundearen etengabeko burruka da: azkenik azken goiagerkunderak zuzenduko du betiko gizonaren arrazoimezko eta fedezko okerbideratzea.*

2. — **FEDEZKO EGIA ETA ZIENTZIAZKO EGIA**

*Egia: bene-benetazko dena egoki jaso eta zintzoki ematea da... Egi mota ezberdinak daude; fedeak ere badu egiarik.*

a) *Zientziatzko egia:*

— *Mundu hontako izakien egitura legeak zintzo eta egoki azaltzean eta esperimenez egiztatzean datza*

— Zientziatzko egia aldakorra da: ez daduka dogmakoa izaterik. Baina bere balioa badu.

b) Zientziatzko egia eta fedea:

— Fedeak, bere egia segurtatzeko, ez daduka zientziatzko egiaren aldakortasuna gogorarazten ibili beharrik

— Zientzia eta fedea elkarjoka ibili badira, bakoitzaren neurrialdeak edo dimentsioak galdu dituztelako izan da: zientzia fede bihurtuaz, eta fedea zientzia bihurtuaz:

+ horixe gertatu zen garai bateko astronomiaren eta fedearen arteko burrukan

+ horixe gertatu izan da berriki psikologia analitikoaren eta fedearen artean

— Jakintzatzko egia eta fedezkoa berezi egin behar dira: horregatik teologariek kontuz ibili behar dute beren tesiak zientziak aurkitu berri duenaz frogatzen.

### 3. — FEDEZKO EGIA ETA HISTORIAZKO EGIA

a) Historiazko egia: Ez da zientziatzkoa bezalako...

— Historiak gertakari bakarrak kontatzen ditu

— Historiak ulertu eta esplikatu egiten ditu gertakariak

— Historiazko egian gizona egia horren barnean sartzen da

— *Hontan badu fedezko egiaren antzik.*

b) *Historiazko egia eta fedezkoa:*

— *Historiazko egia gertakariaren egia da; fedezkoak ez du gertakariaren egiarik garrantizatzen, gertakariaren esangura baizik*

— *Fedea ez dago gertakariaren egiazkotasunari esegita: azken axolaren oinarria den neurritan segurtatzen du historiazko gertakaria*

— *Historia autonomua da fedeari buruz.*

4. — FEDEZKO EGIA ETA FILOSOFIAZKO EGIA

a) *Filosofiaren konzeptua:*

— *Filosofarien artean ez dago batasunik filosofia definitzean*

— *Filosofiaren filosofi-aurretiko konzeptua: izakien zer-izanaren eta gizonaren bizitzaren galdera orokorreari erantzunak ematea da filosofia...*

b) *Filosofiazko egiaren eta fedezko egiaren harremana izatez:*

— *Dimentsio ezberdinekoak dira biak: filosofiaren egia izakien egiturei buruzkoa da; fedezko egia, berriz, norbere azken axolaren egia da*

— *Hala ere, egia biok ematen dute azken baldingabea:*

+ burutapen bidez filosofiak

+ sinbolu bidez fedea

— *Filosofiak absolutuaren egitura azaltzean, ez du horrekin elkartasunik; fededuna, berriz, absolutuaren baitan dago horren azken axola baieztatzean.*

d) *Filosofiazko egiaren eta fedezko egiaren harremana gertatzez:*

— *Filosofari handienek azken axola sakonena azaltzen dute: filosofarien azken axola horrek darama aurrera filosofia*

— *Zientziaren azpian filosofia bat dago: beraz, federik ere bai*

— *Historigintzaren azpian ere filosofia bat dago: beraz, federik ere bai.*

e) *«Filosofiazko fedea»: Ez dago holakorik, ezta «philosophia perennis» delakorik ere...*

— *Filosofiaren burutapenak sinboluzkoan eta mituzkoan (fedezkoan) dute beren iturria (sinbolu guziak burutakizun) dira, bai,*

— *Baina fedeak ez du filosofia konkreturik eskatzen.*

## 5. — FEDEZKO EGIA ETA HONEN EZAGUPIDEAK

a) *Galdera: beste inolako egiaren bidez fedezkoa epaitzerik ez badago, nola jakin fedea egiazkoa denik?*

b) *Erantzuna: azken axola bera aztertzeak ematen digu erantzuna:*

— *Fededunaren aldetik, azken axola egoki*

eta zintzoki *agertzen dion sinbolua du fedearen egiazko sinbolua*

- *Fedegaiaren aldetik, benetan azkena eta baldingabea azaltzen badu fedeak, egiazkoa da fede hau*
- *Sinbolu egokia eta zintzoa den jakiteko, sinbolua bizi den ala ez ikusi behar: egokia ez balitz sinbolua hilda egongo litza-ke fededunarentzat*
- *Fedegaia benetan azkena eta baldingabea den ala ez jakiteko, sasifedea ez ote den ikusi behar: bere sinboluak absolutizatzten dituen ala ez, bere barnean bere buruaren kritikabiderik duen ala ez.*

d) *Egiazko fede eta kristautasuna:*

- *Kristautasunak Gurutzea du bere buruaren kritikabidea eta bere egiaren ezagupidea*
- *Protestantismoak hauxe du bere printzipioa: Elizak ez duela bere burua absolutizatzerik, ezta beste erlijioek beren sinboluak ere: Gurutzearen epaipean dau dela...*

## 1. — Fedea eta arrazoimena

Esana dugu sinboluen ezberdinak ez duela neurririk eta buruz-buru ari diren fede motak asko direla. Sinbolu eta fede mota horiek berentzat egiazkotasuna eskatze hori oso-osorik ukatu beharren garela esango litzake orduan. Beraz, arazo hauxe miatu beharra dadukagu orain: ea egiaren neurritan neurtu ahal daitekeen fedea eta nondik nora.



Arazo hau aztertzen den gehienetan, fedea, eta arrazoimena buruz-buru jarriaz, eta elkar ukatzen ote duten edota arrazoimenezko fede batean elkar ote daitezkeen galdetuaz, ekin izan ohi da. Elkartzerik baldin bada, nolatan elkartzen dira arrazoimenezkoa eta fedezkoa? Lehen aipatu bezala okerbideratzen bada fedearen esanahia, orduan fedeak eta arrazoimenak elkar ukatu egiten dute, jakina. Axola baldingabeaz axolatuta egotea bezala hartzen bada, ordea, fedea, orduan ez dago eskatimarik izan beharrik.

Baina ez da aski erantzun hau, gizonaren gogo bizitza bat-batua delako, eta bata bestearen ondoan lerrotutakorik onartzen ez duelako. Gizonaren izpirituzko guziak, ezberdinak izanik ere, elkarren barnean daude. Hauxe berbera baieztatu behar da fede-arrazoimenei buruz ere. Beraz, azken minez axolatuta egotea eta giza gogoaren arrazoimen egitura ez daudela elkarren aurka esatea ez da aski. Izatez zein harreman duten erakutsi behar da, hau da, nola barnetzen duten elkar. Nondik nora edo zer adieratan erabiltzen da *arrazoimen* hitza, galde liteke, fedearekin aurrez-aurre jartzean? Egun sarri gertatzen den bezala, zientzi metodo, logikazko doitasun eta teknikazko taxumentzat hartzen ahal da arrazoimena? Edota Mendebaleko kultur garai gehienetan bezala, gauzen esangura, egitura, arau eta printzipioen iturritzat jotzen ahal da? Aurrenekoan, gauzak miatzeko eta eskuperatzeko lanabesak ematen ditu arrazoimenak, eta eskuperatze hori zuzenki betetzeko bidea emango luke fedeak orduan. Teknika-arrazoimena dei

daiteke honelako arrazoimena, lanabesak eman bai, baina xederik ezartzen ez duen arrazoimena, alegia. Horrela edonori eguneroko bizitzarako axola zaio arrazoimena eta gure garaiko teknikazko zibilizazioa mugatzen duen indarra da. Bigarren adieran, gionaren gizatasuna bera da arrazoimena, eta beste izaki guzietatik banatzen du gizakia. Hizkuntzaren, giza askatasunaren eta bere kreabidearen oinarria da arrazoimena. Gauzak ezagutzean, artederra bizi izatean, moralezko aginduak betetzean, arrazoimenak hartzen du esku, berak ematen du norbere erdiguneko bizitza bizi ahal izatea eta giza elkartearen elkarkide ahal izatea. Arrazoimenaren aurkakoa balitz fedea, gizona desegintzeko bidea izanen litzake. Erlijiozko nahiz politikazko agintarismo erakundeetan urrundu egin da, bai buruz, bai egitez, ondorio hori. Arrazoimena hondatzen duen fedea bere burua eta gizonaren gizatasuna hondatzen ditu. Izan ere, arrazoimenezko egitura duen izakia bakarrik da azken minez axolatuta egoteko gai, atariko axola eta azken axola berezteko, etika premiatasunaren (*imperativ*) agindu baldingabeak ulertzeko eta sailduaren bertakotasunaz ohartzeko gai. Guzi hau ahal izango bada, berriz, arrazoimenaren bigarren esangura eman behar da aurrez: hau da, norbere gogoaren eta izakien egitura adigarritzat hartu behar da arrazoimena; eta ez lehen esanguran, hau da, teknika lanabestzat.

Fedearen aurrebaldintza da arrazoimena; arrazoimenak extasi bidez bere burua gainditzea da fedea. Fede-arrazoimenen elkarbarnetzearen al-

derantzia da hau. Gizonaren arrazoimena mugatua da; munduaz eta gizonaz beraz ari denean, harreman mugatuez ari da arrazoimena. Gizonak bere burua nabaitzeko eta bere mundua lantzeko ari duen kultur lan guzia mugatua da. Beraz, ez da mugagabeko axolagai. Arrazoimena, ordea, ez dago bere mugatasunari lotuta. Bere mugatasunaz konturatuaz, mugatasunaren gaindi jartzen da. Gizonak bere burua mugagabeari dago kiola nabaitzen du, bai; bere zati ez den eta bere esku ez dadukan mugagabeari, ordea. Beronek oratu behar dio gizonari, eta orduan izanen du gizonak mugagabeko axolagai. Mugatua da gizona, atariko axoletan bizi da giza arrazoimena; baina mugagabe daitekeela oharturik dago gizona, eta honen oharmen hau honen azken axola bezala, hots, fede bezala, azaltzen da. Azken axola batek oratzen badio arrazoimenari, bere mugetatik harutza eramaten du arrazoimen hau; ez dio, ordea, honek bere arrazoimen izateari uzten, arrazoimen mugatua izateari noski. Azken axolazko esperentzia extatikoak ez du arrazoimenaren egitura txautzen. Arrazoimenaren betea da extasia, ez honen ukapena. Bere mugatasunaren hesiez harutza zuzenduaz, eta azken baldingabearen, hots sainduaren bertakotasuna nabaitzen badu bakarrik bete daiteke arrazoimena. Honelako esperentziarik ezean, arrazoimena bera eta honen mami mugatuak agortu egiten dira. Azkenik, arrazoimenaz kanpoko eta deabruzko mamiz betetzen da arrazoimena, beroiek hondatzen dutela. Fedez beteriko arrazoimena, fede gabeko arrazoimena, deabruzko fede hondatzailez beteriko arrazoimena: hona hemen no-

ra daraman bide horrek. Erdiko maila hori igarogune besterik ez da, gogo bizitzan hutsunerik ez dagoenez gero, izadian ez dagoen bezalaxe, hain zuzen ere. Fedearen aurrezema da arrazoimena; fedea, berriz, arrazoimenaren betea. Azken axolazko egoera denez, extasian dagoen arrazoimena da fedea. Ez dago, bada, berez eskatimarik fedearen eta arrazoimenaren artean; elkarbarneko dira biak.

Galdera asko du teologiak une hontan jartzeko. Giza bizitzaren baldintzapetan, fedearen fede izatea okerbideratzen ez ote den galdetuko du horrek; lehen aipatu bezala, deabruzko indar hondatzaileak harrapatzen badute, esate baterako. Eta teologiak galdetuko du baita ere ea arrazoimenaren arrazoimen izatea ez ote den okerbideratzen gizona bere baitatik ateratzean eta besteratzean. Azkenik, zera galdetuko du teologiak: fedearen eta arrazoimenaren batasuna eta bien benetazko jatortasuna, erlijioak *goiagerkundera* izendatzen duenaren bidez berriz argitu eta lortu behar ez ote den. Eta honela bada —jarraituko du teologiak—, ez ote dago arrazoimena bere okergune hortan goiagerkunderari menegitera behartuta, eta ez ote da goiagerkunderaren mami ei menpetze hori *fede* hitzaren egiazko esangura? Teologiak jarritako galdera hauei erantzuna ematea da, hain zuzen, teologiaren beraren eginkizun osoa. Ez dago liburu hontan erantzun horren oinarritzkoak besterik ematerik.

Aurrenik zera aitortu behar da: gizona bere berezkotik atera eta besteratuta dagoela. Hone-

la, bada, bere arrazoimenaz baliatzeko modua eta bere fede tankera ez ditu berezkoak, eta hortakoz, berez behar luketenak. Honek sortzen ditu, gero, arrazoimenaz baliatzeko modu okerraren eta sasifedearen arteko benetazko burrukak. Fedearen izate egiazkoari buruz eta arrazoimenaren izate egiazkoari buruz esan duguna ezin liteke gero bere hortan erabili, gizonaren fede bizitza eta arrazoimenaz baliatzea *gertatzez* horren bizitzako baldintzapetan gertatzen direla jakin gabe: oinarri-oinarrian eta ondo zehazturik baieztatatu eta finkatu behar pondu hau.

Zehazpen eta bareztapen honen ondorioa zera da: fede eta arrazoimena beren baitatik besteratzea eta bien harremanen etendura hori garrantzea eta fede-arrazoimenak beren baitaratzea eta berezkoratzea eta beren harremanak lehengoratzeta: guzi hau gizonaren benetazko bizitza honen barnean egin behar dela. *Bizitzaratze* honen esperentzia agerkunde esperentzia da. *Giagerkunde* hitza horren oker erabili izan delarik, orain zaila da inola erabiltzea ere, *arrazoimen* hitza baino zailago oraindik. Herri soilak uste duenez, Jainkoak jainkozko gaien berri ematea esan nahi du goiagerkundeak: berriak eman, profetei eta apostoluei ematen zaizkie eta jainkozko Izpirtuak Idazteunaren edota Koranaren edota beste liburu sagaraturen idazleei hitzez-hitz idatzarazi. Jainkoaren berri horiek onartzea, nahiz eta zentzugabeak eta arrazoimenaren kontrakoak izan, fede deritza orduan. Liburu hontako hiz guzi-guziak daude goiagerkundearen okerbideratze honen aurka. Gizonak azken axola batek oratzen

dioenean duen esperentzia, eta, axola bera ekin-tza-, irudipen- eta gogamen-sinbolutan agertzeko, elkarte bat sortzen denean gizonak duen espe-rentzia da aurren-aurrenik *goiagerkundera*.

Horrelako goiagerkunde esperentziarik gerta-zen den edonon, bai fedea eta bai arrazoimena berriztatu egiten dira. Horien baitako eta elka-rrekiko eskatimak garaitu egiten dira, eta eten-duraren orde adiskidetasuna ezartzen. Hauxe adierazten du goiagerkundera, edo adierazi behar luke. Goiagerkundera gertakarian nabari bihur-tzen da azken baldingabea azken axola batetan, aurreko erlijio- eta kultur-egoera astinduz eta eraberrituz. Horrelako esperentzia batetan ez dago fedearen eta arrazoimenaren arteko eskati-marik izaterik; izan ere, azken axola baten goi-agerkundera gizonaren arrazoimenezko egitura osoari oratzen bait dio eta aldatzen. Baina hala ere, fedea okerbideratuta dadukan eta arrazoi-mena okerbideratuta dadukan gizonari ematen zaio goiagerkundera. Eta okerkuntza hau, eraba-teko indarra galdua badu ere, garaitu bai, baina kendu ez da kentzen. Goiagerkunde esperentzia berria ere kutsatu egiten du okerkuntza horrek, zaharrak kutsatu zituen bezalaxe. Sasifede bihur-tzen du fedea, azken baldingabearen ontzi eta agerpidea azken baldingabearekin berarekin naha-siaz. Arrazoimenari, berriz, honen extasi indarra, honen burua azken absolutuaren aldera gaindi-tzeko joera, kentzen dio. Okerbideratze bikoitz honen ondorioz, fedearen eta arrazoimenaren harremana ere okerbideratu egiten da: batetik, fedea arrazoimenaren atariko axoletako atariko

axola baten hesitan hestutuaz, eta, bestetik, arrazoimena azkentasun mailatara eramanez, arrazoimena berez mugatua izan arren. Fede-arrazoimenak, biak, usteldu direla-ta, eskatima berriak sortzen dira orduan bien artean, eta horiekin batera goiagerkunde berri eta goragoko baten premia sortzen da. Fedearen okerbideratzearekin izaniko burruka etengabea da fedearen historia, eta horren ezagugarririk nabarienetako arrazoimenaren aurkako eskatima da. Burruka hontako burrukaldi erabakitzaile eta azkenburukoak agerkunde handiak izaten dira, eta garaipen azkenekoaren burrukaldi azkena, fedearen eta arrazoimenaren okerbideratzea behin eta betiko garaituko duen goiagerkunde azkena izanen da. Agerkunde azken hontan duela bere oinarria aitortzen du kristautasunak. Historiak etengabe jaritzen dio test bat aitortpen horri eta kristautasunak bere bizitzaren eta ekintzaren bidez erantzun behar du.

## 2. — Fedezko egia eta zientziako egia

Ez dago eskatimarik fedearen eta arrazoimenaren artean, biak beren egiazkotasunean hartzen direnean. Zera dakar honek berekin: fedearen eta arrazoimenaren ezagutzaren artean eskatimarik ez dagoela esan behar dela. Giza arrazoimenaren arloetan, fedearekin errazen burrukartzan dena bezala ezagumena hartu izan da beti, ezagutza tankera guzietan hartu ere. Horrela gertatzen zen batez ere, ezagutza tankera behe-

goa bezala jartzen zenean fedea, eta onartu ere, horren egiari Jainkoaren itzalak eusten ziolako onartzen zenean. Baztertua dugu dagoeneko fedearen esanguraren okerbideratze hori, eta horrekin batera baztertua dugu baita ere fedearen eta ezagumenaren arteko eskatimen jatorririk sarritakoena. Baina hortik aurrera, fedeak eta ezagumenak zenbait ezagukeratan —zientzian, historian eta filosofian—, dituzten harreman zehatzak erakutsi behar ditugu orain. Ezagukera horietako bakoitzean egiak duen adiera eta fedezko egiaren adiera ezberdinak dira. Hala ere, egia iristen saiatzen dira guziok, egia, hau da, giza gogoaren ezagumenak egoki eta zintzo jasotako *bene-benetazkoa* den zera hori. Gizonak bere ezagutzeko ekinetan bene-benetazko hori galdu eta *itxuraz* bakarrik benetazko dena *bene-benetazkotzat* hartzen badu, orduan egiten du huts; edota bene-benetazkoan jo izanik ere, era okerretan agertzen badu gero bene-benetazko hori. Sarritan nekeza da, benetazkoa galdu den ala horren agerpidea ezegokia den esatea, hutsegite biak elkarlotuak daude eta. Dena dela, ezagutu nahirik eta ezagutzeko ahaleginik den guzietan dago egiarik edo hutsegitèrik ere, edota egiaren eta hutsegitearen tartean diren mila egi-gezur mailetakoren bat. Fedean ere jardunean ari da gizonaren ezagumena. Horregatik zera galdetu behar dugu: zer esan nahi duen egiak fedean, zeintzuk diren egia horren erizpideak, eta zein harreman duten bestelako erizpideak dituzten bestelako egia motekin.

Munduko egitura eta harremanak aletu eta



azaltzen saiatzen da zientzia, saiobidez azterkatu eta hitz zenbatusunezkotan taxutu daitezkeen neurritan. Jakintzazko esakari baten egia hontantxe datza: izakiak mugatzen dituzen egitura legeen azalpena zintzoa eta egokia izatean, eta saioaren saioz azalpen hori egiztatzean. Jakintzazko egia guziak dira atarikoak eta aldakorak, bai izakien izana harrapatzean bai hori zintzoki agertzean. Zihurtazun gabezia honek ez du, ordea, zientziatzko esakari azterkatu eta egiztatu baten benetazko balioa beheragotzen. Zientziatzko dogmakoikeria eta absolutukeria eragozten ditu bakarrik zihurtasun-eza horrek.

Horregatik, zientziatzko egiaren aurka fedezko egia segurtatzeko eta finkatzeko bide oso eskasa litzake, teologariek jakintzaren esakari guzien azaltasuna eta atarikotasuna gogorarazi nahi izatea, fedezko egiari bere atzeraldian aterpe bat ematearren edo. Bihar zihurtasun ezaren barrutia hestutuko baldin balu zientziaren aurrerapenak, atzeraka jarraitu beharko luke fedea; —jokabide itxuragabe eta alferrikakoa hauxe, zientziatzko egiaren esanahia eta fedezko egiarena ez bait dira neurrialde berekoak!—. Jakintzak ez du fedearekin nahasteko ez eskubiderik ez gaitasunik, eta fedea ere ez du jakintzarekin nahasteko ez eskubiderik ez gaitasunik. Jakite-neurrialde batek ez daduka beste jakite-neurrialdea oztopatzerik.

Guzi hau ulertuz gero, fedearen eta jakintzaren arteko orainoko eskatimak guziz bestelako argitan agertzen dira. Eskatima horiek ez ziren

benetan fedearen eta jakintzaren artean, fede *baten* eta jakintza *baten* artean baizik, horietako bakoitza bere neurrialde baliozkoaren eta benetazkoaren jakinean ez izatean. Fedearen aurkeztzaileek astronomia modernuaren hasera eragozti zutenean, ez ziren ohartzen kristau sinboluak ez zeudela astronomia bati lotuta, astronomia aristotele-ptolomeotarra erabili arren kristautasunak. «*Zeruko Jainkoa*», «*lurgaineko gizona*», «*lurpeko deabruak*»: jainkozko et adeabruzko izakiz betetako tokiak balira bezala hartzen badira sinbolu horiek, orduan bakarrik egongo litzake astronomia berria kristau fedearekin mokoka. Bestalde, fisika modernuaren aurkeztzaileek ekai edo materia apur txikienen mugida mekanikoaren hesitan hestutu nahi baldin badituzte izaki guziak, bizitzaren eta gogoaren bene-benetasuna ukatuaz, alegia, fede bat agertzen ari dira, bai gaiaren aldetik bai norbere aldetik. Norbere aldetik jakintza dute beren azken axola, eta edozein gauza, beren bizitza eta guzi, azken honi opatzeko prest daude. Gaiaren aldetik, axola honen sinbolu tzar bat sortzen ari dira, hau da, gauza guziak, baita beren jakintza grina ere, adieraz-ezineko mekanismo batez bere barnean irensten dituen mundu bat sortzen. Bidezko da, bada, kristau fedea sinbolu honen aurka jartzea.

Jakintzaren kontra bakarrik burruka daiteke jakintza, eta fedea fedearen kontra bakarrik; jakintza irauten duen jakintza ezin daiteke fede irauten duen fedearen aurka burruka. Berbera esan daiteke zientziaren beste zenbait alorri buruz ere, hala biologiari edota psikologiari buruz.

Eboluzio teoriaren eta zenbait kristau teologia-rien arteko burruka aipatua ez zen jakintzaren eta fedearen arteko burruka, ez; jakintza *baten* eta fede *baten* burruka baizik: bere fedez gizonari gizatasuna kentzen zion jakintzaren eta literalismoz Idazteunaren agerpidea okerbideratua zuen fedearen arteko burruka, alegia. Kreakundearen kondaira, behin eta betiko jazoriko gertakari baten azalpen zientziatzko bezala adierazten duen teologia, argi dago kontrolbidez lan egiten duen zientziaren eginkizunean nahasita dabilela; argi dago baita ere, gizonaren jatorria aurretiko bizi-tankeratatik eratorria bezala azaldu, gizonak eta abereak beren izakeran liferentzia mugagabea dutela ukatuaz azaltzen duen eboluzio teoria, fedea dela eta ez zientzia.

Gogoeta berdinak egin behar dira fedearen eta gaurko psikologiaren artean diren eta izanen diren eskatimei buruz ere. Arima konzeptuaren bildur da psikologia modernua, zientzi metoduz iritsi ezinako den eta jakintzaren ekarrietan nahasi daitekeen zerbait ematen duela-kotan. Badu oinarririk bildur horrek; psikologiak ez luke onartu behar bere zientziatzko lanak sortu ez duen burutakizunik. Gizonaren bilakakerak ahalik egokien azaltzea du bere eginkizuna, eta azalpen hauk edonoiz aldatzeko prest egon behar du. Hauxe esan daiteke oraingo «*Nerau*» (*ego*), *Neraugaineko* (*superego*), *norbere* (*self*), *nortasun*, *inkontziente* edo *oharkabe*, gogo konzeptu modernu hauei buruz, lehengo *arima*, *izpiritu*, *nahimen* eta abar burutakizun tradizionalei buruz bezalaxe. Metoduzko psikologiak zientziatz-

ko egiztapena behar du, beste edozein jakintzazko ekinak bezalaxe. Atarikoak edo azalekoak dira psikologiaren burutapen eta definizio guztiak, baita finkatuenak eta sakonenak ere. Gizona bizi deneko eta honen arima irabaz-galdu dezakeeneko azken axola baldingabeaz mintza denean fedea, edota giza bizitzaren azken zentzuaz, ez da orduan inola ere zientziak arima ukatzearekin nahasten ari. «Arima gabeko» psikologiak ezin du arima uka, ezta «arimadun» psikologiak arima egizta ere. Gizonaren azken esanahiaren egia psikologiazko burutapen egokien egiaz ez, bestelako neurriez neurtu behar da. Gaurko psikologi analitikoa eta giza hondoaren psikologia sarri teologi-aurretiko eta teologiazko fede ageripideekin burrukan ibili izan da. Ez da zaila, ordea, hondoaren psikologiaren esanetan bereztea zeintzuk diren ongi edo gaizki egiztaturiko obserbazioak eta hipotesiak, batetik, eta gizonaren izateari eta izangoari buruzko fede formulazio garbiak, bestetik. Freud-ek hemeretzigarren mendetik hogeigarrenera ekarritako naturalismozkoak, maitasunari buruz funtsean zuen garbizalekeria, kulturari buruzko bere ukakortasuna, eta erlijio oro ideologiaren errainu hutstzat jo beharra, guzi hauk fedearen ageripideak dira eta ez jakintzazko azterketak emanak. Ez dago, ez, gizonaz eta honen tasunez ari den jakitun bati, bere jardunean fedezkoak sartzeko eskubiderik ukatzeko ziorik. Baina jakintzazko psikologia baten izenean beste fede tankera batzuei eraso nahi badie, Freudek eta bere jarraitzaile askok nahi izan duten bezala, dimentsioak nahasten ari dira. Holakoetan beste fede motarik dutenek

bidezkoa dute erasoaldi horiei aurka egitea. Psikologiaren esakari batetan ez da beti erraza fedezkoa eta jakintza-ustekizunezkoa berezten, baina daitekeena da eta maiz beharrezkoa.

Fedezko egia eta jakintzazko egia berezteak teologiariei ohar bat zuzentzera garamazki: hots, fedezko egia finkatzeko ez erabiltzeko zientzi aurkikunde aurkitu berriak. Munduaren taxugarritasunari buruzko zenbait ustekizun baztertu egin du mikrofisikak. «Quantum» delakoaren teoriak eta zehazgabetasun (*indeterminacy*) printzipioak lortu dute hori. Berehala hasten dira, orduan, erlijio idazleak, giza askatasunari, Jainkoaren krea-bideari eta mirariei buruz norberak dituen ideiak finkatzeko ikuskera horiek erabili nahian. Baina ez da inola ere zilegia jokabide hori, ez fisikaren ikusgunetik ezta erlijioarenetik ere. Fisikazko teoriok ez omen dadukate giza askatasunaren fenomeno ezin batzunagoarekin harreman zuzenkorik, eta «quantum» direlakotan indarra jaulkitze horrek ere ez du mirarien esanahiarekin harreman zuzenkorik. Horrela fisikazko hipotesiak erabiltzean, jakintzaren neurrialdea eta fedearen dimentsioa nahasten ditu teologiak. Fisikazko edo biologiazko edo psikologiazko azken aurkikundeek ezin dezakete ez egizta ez gezurta fedezko egia.

### 3. — Fedezko egia eta historiako egia

Historiazko egia ez da zientziako egia, erabat bestelakoa baizik. Gertakari bakarrak kon-

tatzen dizkigu historiak, ez behin eta berriz saiope daitezkeen bilakaera biderkorak edo berriztakorrak. Historiazko gertakariak ez dira esperimenteragarriak. Fisikazko saioen antzekorik, agiriak beren artean alderatzea bakarrik dugu historigintzan. Jatorriz harremanik gabeko zenbait agirik berbera esaten badu, historiazko esakaria egiztatuta geratzen da, historiaren neurritan noski. Baina historiak ez digu gertakari piloa kontatu bakarrik egiten. Gertakari hauk, hauen jatorrian, hauen harremanetan, hauen esanguran, ulertzen ere saiatzen da historia. Gertakariak azaldu, banandu eta ulertu egiten ditu historiak. Ulertzeak, berriz, partzuer izatea eskatzen du aurrez. Hauxe da historiazko egiaren eta jakintzazkoaren aldea. Historiazko egian adierazlea bera barnean dago; zientziazko egian, ordea, aldendua eta kanpoan. Fedezko egiak oso-osorik barnetzea esan nahi duenez gero, fedezko egiarekin paretu izan ohi da sarritan historiazko egia. Berdintze hontatik etorri da historiazko egia fedezko egia-ri oso-osorik lotzea. Honela historiazko esakari *otezko* baten egia fedeaak garantiza dezakeela esan izan da. Baina holakorik esaten duena zera hontaz ahazten da: historiazko lar. jatorrenean ere, fisikazko edo biologiazko bilakaerak begiztatzean eta miatzean haina barruntatu ohi direla gertakariak, norbera berauetatik aldenduaz eta berauek eskuperatuaz eta kontrolpetuaz. *Gertakari* baten egia da aurren-aurrenik historiazko egia; hontantxe berezten da epikaren olerkizko egiatik edo alegiaren mituzko egiatik. Azkenburukoa eta akabaila da bien arteko alde hau fedezko egiaren eta historiazko egiaren harremane-

tarako. Fedeak ez du *gertakari* baten egiarik garantizatzerik. Baina gertakarien esangura eta zentzua adierazi, bai, adieraz dezake eta adierazi behar du fedeak, gizonaren azken axolaren alde-tik, hain zuzen ere. Fedezko egiaren dimentsiora eramaten du honela historiako egiak.

Historiako ikerkundeak Idazteuneko idazki-en literatur tankera aurkitu duenetik nabarmendu da arazo hori pentsabide herrikoian nahiz teologiazkoan. Izan ere, hauxe erakutsi du ikerkunde horrek: Itun Zaharrak eta Berriak beren eresi edo narrazioetan historiakotik, alegiazkotik eta mituzkotik, denetatik batera dutela, eta sarritan ez dagoela hiru gisako horiek inolako egiantzez banakatzerik. Historiako ikerkundeak nabari jarri du zera hau ere: Kristo deritzan Jesusen Idazteuneko irudia eman diguten historiako gertakariak nolabaiteko egiantzez, ez bestela, iristeko biderik dadukagula. Erlijio ez-kristauen idazteunen eta alegiazko tradizioen historiako-tasunaz egindako ikerkundeak erlijio horietan berbera gertatzen dela erakutsi digu. Ezin daiteke fedea, berau agertu denetako kondairen eta alegien historiako egietatik esegita utz. Fedearen esanahia zorigaitzez okerbideratzea da fedea Idazteuneko kondairen balio historiakoan uste izatearekin berdintzea. Gertatzen da, ordea, holarik, oso ederztatuaz nahiz nabarmenki. Zenbait jendek esan ohi du berak edo bestek fedetik ez duela, Itun Berriko mirarien kondairak sinesgarriki agiriztatzen direnik uste ez duelako, hain zuzen ere. Ez dira agiriztatzen noski, eta Idazteuneko kondaira baten egiantz edo egian-

tzik eza nolakoa den ikertzeko linguistikaren eta historiaren metodu zindo baten bide guziez baliatu beharra dago. Ez da fede kontua, ez, orain erabili ohi den Koranaren argitalpena eta jatorrizko testua berdinak diren ala ez erabakitzea, Mahomaren jarraitzaile gehienek gartsuki horixe —berdinak direla, alegia— uste baldin badute ere. Ez da fede kontua, ez, Pentateukoaren zenbait zati handi Babiloniako herbestealdiaren ondorengo apaiz jakinduriaren ekarriak direla edota Genesi liburuak benetazko historia baino mitu eta alegia sagaratu direla batez ere, erabakitzea. Munduaren azken hondamendiaren itxaropena, Itun Zaharreko azken liburutan eta Itun Berrian ikusten denez, Persiako erlijioan sorturikoa den ala ez erabakitzea ez da fede kontua. Kristoren jaiotza eta berbiztearen kondairetan zenbat alegiazkorik, zenbat mituzkorik eta zenbat historiazkorik sartu den erabakitzea ez da fede kontua. Elizaren aurren egunei buruzko edes-titan zein den egiantz handienekoa erabakitzea ez da fede gaia. Inbestigalan historiazkoak erabaki behar ditu hauzi guzi hauk, egiantz handiz nahiz txikiz. Historiazko egiari dagozkion arazoak dira, ez fedezko egiari dagozkionak. Fedeak esan dezake, bai *azken axolako* zerbait historian gertatu dela, gizonaren izatea eta azken esangura auzitan daudelako hor. Fedeak esan dezake, bai, Moiseren legetzat ematen zaigun Itun Zaharreko legeak balio baldingabea duela, beronek oratzen dientzat, Moise pertsonaia historiazkoari lege hortan ezer asko edo ezer guti zor zaion jakin gabe ere. Fedeak esan dezake, bai, Itun Berriko Jesusen irudian Kristo bezala agi-



ri zaigun horrek salbapen indarra duela, beronek oratzen dientzat, nahiz eta irudi hortan Nazaretoko Jesus deritzan historiazko pertsonaiari ezer guti edo ezer asko dagokion jakin ez. Fedeak bere oinarria finka dezake, bai: Moiseren legea, edota Jesus, Kristoa denez, Mahoma profeta, edota Buda argitsua. Baina ezin dezake finka fedeak zein baldintzape historiazkotan bihur daitezkeen gizon horiek azken axolagai gizon askorentzat. Fededunarentzat barnean du fedeak bere oinarriari buruzko zihurtasuna —historia eraberritu duen historiazko gertakari bati buruzkoa, adibidez—. Baina ez du berea fedeak gertakari hori nola jazo zen jakite historiazkoa. Horregatik, historiazko inbestigalanak ezin dezake fedea haiza, bere aurkikundeek gertakaria kontatzen denetako tradizioak astintzen badituzte ere. Historiaren autonomia hauxe da, fedea azken axolazko esperentzia bezala ulertzeak dakarren ondoriorik garrantzizkoenetako bat. Eraman ezineko zama batetatik ateratzen ditu horrek fededunak, hauen kontzientzia zientziako zintzotasunak eratuta eta lotuta badaduka. *Fede menpetasuna* deitu dugunaren aurka balego zientzi zintzotasun hori, Jainkoa bere baitan errailduta bezala agertuko litzai guke, deabruzko eta guzi; eta berari buruzko axola ez litzake azken axola izanen, bi axolamendu mugaturen eskatima baizik. Sasifedea da azkenik fede hori.

#### 4. — Fedezko egia eta filosofiazko egia

Ez jakintzazko egiak ez historiazkoak baiezta

ez uka dezakete fedezko egiarik. Ezta fedezko egiak ere ezin dezake baiezta ez uka jakintzazko nahiz historiako egiarik. Galdera hau sortzen da orduan: filosofiazko egiak fedezko egiarekiko harreman berbera ote duen ala bien arteko harremana batzunagoa eta konplejoagoa ote den. Bigarren hau da egia noski. Areago oraindik, filosofiazko egiaren eta fedezko egiaren arteko harremanaren batzuntasun honek, jakintzazko eta historiako egiarekiko harremana ere, lehen-go azterketak eman diguna baino konplejoagoa bihurtzen du. Horixe da fedearen eta filosofia-ren harremanei buruz izaten diren mila eztabaiden sustraia eta horixe da filosofia fedearen etsaia eta hondatzailea dela herriak uste izatearen zioa ere. Erljio elkartearen fedea agertzeko filosofiazko burutakizuna erabili izan duten zenbait teologariri ere fedea saltzen ari dela leporatu zaio.

Filosofiari berari buruz edozein solas izateko eragozpena zera hontantxe datza: filosofi konzeptu oro, konzeptu hori ematen duen filosofiazko ikusgunearen ondorena eta ezagugarria dela, alegia. Hala ere, bada filosofiaren esangurari buruz filosofi-aurretiko gogaidetasunik edo akordio-rik; eta hemengo gure solasaldi hau bezalakotan, filosofiaren filosofi-aurretiko burutapen horri hel-du beste biderik ez dugu. Adiera hontan, izakien zer-ezanari eta giza bizitzari buruzko galdera orokorreni erantzunik ematen saiatzea da filosofia. Galdera orokorrenak, berriz, barruti berezi bateko izakien zer-izanaz galdetu ezik —hala historiako edo fisikazko barrutikoak, esaterako—

barruti guzietako izakietan hala gertatzen den zer-izanaz galdetzen dutenak dira. Izakiak sumatzeko ditugun burutapen eta kategoria orokorrak idorotzen saiatzen da filosofia.

Filosofiaren burutapen hau aurrez emanez gero, zehaz daiteke filosofiako egiaren eta fedezko egiaren harremana. Izakien egiturari buruzko egia da filosofiako egia; fedezko egia, ordea, norbere azken axolaren egia. Orain arte, bion harreman honek fedezko egiaren eta zientziako egiaren harremanaren antz-antzekoa ematen du. Badago, ordea, alderik eta hontantxe datza: filosofi arazoko azken galderaren eta erlijio axolako azken minaren artean badagoela berdinezkorik. Biotan bilatzen eta agertzen da azkena —burutapen bidez filosofian, sinbolu bidez erlijioan—. Azken baldingabeari buruzko burutapen egiazkotan datza filosofiako egia; fedezko egia, berriz, azken baldingabeari buruzko sinbolu egiazkotan. Egia bien harremanaren arazoa da, bada, hemen aztertu behar dugun gaia.

Galdera hau sortuko da orduan ezpairik gabe: zergatik darabilzki filosofia burutapenak eta zergatik fedeak sinboluak, biak azken baldingabea berbera agertu nahi dutelarik? Eran-tzuna, jakina, azken baldingabearekiko harremana ez dela berbera bieran, hori da, jakina. Filosofiako harremana, absolutua agertzen den oinarritzko egituraren azalpena litzake, baina filosofaria bera absolutuagandik aldenduta dagoelarik. Fedezko harremana, ordea, fededunarentzat azken absolutuarekiko axolaren agerpena litzake,

eta fededuna absolutu horren baitan dela noski. Agiria eta oinarrizkoa da bien arteko aldea. Baina «litzake» adizkerak gogorarazten digun bezala, alde hori ez da gertatzen bere hortan filosofiazko eta fedezko *bizitzan*. Ezin gertatu ere, azken axolaz axolatutako gizakia bait da filosofaria, izkutuan nahiz agirian egon axola hori; eta pentsatu eta ulertu beharra duen gizakia bait da fededuna. Ez da, ordea, hau bizitzan hala gertatzen den zerbait eta kitto! Badu horrek ondorio-rik filosofariaren filosofi bizitzarako eta fededunaden fede bizitzarako.

Edozein filosofi sistema, saiakera edo idazki aztertzeak zera erakusten digu: filosofariak bere galderei ematen dien joera, eta erantzun mota batzuk nahiago izatea, bere jakin min moduak eta bere azken axolazko esperentzia moduak determinatzen dituztela. Historiazki esangura handiena izan duten filosofariek, gogamen indar handiena ezezik, azken baldingabearen —honen agerpenak argitzen dituzte horiek— esanahiarekiko axolarik adoretuenik ere azaltzen dute. Aski da Indiako eta Greziako filosofariez —ia ia guziez— eta Leibniz eta Spinoza-gandik Kant eta Hegel-ganainoko filosofari modernuez gogoratzea. Locke eta Hume-gandik hasita gaurko logikazko positibismora bitarteko filosofarien joera positibistak lege hortan ez dabilela ematen badu, zera hontaz gogoratu beharra dago: alegia, filosofari hauek giza ezagutzaren zenbait arazo berezi eta —batez ere gaurko egunez— zientziazko ezagutzaren mintzabide arazoen azterketa hartu zutela beren zeregin bakartzat. Benetan asmo bi-

dezkoa eta oso garrantzizkoa izanik ere, ez da hori filosofia, hitz hau aspalditik duen esanahian hartzen badugu.

Azken axolarekiko grina edukiaz batera, azken baldingabe hori munduko bilakaeretan nola agertzen den argiro eta kanpoaldetik barrundatzen saiatzen direnek eramaten dute aurrera filosofia, hitz honen esanahi jatorrean. Filosofiazko ideien osteko azken axola honek jartzen du ideia horietan fedezko egia. Filosofiaren munda-  
rekiko eta honen barnean gizonak duen tokiarekiko ikuskerak bateratu egiten ditu fedea eta buru lana. Filosofia ez da jakintza eta historia sortu direnetiko amaren sabela bakarrik; zientziatzko eta historiatzko lanen bat egitean beti dago filosofiazkorik ere. Filosofiazko ikuskera baten barnean ikusi izan dute eta ikusten dute fisikolari handiek berek ikertzen duten mundua. Hauen ikerkondeek ikuskera horixe egiztatzten badute ere, inoiz ere ez da hori fisikalarien ikerkondeen ondorena. Izaki guzien osotasunaren ikuskerak mugatzen du beti horien pentsakeraren ingurua. Hau honela delarik, bidezko da munduaren zientziatzko ikuskeran fedezkorik ere badagoela esatea. Jakintzalariek zuzen ari dira, bai, fedezko eta filosofiazko egiak beren ikerkondeetan eskurik sar ez dezan saiatzen direnean. Hein handi batez, egin daitekeena da hori; baina saialdi edo esperimentu babestuena eta zainduena ere ez da inoiz erabat «garbia» —hau da, ez dago esperimentu hortan eskuartzten duen zenbait eragile baztertzerik, miatzailea bera esaterako, eta esperimentuak argitu behar duen gal-

dera mota ere norbere interesak mugatzen du—. Filosofariaz genioena zientzilariaz ere esan beharra dago. Zientzi lanean ere gizona da zientzilaria, azken axolak oratua, eta munduaren munduaz galdetzen ari da, hots filosofiazko galdera jartzen.

Era berean historigilea ere, ohartuz nahiz ohargabe, filosofari bat da. Guziz garbi dago, historigileak, gertakariak idoro ondoren bete behar duen eginkizun guzia, historiazko eragileak balioztatzeari lotuta dagoela, bereziki gizonaren gizatasuna, honen askatasuna, honen erabakibidea, gizonak berez duenez gainetikoa, eta abar balioztatzeko moduari lotuta dagoela. Ez da horren nabaria, baina egia da baita ere, historiazko gertakariak idorotzean ere tartean daudela filosofiazko aurrezemanak. Berberau esan daiteke batez ere zera erakabitzeari buruz: *amen* bat baino aldi laburragotan gertatzen diren mila eta mila gertakaritan zeintzuk duten garrantzi historikoa erabakitzeari buruz, alegia. Areago oraindik, historigileak bere ezagutzaren iturriak eta berauen jatortasuna balioztatu beharra du; balioztatze hau, berriz, gizonaren gizatasuna nola adierazten den, horri lotuta dago. Azkenik, historiazko lan batek, historiazko gertakariak giza bizitzarako duten esanahiaz zeredozer, izkutuan nahiz agirian, esaten duenean, nabariak ditu bere filosofiazko aurrezemanak. Filosofian, berriz, beti dadukagu azken axola baten agerpidea; fedezkorik dadukagu orduan, historigileak gertakari hutsekiko duen grinak estalita badaduka ere fede hori.

Gogoeta hauek zera erakusten digute: Filosofia guzietan filosofiazko eta fedezko egiak batean daudela egon, berez ezberdinak izanagatik, eta esangura berezia duela batasun honek bai zientzilariaren bai historigilearen lanerako. Batasun honi *filosofiazko fedea* (1) deitu izan zaio. Okerbideratzekoa da izen hau, filosofiazko egia eta fedezko egia, biak nahasi egiten dituela ematen bait du. Areago, filosofiazko egia bakarra dela burutarazten duela ematen du izen horrek, hau da, «*philosophia perennis*» edo betiko filosofia delako hori. Filosofiazko galdera bakarrik da, ordea, betikoa, ez filosofiazko erantzunak. Ez dago filosofiazko federik, filosofiazkoaren eta fedezkoaren elkar adierazte etengabea besterik.

Filosofiazko egian fedezko egiarik dago. Eta fedezko egian ere bai filosofiazko egiarik. Azken pondu hau ikusteko, filosofiazko egiaren *burutapenezko* agerpideak eta fedezko egiaren *sinboluzko* egerpideak elkar alderatu beharra dadukagu. Filosofiazko burutapen gehienek, bada, mituzko arbasoak dituztela esan daiteke, eta mituzko sinbolu gehienek dutela burutapenezkorik; filosofi kontzientzia sortu orduko hazi eta heda daitezke eta hedatu behar dira mituetan diren burutapenezko hauek. Jainko ideiak izkutuan kokatuak ditu bizitza-, izpiritu-, batasun- eta ezberdintasun-burutapenak. *Adan-en bekatua* sinboluak berekin daramazki ideia hauek: gizonak be-

---

(1) Ikus Jaspers-en izen bereko liburua: *Filosofiazko fedea*.

rez duen gizatasuna, gizonak bere buruarekin duen burruka, gizona bere baitatik atera eta besceratazea. Erligio sinbolu guziak buruta-kizun di-relako, ez bestela izan daiteke «teo-logiarik» (2). Fede sinbolu guzien izkutuan filosofia bat dago. Fedeak ez du, ordea, filosofiako gogamena mugatzen, filosofiak norbere azken axolaren izakera determinatzen ez duen bezalaxe. Fede sinboluek ireki ditzakete, ireki, filosofiaren begiak munduaren zenbait tasun —bestela ezagutuko ez lituzkeenak— ikus ditzan. Baina fedeak ez du filosofi mota konkreturik agintzen, Platon-en, Aristotele-ren, Kant-en edo Humne-ren filosofiak berengotzat hartu eta erabili badituzte ere Elizek eta teologi sistemek. Fede sinboluen filosofiako ondorenak heda daitezke, baina fedezko egia eta filosofiako egia ez dute elkarrekiko aginpiderik.

## 5. — Fedezko egia eta honen ezagupideak

Nolatan mintza orduan fedezko egiari buruz, beste egia motaren baten bidez epaitzerik ez badago —zientziakoa, nahiz historiaakoa, nahiz filosofiakoa izan egia hori—?

Fedetik bertatik datorkigu erantzuna, hots,

---

(2) Teo-logia bi zatiz osaturiko hitza da: *Theos*=Jainko / *logia*=izti. Aurrenak *fede*-gaia adierazten du; bigarrenak, ordea, *zientzi*-gaia.



fedea azken axolaz axolatuta egotea izatetik. Axola konzeptuak berak bezalaxe, fedezko egiak ere bi alde ditu: *norbait* alde eta *zorbait* alde edo ojetibutasuna. Biotatik begira behar zaio fedezko egiari. Norbaitasunaren aldetik, azken axola *egoki eta zintzoki* agertzen badu fedeak, orduan fede hori egiazkoa dela esan behar da. Zorbaitasunaren aldetik, berriz, *benetan azkena eta baldingabea* baldin bada fedearen mamia, orduan fedea egiazkoa dela esan behar da. Lehenengo esakariaren arabera, sinbolu *jator* eta fede mota *jator* guzietan ezagutzen eta ematen da egia. Honetxek bihurtzen du legezko eta baita ulergarri ere erlijioaren historia, gizonaren azken axolaren historia bezala, toki askotan eta era askotara agertzen den sainduari gizonak ematen dioen erantzunaren historia bezala. Bigarren esakariak, berriz, *azkentasuna* ematen du egiazkotasunaren erizpide edo kriteriotzat: edozein erlijioaren historia epaitzen duen *azken* axola (epaitu bai, ez ukatuaz, ordea, baiezkoa eta ezezkoa emanaz baizik).

Fedeak egia baldin badu, azken axola bat *egoki* agertzen duen neurritan du. Hauxe esan nahi du fede agerpedearen *egokitasunak*: gizonaren erantzuna, ekintza, elkarbidea sortzeko eran azken axola bat agertzeko indarrik izatea. Hori egiteko gai diren sinboluek bizirik darraite. Baina mugatua da sinboluen bizitza. Gizonak azken baldingabearekiko duen harremana aldakorra da. Jainkozko irudiak ez du, orduan, gizonaren erantzunik sortzen, ez da orduan giza taldearen-

tzat sinbolu, eta gizona ekintzaratzeko indarra galtzen du. Garai batetan, edota toki batetan, giza talde batentzat fedezko egia agertzen zuen zenbait sinboluk orain antzinako fedea gogorazari besterik ez du egiten. Bere egia galdu du horrelako sinboluak, eta hildako sinbolurik berbiz daitekeen ala ez oraindik erabakigabeko hauzia da. Hil zaizkienentzat ez dira sinbolu horiek berbiztuko nonbait! Ikusgune hontatik gure fedearen historiari —geure garai hau barne— begiratzeko badiogu, fedezko egiaren ezagupidea fedea bera bizirik jarraitzen duenentz da. Hau ez da, jakina, erizpide zehatz bat, inolako jakintzazko zentzutan; baina erizpide erabilkorra da, igaroaldiari —bere sinbolu erabat hildakoen jarrioz eta guzi— erraz egokitzekoa. Orainaldiari egokitzea, ordea, ez da horren erraza, ez bait dago oraindik onartzen den sinbolu bat behin eta betiko hila dela esaterik. Lotan egon daiteke sinbolua, baina esnatzekoa izan.

*Benetan* azken baldingabea dena agertzea da fede sinbolu baten egiaren bigarren erizpidea. Beste hitzez, sasifede ez izatea fedea. Ezagupide honen argitan fedearen historia oso-osoa dago hauzipetan. Fede guzien argala sasifede bihurtzeko erraztasunean datza. Giza izpiritua —honela zioen Kalbinok— etengabe sasi-jainkoak sortzen diharduen langilea da. Fede mota guzietan esan daiteke berbera, eta kristautasun protestanteen fede mota guziak bilduak daudela uste izanik ere, sasi-federa okerbideratzeko arriskuan dago protestantismoa ere. Beste fede moten aurka erabili ohi duen erizpidea bere buruaren aurka ere erabili be-

har du protestantismoak. Fede mota guziek dute beren sinbolu zehatzei erabateko balioa emateko joera. Fedezko egia egia den jakiteko bidea, horregatik, berez bere burua ere ukatzen duen ala ez da. Azken baldingabea agertu ezezik, horren azkentasun eza ere agertzen duen sinbolua da egokiena. Honelako sinbolutan agertzen da kristautasuna, hots Kristoren gurutzean, eta hontanxe berezten da beste erlijio guzietatik. Jesus ezin zitekeen Kristo izan, bere Jesus izatea bere Kristo izateari opaldu gabe. Jesus Kristo bezala onartzea, baina Jesus gurutzatua onartzeke, sasigurtza modu bat da. Kristauaren azken axola ez da Jesus, gurutzatua agertu zaigun Kristo Jesus baizik. Sinbolu hau sortu duen gertakariak eman digu, kristautasunaren egia eta beste edozein erlijioen egia epaitu behar duen epaibidea. Fedezko egia hutsezin bakarra, azkena berbera baldingabeki ageri deneko bakarra, hauxe da: edozein fedezko egia baiezkoezeko hauzipetan dagoela.

Erizpide honek bidaturik kritikatu du protestantismoak Eliza erromatarra. Ez zituzten doktrina formalubideek, Erreforma garaian, Elizak elkarrengandik banatu, ez; inolako Elizak bere burua azken baldingabearen ordeztatzeko eskubiderik ez duelako printzipioaz bir-jabetzeak banatu zituen Elizak. Alderantziz, azken baldingabeak epaitzen du Elizaren egia. Era berean, protestantismoko Bibliaren inbestigalariak Idazteuneko mila literatur motak erakutsi ditu, eta ezin litekeela Idazteuna har, honek fedezko egia hu-

tsezina balu bezala (3). Ezagupide berbera erabili behar da erlijio- eta kultur-historia osoa epaitzeko. Bietatik du erizpide horrek: badu *baiezkoa* —fedezko egiarik onartzen du, fede hori historian zehar egoki agertu bada—, eta badu *ezezkoa* —ez du fedezko egia batere azken baldingabetzat onartzen, batenbatek norberarena bezala hartu eta eskuratu baldin badu fede hori. Erizpide hau eta printzipio protestantea bat direlako eta Kristoren gurutzean erizpide berori benetazkotu delako du kristautasun protestanteak bere gailentasuna.

---

(3) Tillichen aburuz, Idazteuna bera ez da fededunaren azken *axolagaia*, axola honen *sinbolua* edo agerpidea baizik. Eta sinbolu bezala, Biblia bera ere hauzipetan dago: berak ere baiezkoa eta ezezkoa ditu. (Itzultzailearen oharra).

## Fede biza

## Pentsabidea

### 1. — FEDEA ETA KEMENA

#### A) Teoriaz: Fede dinamikoa

##### a) Fedearen zihurtasuna eta zalantza:

— Gizonak federik izango badu, bere fedegaiarekin elkartuta egon behar du: hortik sortzen da fedearen zihurtasuna

— *Gizonak federik izango badu, bere fedegaiarengandik berezita eta aldentuta egon behar du: hortik sortzen da fedearen zalantza.*

b) *Zalantza eta kemen*:

— *Zalantza ez dago fedearen aurka*

— *Zalantza ukatuaz ez da fedea biez*  
*ta finkatzen*

— *kemenaren kemenaz zalantza hori fedean barneratzen da.*

*(Ohiturazko fedea ez da fede dinamikoa; ez da, hala ere, fede hila. Badu bere esana eta kontuan hartu behar da)*

B) *Bizitza eta gertatze*:

a) *Fede osoaren zalantza: teori*  
*az egiten den berezuntasuna —azken axola edo fedearen zihurtasunezkoa batetik eta azken axolaren agerpi*  
*dea edo fedearen zalantzazkoa bestetik— egi*  
*terik ez dago fededunaren bizitza. Agerpideei buruzko zalantza fede osoarekiko zalantza da.*

b) *Arriskua eta kemen*:

— *Zalantza osozko fede hori arrisku bat da fededunarentzat*

— *Arrisku hori azken axola bizitza konkretatzean sortzen da: konkretatze hortan sasifedezkorik sar daitekeelako. Arrisku hori hartzeko, kemen behar da.*

d) *Kemena eta Gurutzea:*

- *Kristo konkretu horretan sinestea sasifede bihur daiteke eta bihurtzen da; baina Kristo gurutzatuan dadukagu hori jakiteko erizpidea*
- *Gurutzean agertzen zaio gizonari nola Jainkoa gizonari eman zaion: nola gizonak bere fede konkretuan hutseginda ere, azken axola, Jainkoa, berekin, beregan duen beti*
- *Horixe da Kristauak fedea aitortzearen arriskua hartzeko kemenaren oinarria: Gurutzea.*

## 2. — FEDEA ETA NORBERE BATERAKUNTZA

a) *Fedea eta baterakuntza:*

- *Fedea da giza bizitza osoari zentzua ematen diona*
- *Fedean bateratzen dira gizonaren dimentsio guziak: fedea da gizonaren erdigunea*
- *Fedean gizonaren alde guziek hartzen dute esku:*
  - + *gorputzak: fedea grinatsua da, eta grinak gorputzean du oinarria: extasian edo extasirako asketikan*
  - + *inkontzienteak: honek mugatzen du sinboluen eta fede moten hautapena*
  - + *kontzienteak: fedea biltzen du gizonaren kontzientea eta honi batasuna*

eman; giza gogoa batzen duen edo-  
zereen oinarrian dago fedea

+ izpirituak: izpiritua da gizonaren bil-  
gunea.

b) *Fedea eta sendakuntza: desbateratuta dagoen  
gizona sendatzeko indarra du fedea:*

— *Fedearen indar sendatzailea ez da «fe-  
dearetiko osasuna» delakoa*

— *Bi elementu fedearen indar osatzailea  
neurtzeko:*

+ *fededunaren aldetik, indar horri bu-  
ruzko irekimena*

+ *fedearen aldetik, honen benetazkota-  
suna.*

*(Sasifedeak ere izan dezake indar  
sendatzailerik aldiko batean; baina  
fede hori porrokatzen denean gizo-  
naren gaitza eta desbaterakuntza  
okerragoa izaten da: neurosi eta psi-  
kosia sortuz sarritan).*

d) *Fede osatzailea eta beste osabideak:*

— *Fede sendatzailea gizon osoari dagokio, ez  
horren alderdi bati bakarrik*

— *«Magiazko» sendabidea*

— *Sendalaritza: gizonaren zati eta alde be-  
rezi bat gaisotzen denean erabili behar  
da*

— *Sendabideok ez daude elkarjoka, bakoi-  
tzak bere eginkizuna du.*



### 3. — FEDEA, MAITASUNA ETA EKINTZA

A) *Fedea eta maitasuna: fedea berez dago maitasunarekin eta ekintzarekin lotuta*

a) *Maitasuna:*

— *Fedean berezita dago gizona bere axolakizunetik: honekin bategiteko irrika da maitasuna*

— *Aldenduak elkartzeko indarra da maitasuna: Itun Zaharrean azken axolagaia eta maitasungai berbera dira.*

b) *Fedearen eta maitasunaren harremana:*

— *Fedea eta maitasuna banatzen direnean erlijioa galduta dago*

— *Ez dago maitasunik federik gabe?*

+ *bai, fedea dotrina sorta bat onartzea denean*

+ *ez, fedea azken axolaz axolatuta egotea bada*

— *Ez dago federik gabeko maitasunik, azken axolarik gabeko gizonik ez dagoelako.*

d) *Maitasun motak:*

— *Agape-a eta eros-a berezi izan dira kontrazkoak balira bezala*

— *Baina ez dira bi maitasun mota, edozein maitasunen bi elementu baizik*

— *Eros-a eta agape-a bategiten dituen maitasuna fedezkoa da.*

B) *Fedea eta ekintza:*

- *Fedeak berekin du maitasuna; ekintza da maitasunaren agerpidea*
- *Egintzetan ezagutzen da benetazko fedea, maitasunaren bitartez*
- *Ekintza moduak eta fede-maitasun moduak:*
  - + *azken axolagairekin bategin, asketikaren bidez: fede ontologikoa eta maitasun mistikazkoa (eros-a)*
  - + *gauzak eraberritu, hezikuntzaren bidez: fede morala eta etikazko maitasuna (agape-a).*

## 4. — FEDE ELKARTEA ETA HONEN AGERPIDEAK

- a) *Fedearen sinboluak eta elkartea: Fedearen sinboluetan begizkoak edo mituzkoak eta jardunezkoak edo rituzkoak izan daitezke:*

- *Fede elkartea ritu bidez eraikitzen da*
- *Fede elkarteak mituzko sinboluz azaltzen du bere burua.*

- b) *Fede bizitza eta elkarte bizitza:*

- *Ez dago fede bizitzarik elkarte bizitzarik gabe*
- *Ez dago elkarterik fede elkarterik ez da goenean:*
  - + *azaleko axolak oinarritzen duenean elkartea, igarokorra da hau*

+ azken axolak edo fedeak oinarrizten duenean elkartea, orduan da bene-tazko elkartea: azaleko zenbait hel-buru lortzen ez badu ere, elkarte hori ez da suntsituko.

d) *Sinboluak bai eta sinboluak ez:*

— *Ritua eta mitua sinbolu bezala hartu be-har dira, ez hitzez-hitz*

— *Literalismoaren kontra altxatzen dira mo-ralbide autonomua eta filosofia, rituak eta mituak ukatuaz*

— *moralbide autonomuak, rituen magia eta sakramentukeria ukatuaz, rituak eta sa-kramentuak baztertzean ez dadukate luza-roan jarraitzerik:*

+ *Protestantismoa sakramentukeriaren kontra jeiki zen*

+ *Baina sakramentuen esangura jatorra ere arbuia egin zuen*

+ *Gaur balio berri bat ematen die sa-kramentuei, sailduaren sinbolu be-zala*

— *Filosofiak mituaren literalismoa arbuia-tu. Baina mitua beharrezkoa du fedeak, bere sinbolu bezala.*

## 5. — FEDEAK ELKARREN BURUZ-BURU

a) *Fedeen arteko burruka:*

— *Fede diferentetek elkarrekiko igaropena*

*edo tolerantzia dute gaur. Baina bada salbuespenik, erlijiozko fedeen artean ere*

— *Fedean azken baldingabea eta honen agerpideak «batean» daude: orduan fedearen agerpideok ere azkentasun hortan parte hartzen dute, beste inolako federen agerpiderik ezin eramanaz...:*

+ *kristautasunak eta judaismoak horrela joka izan dute: eta mundua aldatu dute*

+ *mistizismoak, alderantziz, igarozalea da; baina ez du mundurik aldatuko*

— *Azken axolaren agerpidea oso benetan hartzen duten guziek dute igaroestu eta fanatiko izateko arriskua.*

b) *Fedeak elkarrekin konpontzeko:*

— *Fede bakoitzak bere azken axolaren azkentasuna aitortu behar du*

— *Fede bakoitzak bere agerpideen erlatibutasuna aitortu behar du.*

d) *Fede batetik bestera:*

— *Konbersio erak:*

+ *norbere azken axola biztu eta norbere atxikimendua sendotu*

+ *norbere usteak aldatu*

— *Nola jokatu:*

+ *fedearen agerpide konkretuak eztabaidagarriak dira: buruz aztertzeoak direnak aztertu egin behar dira*

+ azken axola ez da argudio kontua:  
konbersiorakoak onartu egin behar  
dira.

e) Fede orokor bakarrera...

— Hortarako azken axola bera eta honen  
agerpide konkretuak berezi behar dira:  
agerpideok erlatibuak eta baldinduak bait  
dira

— Kristoren Gurutzeak egiten du kristauta-  
suna mundu osoaren fede orokorra izate-  
ko gauza: Gurutzea bait du horrek bere  
burua kritikatzeko bidea.

## 1. — Fedea eta kemena

Orainarteko kapituluetan fedeari buruz esan dugun guzia, benetazko fede esperentziatik, zerbait bizia den fedetik, edo —metaforaz esanik— fede bizitzatik dator. Esperentzia horixe dugu gure azken kapitulu honen gaia. Fede *mamiaren* barne sokatiretan eta eskatimetan ezezik, fede *bizitzan* ere hortxe azaltzen da *fedearen dinamika*, eta, jakina, fede mamiari lotuta dago fede bizitza hori.

Federik dagoenean, baita sokatirarik eta tentsiorik ere: fededunaren eta honen azken axolaren artean; azken baldingabea *partzuer izan* beharraren eta azken baldingabetik *berezi eta aldentu* beharraren artean. *Oratu izatea* metafora hauxe erabili dugu azken axolazko esperentzia adierazteko. *Oratu izateak*, berriz, oratua bera eta oratzailea toki berean —nolabait esanaz— izan behar dutela adierazten du. Nork bere azken axolakizunean nolabait eskuartu gabe, ezin hortaz axolatuta egon. Honela inolako sinesmenik izango badu, sinesmen horren helburuan tarteko izan behar du gizonak. Aurretik azken baldingabearekiko esperentziarik izan ez badu gizonak, ez daduka azken hortan federik jartzerik. Mistikazko fede motak baieztatu du sendoen pondu hau. Hementxe datza fede modu horren egia; eta «fede hutsa» delakoaren inolako teologiak ezingo du gezurta (1). Jainkoa gizonagan agertzen ez bada, gizonak ez daduka Jainkoari buruz eta Jainkoaganako fedeari buruz galdetzerik. Ez dago, bada, federik *partzuergoarik gabe!*

Baina ez litzake fedea fede izanen, gizona azken baldingabe hortatik berezita eta aldentuta ez balego —hau da partzuergoaren bestaldea edo alderantzia—. Federik duena bere fede gaitik berezita eta aldentuta dago. Bestela eduki egingo luke, *berea* balitz bezala eduki fedegai hori. Zu-

---

(1) “Fede hutsa” delako horrek hauxe esan nahi du: sines-teko inolako oinarririk, inolako argi-izpirik ez izan arren ere, sinestea; Jainkoa erabat izkutatuta, urrunduta eta ixilduta egon arren, Jainko hori onartzea. (Itzultzailearen oharra).

zeneko zihurtasun gai izanen luke, ez fede gai, «-arren» atzizki aipatu hura ez litzake izanen fedean. Baina gizonaren egoerak, hots mugatua eta besteratua izateak, ez diote gizonari azken baldingabeen partzuergoarik izaten uzten, horren-gandik aldenduta ezean eta fedearen agintzari bat bezala ez bada. Nabari bihurtzen da hemen mistizismoaren muga: gizona nolakoa den eta nola dagoen azken funtsezkotik aldendua ahaztu egiten zaio mistizismoari. Ez dago, bada, federik *berezgoarik* gabe!

Partzuergoatik datorkio fedeari honen zihurtasuna; berezgoatik datorkio fedeari honen zalantza. Eta fedea fede izango bada biak ditu berezkoak eta izatezkoak. Batzutan zihurtasunak zalantza garaitzen du, baina ezin zalantza deusezta. Gaurko azpiratua biharko garailea izan daiteke. Bestela, orobata edo indiferentia izanen litzake zalantza hori. Fede bizitzan ez dago ez fede ez zalantza deuseztatzerik, bietako bat ia ia deusetara baldin badaiteke ere. Fede bizitza azken axolazko bizitza denez gero, eta gizakiak horrelako axola eta kezkarik gabe bizitzerik ez duenez gero, zera esan genezake: ez dagoela gizonaren gizonetik ez fedea eta ez zalantza kentzerik.

Fedea eta zalantza bata bestearen aurka jarri diren modutan, fedearen zihurtasun baketsuak zalantza osoa suntsituko balu bezala jo izan du arroska fededunak. Fede bizitzan, fedearen eta zalantzaren arteko eskatima kexagarrien gaisetarik, aurkitzen da baretasunik eta bakerik noski. Gi-



zaki guziek dute berezkoa eta bidezkoa bake eta baretasun hori lortzeko irrika. Baina bake hori lortu dutenek ere —hala saildu deritzaten kristauek edota fede sendoduntzat hartu direnek—, beti dute zalantzarik beren fedean, azpiratuta badadukate ere. Sainduen kondairek agertzen digutenez, seindutasuna handitzen den heinean indartzen da zirikaldi bezala zalantza ere sailduegan. Astindu ezineko fedea dutelakoan lasai bizi direnek, berriz, fariseismoa eta fanatismoa dituzte berek azpiratu duten zalantzaren ezagugarri nabarmena. Zalantza ez da azpiratuaz eta zanpatuaz garaitzen, kemenaren bidez baizik. Kemenak ez du zalantzarik denik ukatzen, baina bere mugatasunaren agerpide bezala barneratzen du zalantza hori eta azken axolaren mamia baieztatzen eta sendotzen. Kemenak ez du eztabaidatu ezineko konbenzimenduaren segurantziaren beharrik. Adibidez, norbere azken axolaren mamia Jesus, Kristo denez, baldin bada, fede hori ez da zalantzarik gabeko zihurtasunekoa, hutsegiteko arriskua duen kemen ausart baten gaia baizik. Indar guziz eta baietzaren baietzaz Jesus Kristoa dela aitortzen bada ere, aitortpena denez gero, beregan ditu kemena eta arriskua.

Guzi hau fede bizitzari buruz diogu, benetazko axola den fedeari buruz; ez, ordea, sokatirarik gabeko, zalantzarik gabeko eta kemenik gabeko *ohiturazko* fedeari buruz. Fede hau —eta elizkide askoren eta, orokorki hartuta, gizartearen fedea da horixe— liburu hontan azaldu dugun fede dinamikotik eta bizitik oso urruti dago. Azken axolazko esperentzia aspaldikoen hon-

dakin hila dela esan daiteke ohiturazko fede hori. Hila da, bai, baina berbiz daiteke. Izan ere, dinamiko ez den federik ere bizi da sinbolutan. Jatorrizko fedearen indarra mamituta dago oraindik sinbolu horietan. Horregatik, ez litzake gutietsi behar ohiturazko fedearen esana. Ez da benetazko fedea, ez da fede bizia (2); baina benetazko fede bihur daitekeen fedea da. Garrantzi berezia du honek gizonaren hezibiderako. Umeei eta nagusi heldugabeei fede sinbolu *eginak* eskuratu eta horiekin batera aurretiko belaunaldien fede biziaren agerpideak ematea ez da zentzugabekeria. Bide honen arriskua hauxe da, jakina: hezikuntzaren bitartez emaniko fede hori ohitura hutsezko joera gertatuko ote den, inoiz fede bizia bihurtzeke, alegia. Hala ere, eragozpen hau dela-ta, aurretik gauzaturiko sinbolurik emateko bildurrik bada, eta inork norbere bizitzaren zentzuari buruz galdetu artean itxoiten bada, fede bizitza indartsurik sor dezake joera horrek gizonagan, bai, baina baita hutsunea, zinismoa eta —honi aurka eginaz— sasiko azken axolaren bat ere sor dezake.

Fede biziak beregan du berarekiko zalantza, zalantza hau bere gain hartzeko kemena, eta kemen honen arriskua. Edozein fedetan dago zuzeneko zihurtasunezkorik ere, zalantzaren, keme-

---

(2) "Fede bizia", *fedearen* "dinamika"ren ideia inguruan ulertu behar da: fede bizia eta fede dinamikoa gauza berbera da, eta fede geldiaren kontrakoa; fede biziak ez du, beraz, teologia katolikoan duen esangura: hau da, karidaderik gabeko fedea. (Itzultzailearen oharra).

naren eta arriskuaren pean ez dagoen zihurtasuna, alegia: hots, axola baldingabea berbera. Grinaldian, larrialdian, etsialdian, extasian nabaitzen da axola hori. Baina ez da sekula mami zehatz eta konkretu batetan ezik nabaitzen. Mami zehatz batetan, mami horrekin eta mami horren bidez nabaitzen da azken axola, eta giza izpiritu aztertzaileak, ez beste edozerk, berez dezake buruz eta teoriaz. Buruzko berezkuntza horixe da, hain zuzen, liburu oso honen oinarria; horixe da, fedea azken axola bezala definitzeko bidea. Baina fede bizitzan bertan ez dago holako azterketarik eta berezkuntzarik. Horregatik, norbere azken axolaren mami konkretuari buruz zailtzarik izatea fede oso-osoarean aurka doa, eta kemenaren bidez finkatu behar du fedearen osoak bere burua.

Idea inguru hontan, *kemen* hitza erabiltzeak (ikus osoki azalduta, nere *The Courage to be* liburuan) ezplikazio beharra du, fedeari dagokionez batez ere. Hitz laburrez esanaz, fedearen arriskuarekin elkarlotuta dagoen fedeko osagarria da kemen. Ez dago fedearen ordezkemena jartzerik, ez, baina ezta kemenik gabe fedea azaltzerik ere. Mistikazko liburutan, fedezko egoera gainditzen duen maila bezala azaltzen da «Jainkoaren begiespena» edo kontenplazioa, geroko bizitzan, edo bizitza hontan noizbehinka bakarrik, gainditu ere. Gizonak, izaki guzien jainkozko hondoarekin oso-osorik bat-egitean, urruntar-tea garaitu egiten du, bere zihurtasun eza, zalantza, kemen eta arrisku eta guzi: mugagabeak bere baitan hartzen du mugatua; ez dago muga-

tua mugagabean suntsitua ez, baina ezta mugagabeagandik urrundua ere. Ez da, ordea, hau gizonaren egoera ohizkoa. Gizon mugatuaren egoera urrunduari fedea dagokio eta arriskuari kementa. Norbere azken axolaren mami zehatza da fedearen arriskua. Baina baliteke norbera azken axolaz minduta dadukana egiazko azkena ez izatea. Erlijiozko hitzetan esanaz, gerta daiteke sasifedezkorik norbere fedean izatea. Fedearen mami determinatzen duen norbere kasketaldia dela; edo tradizio zahartu bati lotzen gaituen gizarteko interesa dela; edo gizonaren azken axola agertzeko gauza ez den izaki bat dela —hala lehengo politeismoan eta oraingoan—; edo azken baldingabea norbere asmoetarako erabili nahi izatea dela —hala erlijio guzietako egintza eta otoitz magikoetan—; edo azkenaren ontzia azkenarekin berarekin nahastea dela... Fede mota guzietan egin ohi dena da hauxe, eta, Ebanjelioko lehen kondairetatik hasita, kristautasunaren arrisku etengabea horixe izan da. Laugarren Ebanjelioan aurkitzen dugu nahasketa horren aurkako protesta, Jesusen esaldi honetan: *Nigan sinesten duenak ez du nigan sinesten, ni bidali nauenarengan baizik*. Baina hortxe erori dira dogma klasikoa, liturgiak eta kristau jainkotiarren biza. Hala ere, kristauak izan dezake, izan, Jesusengan, Kristoa denez, bere fedea baieztatzeko kemenik. Badaki berak sasifedera okerbideratzerik gerta daitekeena eta nahitaez gertatzen dena dela; baina badaki, baita ere, Kristo berberaren irudian duela berori jainkoaizun edo idolutzat noiz hartzen duen jakiteko erizpidea: *gurutzea*.

Erizpide hontatik datorkigu kristautasunaren bihotz-bihotza den, eta Kristoganako fedea baieztatzeko kemenik izateko gai egin gaituen mezua eta berriona, hau da, Jainkoa eta gizona urruntzeko indarrak eta guziz ere, Jainkoak berak garaitzen duela bitarte hori. Urruntze indar horietako bat norbere fedea baieztatzeko kemena oztopatzen saiatzen den zalantza da. Honela izanik ere, gizonak baieztata eta finka dezake artean bere fedea, beste zihurtasun hau ematen baldin bazaio: alegia, bere fedeko arriskuan hutsegiteak ere ezin dezakeela azken baldingabeagandik urrun norbere fede ausartari axola zaiona. Fedearen baldingabeko mami bakarrari dagokion fedearen zihurtasun baldingabe bakarra hauxe da: azken baldingabearen aurrean beti hartzen ari garela eta inoiz ez ematen. Gu ez gara inoiz mugagabearen eta mugatuaren urruntarte mugagabea gure aldetik betetzeko gai. Hontatixe bakarrik izan dezakegu fedearen kemen hori. Hutsegitearen, okerbideratzearen, sasifedearren arriskua har dezakegu, bai, hutsegiteak gu, geuri baldingabeki axola zaigunarengandik urruntzeko indarrak ez du eta.

## 2. — Fedea eta norbere baterakuntza

Azkeneko gogoeta horrek erabakitzen du fedea eta norbere bizitzak duten harremana. Azken axolaz axolatuta egotea bada fedea, atariko axola guziak horren menpeko daude. Azken axolak beste axola guziei, eta norbere osoari horiekin batean, sakontasuna, norabidea eta batasun-

na ematen dizkie. Tasun hauk dituen gizonaren bizitza bateratuta, integratuta dago, eta nortasunaren indar bateratzailea fedea da. Honek ez luke zentzurik izanen —berriz esanaz— fedea oker ulertuko balitz, hau da, nabaritasun edo ebidentziarik gabeko ezagutza bezala ulertuko balitz.

Izakien alde guziekin eta nortasunaren alde guziekin elkartuta dago azken axola. Azken baldingabea beste gauza guzien albokoa da, eta baita guzien hondoa ere. Azken hori gauza guzien hondoa den bezala, azkenaren axola norbere bizitzaren erdigunea eta bateragunea da. Azken axolarik ez izatea erdigunerik ez izatea da. Honelako egoerara, ordea, hurbil liteke, bai, baina osorik bertaratu inoiz ere ez; izan ere, batere erdigunerik gabeko gizakiak bere gizonari emanen lioke bakea. Horregatik ezin onar azken axolarik gabeko edo federik gabeko gizonik denik ere.

Norbere bizitzaren alde guziak bateratzen ditu gizonaren erdiguneak: gorputza, inkontzientea, kontzientea, izpiritua. Giza gorputzaren kirio guziek, giza arimaren lehia guziek, giza izpiritua-  
ren arlo guziek hartzen dute esku sinesmenean. Gorputza, arima, izpiritua ez dira, ordea, gizonaren hiru *atal*. Gizonaren *dimentsioak* dira horiek, elkarbarnetuak beti; gizona batasuna da, izan ere, eta ez atalez egina. Fedea, beraz, ez da giza gogoaren gaia bakarrik edota arimarena bakarrik —arima gogoagandik eta gorputzagandik berezten bada, alegia—, edota gorputzarena («abere fedea» delako hori); norbere osoaren erdigu-

nean bilduaz, azken esangura eta garrantzia duen zerbaiteeruntz jotzea da fedea.

Axola grinatsua da azken axola; grina muga-gabezko axola. Grina ez da benetazkoa gorputzeko oinarririk gabe, izpirituzkoena bada ere grina hori. Sinesmen jator guzietan hartzen du esku gorputzak, grinaldia bait da fede jatorra. Eskuartu, ordea, era askotara har dezake esku gorputzak. Bai gorputzeko extasian eta bai izpirituzko extasira daraman asketikan har dezake parte gorputzak. Bere bizi indarrak beteaz nahiz bere bizi indarrak lotu eta hestutuaz, baigorputzak beti hartzen du esku sinesmenean. Berbera esan daiteke inkontzientearen oldarrei, buruz ere, giza «psic»-aren direlako sena horietaz. Hauetxek mugatzen dute sinboluen eta fede moten hautapena. Horregatik, fede elkarte guziak saiatzan dira elkar-kideen inkontzientea eratzen eta hezitzen, gazteen inkontzientea batez ere. Norbere oldar ohar-kabeen araberako sinbolu egokitan agertzen bada fedea, orduan giza oldarrak ez dira nahaspilatzen. Orduan ez dago oldarrak azpiratu beharrik, itxuraldatu edo «sublimatu» egin bait dira eta norbere egintza ohartuzkoekin bat-egiten dute. Fedeak zuzentzen du gizonaren bizitza ohar-tuzkoa ere, barne bilketarako bilgunea eta erdigunea ematen bait dio honi. Norbere kontzientearen etendurak dira gizon guzientzat norbere bizitzako buruausterik handienetakoak. Erdigunerik eta bilgunerik ez badu gizonak, bai inguruko munduaren ugariaren ugariak, bai giza izpituaren barne mugidak has dezakete giza nor-

tasunaren desbaterakuntza edo horren desbateratzea burutu. Giza gogoaren azken axola, ez besterik, izan daiteke horren erdigunea eta bilgunea. Fedeak gizonaren gogo bizitza biltzeko eta berari erdigune gailen bat emateko bide bat baino gehiago du: Izan daiteke eguneroko bizitza neurtzen duen araubidea; izan daiteke gogarte eta begiespen edo kontenplazio bidea; izan daiteke lan arruntari gogotsu ekitea edota asmo bati gogor heltzea edota beste gizakiren bati atxikitzea. Hauetako bakoitzean aurrezamana dago fedea; holako ezer egiterik ez litzake izanen fedetik gabe. Gizonaren izpirituzko eginkizuna, artezko kreabidea, jakintzazko ezagutza, etikazko hezibidea eta politikazko erakundea, guziak ohar-tuz edo oharkabe, azken axola baten agerpideak dira: axola horrek ematen die gizoni grinarik eta *eros* kreatzailerik; hondogabeko sakontasuna eta helburu batasuna gizonaren bizitzan jartzen dituzten grina eta *eros*-a, alegia.

Erakutsia dugu nola mugatzen eta biltzen dituen fedeak norbere bizitzaren alde guziak, nola eta zergatik duen bere indar bateratzaile hori. Honela fedeak nola izan behar lukeen azaldu dugu. Baina fedearen irudi hontan ez ditugu desbaterakuntza eta gaitza sortzen dituzten indarrak sartu: hauek makaltzen dute fedearen indar bateratzaile hori; horiek makaltzen dute, baita, indartsuen azaltzen den gizon sailduen fedearen indarra eta mistiko handi eta profeten fedearena ere. Erdizka bateratua besterik ez dago gizona eta bere neurrialde guzietan du desbateratzezkorik eta gaitzezkorik.



Fedearen indar bateratzaileak sendatzeko indarririk ere baduela esan daiteke. Esakari hau esplikatu egin behar da, ordea, fedearen eta sendakuntzaren harremana hizkeran eta bizitzan okerbideratu egiten da eta. Hizkeraren aldetik (eta gaiaren aldetik) fedearen indar bateratzailea eta delako «fedetiko osasuna» (*faith healing*) berezi behar dira. Besterengan edo norberegan dagoen indar osatzailetan buruz bilduaz, besterik edo norbera sendatu nahia da «fedetiko osasuna» —gaur esanahi hortan erabiltzen da esatera hori—. Horrelako indar osatzailearik bada izadian eta gizonagan, bai, eta indartuagotu ere egin daiteke gogartearen bidez. Indar magiko bat —hitz hau gutietsi gabe— erabiltzen dela esan daiteke; bada magia osatzailearik, hain zuzen ere, gizonen harremanetan eta bakoitzaren norberekiko harremanean. Egunero nabaitzen dugu; harregarria da gainera batzutan indar hori, horren tinkoa eta eragilea bait da. Baina ez litzake *fedea* hitza hortarako erabili behar, ez litzake azken axola baten indar bateratzailea beste horrekin nahasi behar.

Egoera konkretu batetan, nola dagoen *fedea* bera eta nola dagoen *fededuna*, halakoa da fedearen indar bateratzailea. *Fededunaren* aldetik, zeinen irekita dagoen hori fedearen indarrari buruz eta zeinen sakona eta grinatsua duen azken axola ikusi behar da. Irekimen horixe da erlijioak *grazia* deitzen duena. Eman du gizonak *grazia* hori eta ez daduka bere aldetik sortzerik. *Fedearen* aldetik, zeinen nagusitu dituen bere sasifedezkoak eta zeinen benetazkoa den

fedea bilatzen duen azken mugagabea ikusi behar da. Sasifedeak dinamika ezaguna du: oso baina oso grinatsua izan daiteke eta gizona integratzeko indar bateratzailerik ere izan dezake. Gizonaren nortasuna —horren arima, gorputz eta guzi— batera eta senda dezake sasifedeak. Politeismoko jainkoek, esaterako, indar osatzailerik erakutsi dute, erakutsi, ez magia gisakoa bakarrik, osabide jatorrik ere bai. Gure garaiko sasifedegai sekularrek ere —hala nazioak edota garaitzapenak— erakutsia dute indar osatzaile-rik, ez tribu gidari baten magiazko liluraren bidez, slogan edo deihots bat zabalduaz edo zerbait aginduaz bakarrik, ez; indar osatzailerik badu, baita, gizonaren bizitza beteaz ere, hau da, bizitza esakuratsu bihurtzeko gizonaren lehia betegabeak beteaz ere. Baina hestuegia da baterakuntza horren, integrazio horren, oinarria. Lehengo edo geroago porrokatu egiten da sasifedea, eta lehen baino okerragoa izaten da orduan gizonaren gaitza. Azken mugagabe bihurtu den elementu mugatuari beste elementu mugatuek erasotzen diote. Giza gogoia zatikatuta dago orduan, elementu horietako bakoitzak goi balioa baldin badu ere. Oldar oharkabeen erantzuna ez da luzatzen, ez: edo azpiratu, edo bestela nahas-mahasian lehertzen dira oldarrok. Giza gogoaren barnebiltza suntsitu, biltza gaiak bere erakarpena galdu duelako suntsitzen da. Izpirituzko kate bidea gero eta ezerezago eta hutsago azaldu, mugagabeak sakontasunik ematen ez dielako azaltzen da ezerezago eta hutsago. Zalantza eta etsipena garaitzeko gauza ez izanik, atsekabe bihurtzen zaio gizonari fede grina hori, eta askotan

neurosia eta psikosia erortzen da gizona bere ihesegin nahian. Orobatak edo indiferentziak baino indar handiagoa du sasifedeak gizona zatikatzeko, fedea delako, hain zuzen, eta baterakuntza igarokor bat sortzen duelako. Hauxe da fede mota okerbideratuen, sasifedeen arrisku bizia, eta horrexegatik da Izpiritu profetikoa, fedearen okerbideratze eta sasifede bihurtzearen aurka burrukatzen den Izpiritua batez ere.

Fedearen indar osatzaile honek galdera bat jartzen digu: zein harreman du horrek beste osabideekin? Aipatua dugu gizonak besterengan duen eragin magikoa: eta ez dugu aipatu oraindik sendalaritza, honen zientziazko aurrezemanak eta honen teknikabidea. Elkarrekin dabiltz osabide guziok eta ez luke horietako batek berak bakarrik duela baliorik pentsatu behar. Hala ere, teoriak muga genezaioke bakoitzari eginkizun berezi bat. Beharbada, norbere osoari dagokiola esan daiteke fedearen indar sendatzaile hori, ez dagoela gorputz-gogoen inolako gaitz bereziri lotuta, eta norbere bizitzako une guzietan duela eraginik, onerako eta okerrerako. Beste edozein osagintza-aren aurretik, berakin batera eta bere ondoren aurkitzen da fedeaen indarra. Baina berau bakarrik ez da aski nortasuna hedatzeko eta hazteko. Gizona, mugatuta eta besteratuta dagoelarik, ez da zerbait bateratu bat, zenbait elementu ezberdinetan etenda dago. Elementu hauetako bakoitza, beste elementuak osorik daudela ere, zatika eta ustel daiteke. Zenbait gorputz atal, esaterako, gaiso daiteke, izpirituzko ondoezik sortu gabe; eta giza gogoak gaiso daiteke, gorputza agi-

riz hondatu gabe ere. Zenbait izpirituzko gaitz tankeratan, neurosian batez ere, eta gorputzeko gaitz tankera ia guzietan, izpirituzko bizitzak oso sendo jarrai dezake eta baita sendoagotu ere egin daiteke. Horregatik, gizonaren osoaren elementu zehatz horiek, kanpoko nahiz barneko arrazoiengatik, desbateratuaz doazen guzietan, orduan erabili behar da sendalaritza eta midizina. Izpirituzko sendalaritzari nahiz gorputzezkoari dagokio esandako hori. Eta ez dago eskatimarik noski sendalaritza horien eta azken axolazko esperentziaren indar osatzailearen artean. Argi dago, baita ere, sendalaritzak ezin dezakeela norbere osoa berriz ere bateratu, ezta izpiritua sendatuaz ere. Fedeak bakarrik lor dezake hori. Osabide bion arteko sokatira suntsitu eginen litzake, bide biok beren eginkizun berezia eta beren muga bereziak ezagutuko balituzte. Orduan ez lukete hirugarren osabideari buruz kezkarik izanen, magia gisan indar osatzailetan gogobilduaz sendatzeari buruz, alegia. Onartu eginen lukete horren laguntza, horren muga handiak agirian jarriaz gainera.

Fede mota haina dira nortasun bateratutako giza motak. Bada, ordea, beste baterakuntza mota bat, beste integrazio mota bat: hau da, baterakuntza edo integrazio ezberdinen berezgarri *asko* biltzen duena. Honelako giza nortasuna sortu zuen aurren kristautasunak, eta behin eta berriro galdu izan da Elizaren historian zehar. Giza nortasun horren kera ezin daiteke fede ikusgunetik bakarrik azal: fede-maitasun, eta fede-ekintza arazoetara garamazki horrek.

### 3. — Fedea, maitasuna eta ekintza

Jainkoaren begitan zilegiztatzen edo justifikatzen gaituena, Jainkoaren beraren errukia dela eta ez gure ekintzak erakatsi zuelako, S. Paulori eraso zitzaionetik, askotara galdetu eta erantzun izan da fedea maitasunarekin eta ekintzarekin duen harremanari buruz. Galde-erantzunok esanahi oso ezberdina dute, nabaritasun edo ebidentziarik gabeko gauza batzutan sinestea bezala hartu fedea, ala azken minez axolatuta egotea bezala hartu. *Lehenengoan*, berez dator maitasun-ekintzek fedeari buruz lotura zuzenkorik dutenik ukatzea; *bigarrenean*, berriz, fedea barneko ditu maitasun-ekintzak, eta ezin daitezke fedetik ken. Fedea adierazten hainbeste okerbideratze izan arren, bigarren hori da erakatsi klasikoa eta jatorra, nahiz eta desegoki erakutsi izan sarritan.

Gizonari gauza bat azken minez axola izango bazaio, gauza horrena izan behar du *berez eta izatez gizon* horrek, eta gauza hortatik berezia eta aldendua egon behar du *bizitzez eta jardunez*. Ez dago federik, lehen ikusia dugu, gizonak Jainkoaren begiespen baketsua duenean. Baina badu, ordea, gizonak, horrelako begiespen bakesurik lortu ahal izanen ote duen axola eta kezka mugagaberik. Berezita eta aldenduta dauden elkartzea eskatzen du horrek aurrez; aldenduak elkarrarazten dituen, berriz, maitasuna da. Fede axola eta maitasun irrika gauza berbera dira: norbait zerbaitena izanik eta zerbait

hortatik besteratua egonik, zerbait horrekin berriz elkartzea eta batzea, alegia. Itun Zaharrean emaniko eta Jesusek finkaturiko agindu handian Jainkoa da azken axola gaia eta mugagabeko maitasun gaia. Hontatixe dator Jainkoarena denaganako, hots, lagun urkoarenganako nahiz norbereganako maitasuna. Horregatik, Idazteun osoan, *Jainkoanagako bildurrak* eta *Kristoganako maitasunak* determinatzen dute gizonenganako giza-bidea. Induismoan eta Budismoan, azken *Bata-ganako* (*the ultimate One*) fedea mugatzen du gizonaren besterenganako elkartasuna; *Bata-gandik* bait datoz gauza guziak eta Beregana itzultzen saiatzen dira. *Bata-gan*, guziok geren muin-muinean berdinak garela jakiteak, gauza guziekin berdintzeko gai bihurtu eta hortara behartu egiten gaitu. Ez da hau Idazteuneko maitasun burutakizuna: Idazteunean *norbaitzuen* artekoa da maitasuna, hemen, berriz, *zerbaitena* dela gizona, horretxekin elkartu nahia da maitasuna. Ez fede mota batean eta ez bestean, maitasuna eta ekintza ez dira fedea kanpoko zerbait jartzan —hala izango litzake fedea azken axola haina ez balitz—; baina azken axolaren osakiak dira maitasun-ekintzak. Fedea eta maitasuna beren artean berezi eta banatzea, erlijioa gaiztotzearen ondorioa da beti. Judaismoa ritu legezko erakunde bihurtu zenean, Indiako erlijioek magiazko sakramentalismora jo zutenean, Kristautasuna okerbideratze biotan erori zenean, eta dotrinazko legeria erantsiaz gainera, orduan fedea eta maitasunaren harreman hori beharzarri bilakatu zen jendearentzat, bai erlijio horietako jendearentzat bai erlijio horietakoak ez

zirenentzat, eta lagun askok erlijio gabeko etikarra jo zuen.

Fedea bera arbuiatuaz saiatu zen jende hori fede modu okerretatik ihesegiten. Baina hona hemen galdera: ba ahal dago, gero, maitasunik edo antzekorik federik gabe? Dotrinak onartu gabe ere bada maitasunik, hori bai; historiak, berriz, zera erakutsi du: maitasunaren aurkako makurkeria ikaragarrienak dotrinei itsumustuan eustearren bete direla. Grinatsuki onartu eta zainduriko dotrina sorta den fedea ez du maitasunik sortzen. Azken minez axolatuta egotea den fedea, ordea, bere barnean du maitasuna, hau da, berezita eta aldenduta daudenak berriz biltzeko irrika eta eskabidea.

Baina oraindik erantzun gabe dadukagu gure galdera: federik gabeko maitasunik ba ahal daiteke? Azken axolarik ez duen gizonak maite ahal dezake? Hona hemen egoki egin galdera. Erantzuna, jakina, hauxe da: azken axolarik gabeko gizonik ez dagoela, eta, beraz, fede gabekorik ere ez. Gizaki guziek beren baitan dute maitasuna, izkutuan bada ere; izaki guziek dute, izan ere, beren azken axolaren mamiarekin biltzeko irrikarik.

Baztertuak ditugu fedearen esanguraren okerbideratzeak. Era berean arbuiatu behar dira maitasunaren esanguraren okerbideratzeak, gure orrialde mugatu hauetan egiterik ez badago ere. Halabaina, horietako bat aipatu beharra dugu hemen bertan: hots, bihozkada hutstzat hartzea

maitasuna. Fedea bezalaxe, maitasun esperen-  
tziarekin lotuta dago sentipena ere. Diren guzien  
funtsezko eta hondoko indarra da maitasuna;  
gauza guziei, beren buruak gainezkatuaz, bes-  
teekin elkarrarazten die maitasunak; eta, beren  
muinean, gauza guzien hondo eta funtsarekin  
berarekin bilarazi eta elkarrarazi —aurretik hon-  
do eta funts hortatik berezita eta aldenduta egon  
eta guzi.

Zenbait maitasun mota ezberdin berezi izan  
dira, eta gerkerazko *Eros* maitasun mota, kris-  
tau *Agape* maitasun motaren aurka jarri. *Eros*-a  
horrela, beste lagun baten bidez norbere burua  
bete nahia litzake, *agape*-a, ordea, beste lagun  
baten alde norbere burua eskaini nahia. Baina  
ez dago honelako hautakizunik egiterik. *Maita-  
sun mota* direlakoak ez dira benetan *maitasuna-  
ren tasunak* besterik, elkabarnetuak, eta okerbi-  
deratzen direnean bakarrik burrukatzen direnak.  
Ez dago benetazko maitasunik *eros*-aren eta *aga-  
pe*-aren batasunik gabe. *Eros* gabeko *agape*-a lege  
moralarekiko menpekotasuna besterik ez da, be-  
rotasunik gabea, elkartasun irrikarik gabea,  
elkartasunik ernetzen ez duena. *Agape* gabeko  
*eros*-a, aldiz, irrirts nahaspila besterik ez da; *eros*  
hutsa duenak ez du onartzen, besteren norbere-  
tasuna eta beregaitasuna; besteri maitasuna ema-  
teko eta inoren maitasuna hartzeko gai dela ez  
du onartzen; besteak guzi hori eskatzen badio,  
ez dio eskatzeko eskubiderik ere ezagutzen. *Eros*-  
aren eta *agape*-aren batasuna denez maitasuna,  
fedezkoa da. Fedezkoagoa izan maitasuna, oso-  
kiago garaituko du fedea deabruzko eta sasife-



de bihurtzeko arriskua. Atariko axola bat azken axola bihurtzen duen sasifedea, beste atariko edo azaleko axola guzien aurka jartzen da eta bata bestearen kontrako axola eta interesak dituzten guzien arteko maitasunezko harremanei enbarazo egiten die. Fanatikoak, bere lehiakeria beste norbaiten aurka jartzen duelarik, ezin norbait hori maite izan. Fanatikoa da derrigorrez sasifedea. Atarikoa den zerbait barreneko eta azken bihurtzeraino jotzean sasifedeak, zalantzaz eta antsiz betetzen da; eta zalantza eta antsi horiek zapaldu eta azpiratu beharrean gertatzen da.

Ekintza da fedearen zuzeneko agerpidea. Teologariak aztertua dute nola eman dezakeen fedeak ekintzarik. Hona hemen erantzuna: fedeak berekin duelako maitasuna eta ekintza delako maitasunaren agerpidea. Maitasuna da fedearen eta egintzen arteko lokarria. Erreformalariak, salbamena fedetik bakarrik zetorrela uste izanik, egintzak salbamena lortzeko beharrezkoak direla erakusten zuen Eliza erromatarra gaitzetsi zutenean, zuzen zebiltzen, bai, gizonon egintzak gu Jainkoarekin berriz elkartzeko eragipenik dutenik ukatzean. Jainkoak bakarrik beregana deza-ke beregandik aldegin duena. Baina Erreformalariak zera hontaz ez ziren konturatu, eta katolikoak artean erdizka baina, baziren horren jabe: hots, maitasuna fedearen elementu bat dela, azken axolatzat hartzen bada fedea. Fedeak berekin du maitasuna, maitasuna egintzetan bizi da: beraz, egintzetan bihurtzen da fedea benetazko fede. Azken axolarik dagoenean, norbere axo-

la horren mamia benetan mamitzeko irrika gartsurik ere bada. Axolak bere-berezkoa du ekintzarako joera. Ekintza modua fede motari lotuta dago, hori bai. Goruntz eragiten dio gizonari fede mota ontologikoak, izakien arteko berezkuntza eta bitartea eta aldea gaindituaz. Etikazko fede motak, ordea, besteratuta dauden izakiak eraberritu eragiten dio gizonari. Bietan ari da lanean maitasuna. Lehenengoan, maitasunaren *eros*-tasunak maitearekin bategin eragiten dio gizonari: maitale-maiteen haruzkaldean batu, hain zuzen ere. Bigarrenean, maitasunaren *agape*-tasunak, berriz, maitea onartu eta honen izakizuna benetazko izana bihurrarazten dio gizonari. Mistikazko maitasunak nork bere burua ukatuaz sortzen du batasuna. Etikazko maitasunak, aldiz, nork bere burua baieztatuaz eta finkatuaz sortzen du eraberrikuntza. Mistikazko maitasunari dagokion ekintza asketika da batez ere. Etikazko maitasunari dagokion ekintza, berriz, hezikuntza da batez ere. Biotan, fedeak mugatzen ditu bai maitasun mota eta bai ekintza mota.

Fedearen oinarrizko polarte bat azaltzeko zenbait adibide dira hauk. Beste mila adibide eman daiteke. Lutero-k norbere barkapenean duen fedeak Kalbino-k Jainkoaren ohorean duen fedeak baino eragin makalagoa du gizarte ekintzarako. Hezikuntza orokorra eta demokrazia lortzeko, jatorrizko bekatua eta izadiaren deabruzko egiturak sinesten dituen kristau fede tradizionala baino egokiagoa da gizona berez arrazoimenduna dela sinesten duen fede gizatiarra. Eliza Jainkoaren eta gizonaren *bitarteko* dela sinesten duen

fedea katolikoak baino giza-nortasun autonomu gehiago ematen du, gizonak Jainkoa aurkitu, norbaitek-norbait bezala eta *zuzenean* aurkitzen duela Jainkoa sinesten duen fede protestanteak. Fedeak, gizona azkenaren minez axolatuta egotea denez, berekin du maitasuna eta berak mugatzen du ekintza. Maitasunaren eta ekintzaren osteko azken baldingabearen indarra da fedea.

#### 4. — Fede elkarteak eta honen agerpideak

Fedea zer den azaltzean, fede elkartean bakarrik, edo zehazkiago, fede hizkerazko elkartasunean bakarrik dela benetazko fedea erakutsi dugu. Maitasun-fedeei buruzko solasak ere bide beretik zuzendu gaitu: fedearekin batera doa maitasuna, hau da, berezita eta aldenduta daudenak berriz biltzeko irrika hori. Elkarte kontu bihurtzen du honek fedea. Labur esan, fedea ekintza eragiten duenez gero eta ekintzak elkarte aurrez eskatzen, ekintza-elkarte barnean besterik izan benetazkoa azken axolazko esperentzia edo fedea.

Hortatik fede-zalantzei buruz sortzen diren arazoak aztertutik ditugu. Baina azterketa honek ikutzen zituen kredozko agerpideak ez dira hain garrantzizkoak; azken axolaren agerpide funtsezkoagorik bada fede elkartean. Lehen ikusi bezala, azken axolaren agerpide guztiak sinboluzkoak dira, azken baldingabea ezin liteke ez-sinboluzko hitzez ager eta. Baina sinboluzko agerkerak nagusi bi berezi behar dira: *begizkoa* (*intuitive*)

eta *jardunezkoa* (*active*); aspaldiko hitzez esanaz: mituzkoa eta rituzkoa. Rituzko sinbolu bidez eraikitzen du fede elkarteak bere burua eta mituzko sinboluz adierazi. Elkarlotuak daude biok: Ritutan betetzen dena mitutan irudizkatzen da, eta alderantziz. Ez dago federik bi agerkeria haue-  
tan agertzen ez denik. Nazioa edo garaitzapena bada fede mamia, honekin lotuta daude rituak eta mituak. Ongi ezaguna da gizarte erakunde absolutistek ritukizun sorta oso landua izan ohi dutena, eta baita begizko edo mituzko sinboluen kontrol zorrotza ere; nahiz eta zentzugabeak izan, hauek agertzen dute erakunde osoak bere oinarri duen fedea. Ritukizunetan eta begizko sinbolutan agertzen du bere burua gizarte absolutistak; erlijio talde absolutista batek bere burua agertzen duen antze-antzeratsu, hain zuzen ere. Hala ere, erlijio jator guzietan sortzen da sasielementuen kontrako protestarik; politikazko totalitarismoak, ordea, sasielementu guziok onartzen ditu.

Fede elkarteko bizitza da fede bizitza: ez elkartezko eginkizun eta iztituzioak dira bakarrik elkartekoak, baita elkarkideen barne bizitza ere elkarte bizitza da. Fede elkartearen ekintza uztea ez da derrigorrez elkartea bera uztea. Elkar-te bizitza zuzentzen duen izpiritua sendotzeko bidea izan daiteke hori (norbait bere gogoz elkartetik aldentzen denean, esate baterako). Maiz, aldiko baterako elkartea utzi duena berriz itzultzen da, elkartearen hizkera mintzatuaz oraindik eta horren sinboluak berriztuaz. Izan ere, ez dago fede bizitzarik, ezta mistikazko bakar-

tasunean ere, fede elkarteko bizitza ez denik. Areago, ez dago elkarterik *fede elkarterik* ez dagoenean. Badira, bai, elkarrekiko irabaziak edo interesak loturiko taldeak, irabazi horrek irauten dueneraino batasunari eusten diotenak. Badira, bai, berez hazitako taldeak, familiak eta tribuak bezala, eta horien bizi baldintzak suntsitzen direnean berez hilgo direnak. Bi talde mota horietan ez bata eta ez bestea dira fede elkarteak. Nahiz berez sortu talde bat, nahiz elkarrekiko irabazia tarteko dela, beti talde igarokorra da. Teknikazko edota biologiazko bizi-baldintzak suntsitzen zaizkienean amaia jo behar. Fede elkartean, ordea, baldintza horiek ez dira erabatekoak eta nahi-ta-nahiezkoak; fedearen bizitasuna da fede elkarteak iraun dezan baldintza bakarra. Bere oinarria azken axola duen elkarteak ez du azaleko axolek eta hauk ez burutzeak hondatuko duten arriskurik. Judutarren historia da esakari honen egiztabiderik harrigarriena. Judutarrak dira, gizadiaren historian, fedearen azkentasunaren eta baldingabetasunaren agiria.

Ez dago fedearen agerpide rituzko edo kultuzkorik (3) ez mituzkorik adierazterik hauen sinbolutasuna ulertu ezean. Literalismoaren ondorio okertzaileak erakusten saiatuak gara, eta sarritan zera gertatzen da: literalismoari aurka egitearren, mituari eta kultuari berberei erasotzen zaie, fede elkartetik ia baztertzeraino. Mi-

---

(3) Idazleak "cultural" esaten du; baina imprimategiko okerra deritzagu. "Cultural" esan behar duela uste dugu. (Itzultzailearen oharra).

turaren ordez erlijioaren filosofia jartzen da, kultuaren ordez moralezko eskabide sorta jartzen da. Egoera honek aldiko batean irautea daitekeena da, bai, jatorrizko fedea artean eragilea duelako. Fedearen agerpideak ukatzean ere ez da fedea bera ukatzen —lehenengotik bederen ez—. Hona hemen zergatik jo dezakeen norbaitek erlijiorik gabeko moralbide bikainera eta zergatik saia daitekeen fedearen eta moralaren elkarlotura ukatzen. Baina badu muga bat jokabide honek. Azken axolaren bat oinarriztatuz ez duen moralezko erakunde oro gizartezko eskabideei egokitzeko bide, ez besterik, bihurtzen da, azken baldingabearen aldetik bidezkoak izan ala ez eskabide horiek. Hontara fede jatorraren berezgarri den grina mugagabea suntsitu egiten da eta sasifede baten eraso grinatsuak eramateko gauza ez den taxumen burutsu batez ordezkatu. Hein handi batez, hauxe da Mendebaleko zibilizazioan gertatu dena. Honetxe bakarrik estaltzen du zibilizazio honi gertatu zaion hori: alegia, fede gizatiarraren aurkeztzaile askoren moralezko sendotasuna, erlijio elkarte bizi bateko elkarkideena baino handiagoa izateak lehen eta orain. Joankorra da, ordea, egoera hau. Badute oraindik federik gizon horiek, badute giza duintasunarekiko eta norbere betekuntzarekiko azken axolarik. Badute erlijiozko muinik; baina datorren belaunaldiak gal dezake, galdu, muin hori, fedea eraberritzen ez bada. Eta eraberritze hau fede elkartean bakarrik egin daiteke, mituzko eta rituzko sinboluen eraginaren eragin etengabeaz.

Moralbide autonomuek beren erlijiozko sustriaien kontra jotzearen zioetako bat, erlijioaren historian —kristau elizen historian ere bai— sinbolu-mituek hartu izan duten esangura okerra da. Fedearen rituzko sinboluak magiazko bihurtu izan dira, fisikazko indar moduko eragipenaren antzekorik balute bezala, sinesmenez norbere azken axolaren agerpide bezala onartzen ez badira ere. Indar sagaratu beteak daude rituhoriek: ekinean ari den indarra, gizonak aurka egiten ez badio. Sakramentuen sineskeriazko adierazkera honek humanisten kontrajoera sortzen du eta erlijio gabeko moralezko helburua eragiten die. Sakramentuzko sineskeria arbuiatzea izan zen Protestanteen protestagai nagusienetakoa. Baina Protestantismo historiazkoak bere protestaz rituzko sineskeria ezezik, rituzko eta sakramentuzko sinboluen esangura jatorra ere haizatu egin zuen. Honela, gogoz kontra, moralbide autonomuari bidea ireki dio Protestantismoak. Baina fedeak ezin iraun bizirik, fede agerpidetik gabe eta norberak hontan esku-artu ezean. Hau hautemateak kultuari eta sakramentuei balio berri bat emanarazi dio protestantismoari gure garai hontan. Saindua bertako bezala nabaitzeko sinbolurik ezean, suntsitu egiten da saindu esperentzia.

Berbera esan daiteke norbere azken axolaren mituzko agerpidez. Hitzez-hitz hartuaz gero mitua, filosofiak arbuiatu egin behar zentzurik gabeko bailitza. Kondaira sagaratuak desmitatu egin behar ditu filosofiak, erlijio filosofia eta azkenik erlijio gabeko filosofia bihurtu behar du,

orduan, mitua. Azken axolaren sinboluzko agerpi-de bezala adierazten bada, ordea, mitua, erlijio elkarte ororen sorkari funtsezkoa da orduan. Ezin bere ordez filosofiarik edo moralbide araudi edo kodigorik jarri. Rituak eta mituak bizirik gordezten dute fedea. Ez dago inor ere erabat ritu eta mitu gaberik; ez dago inor ere erabat azken axolarik gabe eta. Gutik ulertzen du horien esangura eta horien indarra, fede bizitza horiei lotuta egon arren. Beroiek agertzen dute elkarte baten fedea eta beroiek sortzen dute fedea elkarkideengan. Horiek gabe, horiek erabili ohi dituzten elkartetik gabe, suntsitu eginen litzake fedea eta izkutatutuz gizonaren azken axola. Moralbide autonomuen garai laburra etorriko litzake orduan.

## 5. — Fedeak elkarren buruz-buru

Fede elkarte asko dago, erlijio barrutian ezezik kultura sekularrean ere bai. Gure garaiko mundu hontan fede elkarte gehienek dute harremanik eta elkarrekiko tolerantziaz jokatzten dute gehienbat. Baina badira salbuespen garrantzidun batzuk; gehienak hazi eta hedatu eginen dira agian gure garaiko politika eta gizarte heresturen pean (4). Sekular-politikazko fede motak dira batez ere salbuespenok. Horien artean, totalitariorik ezezik, badago demokratikorik ere, besteen

---

(4) Gogoan izan behar dugu Tillichek 1957an idazten zuela liburu hau: urte luzetako esperentzia latza bizita gero. Baina oraindik garai hortan gaudela esango genuke. (Itzul-tzailearen oharra).



aurka eta haiengandik ihesegitearren sortuak, hain zuzen. Baina bada salbuespenik erlijio barrutian ere: Eliza erromatarrek bera bakarrik dela egiaren jabe ofizialki erakastea; fundamentalismo protestanteak beste edozein kristautasun eta erlijio modu gaitzestea. Igaropen edo tolerantziarik eza fedearen berezgarri izatea erraz ulertzekoa da. Azken minez axolatuta egotea bada fedea, eta azken axola orok agerpide zehatzetan agertu behar baldin badu, azken axolaren sinbolu bereziak azken axola horren azkentasunean esku du. Horren baldingabetasunean eskuartzan du sinboluak, bera baldinpetua bada ere. Hauxe da sasi-fedearen iturburua eta hauxe igaropen ezaren jatorria ere. Azken axolaren agerpide batek beste agerpide guziak ukatzen ditu. Ia ezinbestekoz, sasiagerpide eta deabruzko bihurtzen da fedearen agerpidea. Beren azken axolaren agerpide zehatza *bene-benetan* hartu duten erlijio guziei gertatu zaie hori. Berbera gertatu zaio kristautasunari ere, Gurutze sinboluak edozein erlijio konkreturi —kristautasunari ere bai— bere burua azken baldingabetzat hartzea debekatzen badio ere. Mistizismo klasikoaren aldea hontantxe datza: norbere azken axolaren agerpide zehatza benetan ez hartzean, eta, beraz, erlijio orok oinarri duen sinbolu zehatzen sorta gutietsi ahal izatean. Azken axolaren agerpide konkretuekiko orobata edo indiferentzia hori igarozalea da, bai, baina ez du izakien bizitzako okerbideak zuzentzeko indarrik. Judaismoak eta kristautasunak historiaren Jainkoaren izenean aldatzen dute mundu. Profeten monoteismo bakarrikako edo eksklusibista, paganismoaren jainko mugatuen kon-

trako horien burruka, Itun Zaharreko justizia orokorrezko eta Itun Berriko grazia orokorrezko mezua... guzi honek edozein sasifederi buruz igaroestu edo intolerante bihurtu zituen Judaismoa, Islamismoa eta Kristautasuna. Justiziazko, historiako eta azken-itxaropenezko erlijio hauek ez zedukaten Indiako mistikazko igaropena onartzerik. Igaroestu dira horiek eta lehiakerian eta sasifedean eror daitezke, erori. Hauxe da Profeten monoteismo bakarrikakoaren eta mistikoen monoteismo trazendentearen arteko aldea.

Hona hemen galdera: norbere fedeak beste fede bat aurkitzen duenean, beste horri buruz eritzirik emateko erizpiderik gabe eta igarozale izan behar ahal dugu ala norbere fedea kritikatuz gabe besteari buruz igaroestu izan behar? Fedea azken minez axolatuta egotea bada, gauditua dago hautabehar hori. Izan ere, fede guziek, agertu nahi duten azken baldingabearen azkentasun horixe dute erizpide. Eta fede guziek beren agerpide-sinbolu konkretuen erlatibutasuna hautematea dute beren buruak kritikatzeko bidea.

Hontatik uler daiteke onbideratzearen esanahia. Onbideratze edo konbersio hitzak badu erabilgaitz bihurtzen duen zenbait adi-eraskin. Norbait azken axolarik gabe izan (edo, zehazkiago, izkutuan izan), eta azken axola hori biztea eta agirira eta oharmenera ekartzea adieraz dezake konbersioak. Hau esan nahi baldin badu, izpirituzko esperentzia oro onbideratze esperentzia da.

Ustekizun sorta batetatik bestetara aldatzea ere adieraz dezake, ordea, konbersioak. Konbersioa ez da orduan azken axolazkoa. Gerta daiteke, edo ez gerta, azken axolazko konbersiorik bigarren konbersio mota hontan. Ustekizun berrian zaharrean baino obeto gordetzen bada azken axolaren azkentasuna, orduan bakarrik da importantea konbersio hori: honela bada, orduan oso garrantzizkoa da konbersioa.

Bi fede moten elkar topatzean garrantzitsuenan, Mendebaleko munduan, kristautasunak eta sineskera sekularrak elkar aurkitzea izan da. Sekularismoa ez dago inoiz azken axolarik gabe; beraz, horrekin topo egitea fede batek beste fede batekin topo egitea da. Honelakoetan bi joera dira egokiak eta bi ez dira egokiak. Hauetxek dira bi egokiak: aurrena, bi fedeen arteko eskatima hortan azterkizun diren guziak metoduz aztertzea, eta, bigarrena, bi fedeen arteko eskatima hortan konbersiora bultzatzen gaituen elementuak onartu eta aitortzea. Bi bide hauk batera eramatea da jokaera egokia, bi fedek elkar aurkitzean. Azken axola bera ez dela argudio kontua ezagutzen du jokaera honek, eta axola horren agerpidetan ezagutza maila hutsean eztabaidatzekoak badirela onartzen du era berean. Fede sinboluen burruka guzietan bide bikoitz hori erabili behar da. Fedearen agerpide zehatzei buruzko lehiakeria suntsitu egingo luke horrek eta azken axola norberak hortan parte hartzea dela baieztatuko. Onbideratzea ez da argudio gailenen kontua, norbere burua eskaintzea baizik.

Argudioena beste maila batetan datza. Fede batetik bestera lagun asko bihurtzen saiatzean mixiolariak, gizadi osoaren fede batasuna mamitzen saiatzen dira. Inork ezin egizta horrelako batasunik gizadiaren historiabide hontan lortuko denik; inork ezin gezurta ere batasun horixe dela garai guzietan eta toki guzietan gizadiaren gogoia eta itxaropena. Baina ez dago batasun hori iristeko biderik, azken axolaren azkentasuna bera eta azkentasun hori agertzen duen sinbolua berezi ezean. Profeten antzinako bidea da fede orokorrerako bidea: sasifedea sasifede deitzea eta benetan azken baldingabea dena gordezko sasifedea baztertzea, alegia. Fede horrek ez daduka sinbolu zehatz bakarretan agertzerik, erlijio handi guziek gizonaren fedea orokorki agertzeko sinbolu oro besarkatzaile bat bakarra emateko itxaropenik baldin badute ere. Itxaropen hau bidezkoa izango bada, erlijioak gogoan izan behar du bere sinboluak baldinpetuak direla eta ez azken baldingabeak. *Kristoren gurutze* sinboluan agertzen du Kristautasunak bere egoera hau. Hala ere, kristau Elizak sinbolu honen esanguraz ahazten dira sarritan, azken baldingabearen sinbolu eta agerpide dena azken baldingabea bera balitz bezala hartuaz. Kristautasunak sustrai-sustrai du bere burua kritikatzeko bidea; eta honetxek ematen dio erlijio orokorra izateko gaitasunik handiena; baina hartarako bere buruaren kritikari eutsi egin behar dio bere biziindar bezala.

**Federik izan ahal daiteke gaur?  
Beharrezkoa ahal da?**

Historiaren aro guzietan aurkitzen dugu benetan federik. Honela gertatzeak ez du egiztatzeko, ordea fedea berez denik izatekoa eta beharrezkoa. Sineskeria bezala, sinesmena ere izan zitekeen gizonaren egiazko gizatasunaren benetazko okerbideratze bat. Hauxe uste du erlijioa ukatzen duen hainbestek. Liburu honek sortzen duen gal-

dera hauxe da: ustekizun horrek fedea hautematea ala fedea oker ulertzea ote du bere sustraia? Eta hauxe da erantzun zehatza: fedea arbuia-tzeak fedearen oso oker ulertzea du bere sustraia. Fedearen ulerkera oker asko, irudizkera oker eta okerbideratze asko aztertua dugu. Burutakizun —eta «izatekizun»— oragaitza eta azalgaitza da fedea. Fedea azaltzeko erabili ohi diren —eta liburu honen orrialdeetan erabili ditugun— ia hitz guziak berriz ere okerki ulertze-koak dira. Ezinbestekoa da hau, fedea beste fenomenoan albokoa izan ezik, norbere bizitzako fenomeno erdikoa denez gero: agiria eta izkutu-une berean. Erlijiozkoa izanik, erlijioa gainditu egiten du fedea; orokorra izanik, zehatz eta konkretua da; oso baina oso aldakorra izanik, beti berbera da fedea. Gizonak berezkoa du fedea bere izankizunean eta, horregatik, beharrezkoa eta orokorra du bere izatean. Izatekoa eta beharrezkoa da gure garai hontan. Bere mui-  
nean den bezala, hots, azkenaren axola bezala hartzen bada fedea, jakintza modernuak edo inolako filosofi motak ezingo dio fedeari *azpia jan*; eta Eliza, sekta eta erlijio mugimenduen barneko eta kanpoko fede-okerbideratzeek ezingo dute *beztu* fedea. Fedea bera da fedearen *oinarri* eta berak *zuritzen* du bere burua, erasotzen dioten guziengandik; hauek fedeari, beste fede baten izenean ezik, ez bait dadukate erasotzerik. Hauxe da fedearen dinamikaren garaipena: fedea ukatzea ere fede baten, hots, azken axola baten, agerpide ezagugarri izatea.

## Tillich dela-ta

J. Arregi

### Bizitza: izankizun eta fedebide

Tillichen *Dynamics of Faith* liburuaren itzulpenari epilogo edo azken hitz bat jartzeko eskatu didate. Sarrera eta Tillich beraren liburua irakurriko dituzulakoan, ez noa ni orain Tillichen garrantziari buruz mintzatzera, ezta liburuaren laburpen bat egitera ere. Liburuak ez du konplikaziorik irakurtzeko eta Tillichen hizkera garbia da. Horregatik, lehen pondu honetan, Tillichen sinesmenari buruzko eritziek Euskal Herrirako izan dezaketen garrantzia lagur-labur aipatu besterik ez dut egingo.

### *Fedea osotasun bat da*

Hau da: gizon osoari dagokiona. Hau, printzipio beza-la, edonork onartzen duen gauza da. Sinesmena zerbait izatez gerotan eta gizonarentzat salbabide izan behar baldin badu, gizon osoari dagokiona izan behar du: adimenari dagokiona eta sentimenduari dagokiona, izpirituari eta gorputzari dagokiona, edo beste era batera esateko, banaketa ez oso egoki hori alde batera utzirik, izpirituzko eta gorputzezko gizonari dagokiona. Honek eragiten du, adibidez, erlijioaren eraketa sakramentalak.

Fedearen osotasun hau garai guzietan jakina izan da. Hala ere, beti da beharrezkoa gogoraraztea, garai bakoitzak gizonaren alderdi bat azpimarkatzen duelarik, sinesmena ere alderdi horri egokitzen bait zaio gehienbat. Garai bakoitzak gizonaren alderdi berri bat aurkitu uste izaten du (eta arrazoiz gehienetan), aurreko gizaldietan ahan-tzirik edo bazterturik zegoena. Aurkimen horietako bakoitzak sinesmena argi berritan jartzea eragiten du eta gal-datzen. Honek bi gauza erakusten digu: sinesmenak kulturarekiko duen harremana eta lotura aurrenik, eta kulturarekiko harremana menpetasun huts bihur ez dadin, sinesmenak bere osotasunera, gizonaren osotasunera, jo-tzeko duen beharra. Gizonaren menpetasunak – norgaltze edo alienazio ere esan daiteke – kultura bakoitzaren bar-ruan sortzen dira, kultura bakoitzak hartzen dituen era konkretuetan. Horregatik, azkenerako menperatzaile bihurtu den kulturaren barruan kontrakultura askatzaile bat sortzen da. Baina kultura berri hau ere gizonaren, gizartearen aukera batean oinarritzen denez, mugatua da; eta mugatua dena, azkenean, mugatzaile bilakatzen da. Muga-tzeak, berriz, muga horien barruan sartzen ez denaren menperatzea adierazten du.

Sinesmena kultura baten menpeko bilakatzen bada,



menperatzaile izatera iritsiko da (berdin lehendik ezarrita dagoen kultura baten menpeko, edo kultura horren barruan sor daitekeen edozein kontrakultura askatzaileraren menpeko). Sinesmenaren askatzaile izateko posibletasuna hontan datza: kultura batekiko harreman eta lotura iraunik, bere osotasuna gordetzen saiatuaz, gizonaren osotasuna gogoan izanik kultura jakin bakoitzeko mugak zailantzan eta krisian jartzean. Hau noski errealidade bat baino gehiago eginkizun bat da. Sinesmenaren osotasunak ez du esan nahi berez, esate baterako, kondairan zehar eliza katolikoaren barruan osatzen joan den dogma irakasketa guzia, beste zerbait baizik: sinesmenak gizonari bere – gizonaren – osotasun guzian dei egiten diola, bere alderdi eta behar guziak gogora araziaz, eta horrela bere mugak – gizonak bere buruari bere aukeraren bitartez ezarritako mugak – hautsi eta gaindiaz.

### *Fede faltsoak*

Tillichek, sinesmenaren azterketan, eguzki argitan jartzten ditu fede faltsoak. Edozein gizarte eta edozein garai egoten da fede faltsoz josirik. Gurean ere eta gaur egun horrelakorik ez da falta. Azken axolak eraginik azkenekoa ez den zerbaitetaz artegatzen garenean, fedea dugu eskuarte, eta fede faltsoa gainera. Fede faltsoa hontara iristea edonori gerta lekiokoen zerbait da. Sinesmen faltsoak bere alderdi onik badu: gizarte baten barruan azken axolarik badagoela adierazten du, sinesmenarentzat azken axolarik eza (nahiz faltsoa izan) baino okerragorik ez bait dago, hau da, ateismo pratikoa baino okerragorik. Baina sinesmen faltsoaren alderdi kaltegarria garrantzi handikoa da: azken faltso batetaz arduratzen dena – benetan eta berez azkena ez den zerbaitetaz azken axolaz artegatzen dena, beraz – morrontza gogor batetan erortzen da. Izan ere gizonak bere burua absolutuki – hau adierazi nahi bait du azken axola adierabideak – absolutua ez

baina mugatua –berak aukeratua delako– den zerbaiten menpeko egiten bait du fede faltsoan. Hau da gizonak ezagutu dezakeen menpetasunik gogorrena. Ponderu hau bukatzeko gauza bat oraindik: ez da ahaztu behar kristau sinesmena bera fede faltso bilakatu daitekeenik, horrela edozein gizarteko beste edozein ideologiaren pareko bihurtuaz.

### *Maila esistentzialekoa*

*Esistentzial* hitzak, honez gero, adiera asko bereganatu ditu. Tillichek fedea maila esistentzial batetan kokatzen duela diodanean, zera esan nahi dut: gizon bakoitzaren eguneroko bizitzaren barruan ulertzen duela sinesmena, baina ez giza bizitzaren azalean gelditurik, baizik eta gizon bakoitzak bere eguneroko bizitza nabaitzen eta hautematen duen *izatean*, izate honen betetasun eta izate honen beharrean. Errealidadean kokatutako sinesmen bat proposatzen du Tillichek, gizonak bizi duen errealidadean, gizonak *egiten* duen errealidadean, hau da, esperentzian. Gizona den izaki bat izanik, bere bizitza izatearen esperentzia bat da. Eta izatearen esperentzia hori da sinesmenaren errebelatze eta aurkitze lekua. Gizonak bere bizitzan egunero egiten du izatearen mugen esperentzia. Izatearen mugen esperentzia hau izatearen osotasunaren, izatearen ontasunaren eta izatearen zentzuaren mailetan gertatzen da. Esperentzi maila horietan gizonak Osotasuna, Ontasuna ta Zentzua bilatzen ditu, edota bilaketa honek, prosupositu honek eraginik bizitzen ditu gizonak bere izatearen mugatasuna, txarra eta zentzurik eza. Tillichen iritzian, gizaldietan zehar, gizonaren esperentzian maila haue-tako bat nagusitzen da, eta aurreneko ponduan aipatu dugun fedearen osotasuna ahaztu gabe, sinesmena besteen gaindi ageri den maila hortan errebelatzen da nagusiki eta maila hortan aurki daiteke.

Tillichek sinesmena esperentzi mailan kokatzen duela esan dugu. Horrela teologia protestantearen aspaldiko tradizio bat jarraitzen du. Tradizio honen barruan jartzen den edozein teologari problema berdinekin aurkitzen da eta arrisku berdinak jasan behar ditu. Hitz batez esateko, trazendentziaren problema edo inmanentziaren arriskua. Fedeak, jator izan nahi baldin badu, bi muturrei begira egon behar du: batetik gizatiarretik kanpora dagoenari begira, errebelazioari begira, eta bestetik gizatiar denaren barruan. Bi pondu hauek errespetatu behar ditu fedeak, fede faltso bilaka ez dadin. Etenbehar horri etendurarik gabe eustea errazagoa da esateko, egiteko baino. Eta eutsi, ez da hitzez bakarrik egin daitekeen zerbait, printzipio eta ekintza guzietan agertu beharrekoa baizik. Barthen postura ederra litzake, errazegia ez balitz, eta Jainko heriotzaren teologiarena ere bai, era berean errazegia ez balitz. Tillichen gisako teologia batek, sinesmenaren horrelako adierazpen batek, fedea giza esperentziaren menpeko egiteko arriskua du, giza ezagueraren menpeko. Orduan fedea zeharo kulturatua geldituko litzake, honek berekin dituen ondoren guziekin, aurreneko punduan esan dugunez. Horregatik Tillich giza esperentziaz mintzatzen denean, esperentzia honen barruan gertatzen den errebelazioaz mintzatzten da, eguneroko izatearen mugen esperentzian *Izate berriaren* itxaropenaz eta errebelatzeaz. Dialektika hori, etenbehar hori, zaila da bere hortan sistema baten barruan gordetzeko, etenbehar bezala eta ez jadanik etendako zerbait bezala. Batzutan garbiago azalduko da, beste batzutan ezkutaturik geldituko da, batzutan inmanentzia hutsean erori dela iduriko du, beste batzutan berriz, trazendentzia hutsean. Baina kristau sinesmenak berezkoa du muga hori, eta muga hori ukaturik guzia printzipio batetik erakarri nahi lukeenak, horrela batere kontradiziorik gabeko sistema bat eraiki ustetan, alferrikako lanetan dihardu, halafede.

### *Fedean gaiak du garrantzia, ez hitzak*

Tillichen lanetan erraz ikus daitekeen zerbait da hau: Tillichek *Jainko* hitza askotan baztertzen duela, honen ordez Jainkoaz inguru-miraka mintzatzeko. Hitza eta mamia edo gaia ezin daitezkeela nolana ere berezi, dudarik gabeko gauza da, Halaz ere, fedean gaiak duela garrantzia, eta ez hitzak, esateak badu sentidurik. Kristau sinesmenak badu gairik, eta mamirik, eta honek ematen dio kristau sinesmenari bere izaera berezia. Gai honek formula-keta bat baino gehiago izan ditu kondairan zehar, eta formulaketa guzi horiek pilotzen joan dira. Hitzak eta formulazioak gastatuaz joaten dira, beren jatorrizko adiera galtzen dute, kutsu arraroz betetzen dira, eta azkenean bete behar duten eginkizuna betetzeko gaitasuna galtzen dute, ez bait dute gehiago adiera garbirik; bikoitz, adiera askoko bilakatzen bait dira. Horregatik du sentidurik, fedearen gaiak du garrantzia, ez hitzak, esateak.

Askotan sinesmenari buruzko burrukak, fedearen aldeko burrukak hitzari buruzko eta hitzaren aldeko burruak dira. Eta burruka horietan gaia ahaztu egiten da. Tillichek horixe gogorarazi nahi digu: fedearen arazoan benetan garrantzia duena gaia behar bezala finkatzea eta bizitzea dela, mamia garbi artzea, eta hori dela teologiarren eginkizuna. Inork *Jainkoa* esaten badu, eta *Jainkoa* esaterakoan buruz ikas daitekeen egia mordoska batetan pentsatzen badu, horrek sinesmenaren mamia galdu du, nahiz *Jainkoa* hitzaren alde sutuki burrukatu. Horregatik mintzaten da Tillich Jainkoaz baino gehiago izate orokorraz, izatearen sakonaz, izatearen zentzuaz, izate berriaz.

Eta honek Tillichen teologian garrantzizkoa den gai batetara garamazki: sinboluetara. Fedeak gaur egun duen arazorik gogorrena hizkuntzaren arazoa da, hizkuntza sinboliko baten beharra. Sinesmenari hizkuntza zahartu egin zaiola esatea ez da ezer berria. Sinesmenaren hizkuntza

esaterakoan zera esan nahi da: gizaldi eta gizaldietatik datorkigun modu, ohitura, adierabide eta abar. Sinesmenaren gaiak, fedea, hizkuntza berri bat behar du, sinboluak behar ditu. Lehenagoko hizkuntza sinbolu izatetik tradiziozko egia, ohitura eta lege izatera iritsi da. Baina fedea ez da ohitura bat, ez egia mordoska bat, ez lege bilduma bat. Fedea, sakonean, bizitza da – bizitzaren batasuna, izate berria –, eta hori adierazteko hizkuntza sinbolikoa nahi eta nahiezkoa da. Adierabide berriak ezinbestekoak ditu sinesmenak. Ponderatu hau asko azpimarkatzen du Tillichek eta guretzat ere garrantzi handikoa izan daiteke. Ez dugu ezer egiten sinesmenaren alderdi eta joera politikoa aurkitzen baldin baditugu, baina azkenean, zaharkitutako adierabideetan itorri, sinesmena bera galtzen bada eta politika joera huts batetan gelditzen bagara. Gure erakundeak (Eliza sakramentu da, eta Eliza erakunde da. Erakundeak ere sakramentu izan behar du, hau da, sinbolu, eta zeren sinbolu, zeren adi-era-bide dira gure erakundeak gaur egun!), elizkizunek, ohiturek, hizkuntza sinboliko berri bat bilakatu behar dute, hau da, barru-barrutik berri beharrean daude, gainontzean eskuineko atetik nahiz ezkerreko atetik sinesmena isil-isilik joan egingen da.

## Teologiatik ere Euskal Herrira

Baina Tillich dela-ta eta Tillich buruz jarduteak beste zerbaitetan mintzatzeko aukera ematen du. Tillich izatearen pentsalari dugu, errealidadearen muina bilatzen duena. Errealidadea ezin daiteke gizonik gabe pentsa. Honek pentsamenduaren eta errealidadearen arteko oinarrizko batasuna ematen digu, nahiz batasun hori formulatzea egin-kizun benetan zaila izan. Errealidadea ez dagoela gizonik gabe pentsatzerik esan dugu. Baina gizona ez da errealidade hutsezko. Gizonak bere burua errealidadetik askatu egin du, neurri mugatu batetan noski, errealidadetik irten egin da gizona, errealidade pregizatiar hipotetiko batetik.

Hori dela-ta, errealidadea ez da gehiago naturaleza, izadi soil, kultura baizik. Errealidadea gizonik gabe pentsatu ezinak eragiten duen pentsamenduaren eta errealidadearen oinarrizko batasuna, batasun kulturala da beraz. Batasun kulturala, hauskorra beraz, aldakorra, era ezberdinak har ditzakeena, gizarte eta gizaldi bakoitzak berritzen duen zerbait. Batasun hori oinarrizko benetako batasun bat baino gehiago, batasun horren posibletasuna eta galdame-na (*exigencia*) da, eginkizun beraz, beti berriro egiten jardun beharrekoa.

Batasun honek izen desberdin asko izan ditzake eta era askotara izenda daiteke: filosofia, errealidadearen teoria, Jakintza, garai eta gizarte batek bere buruarekiko duen identitatea, egia, etab. Edonola izendatzen dela ere, kon-dairan zehar krisi gogorrak jasaten dituen zerbait da (gaztelaniaz *crisis de identidad* esaera ezaguna da, eta haurraren haziketari hori beti gertatzen da, bainan baita ere esan daiteke hori gizaldi bati buruz, herri eta gizarte bati buruz). Mendebaleko kulturarentzat gizaldi honen lehenengo erdia horrelako krisi garaietako bat izan dela dudan jartzerik ez dago. Hau ez da tokia krisi horren arrazoiak, bideak eta ondorenak aztertzen hasteko. Tillichek ordea, garai hori bizi izan zuen eta garai hortan osatu zuen bere pentsamendu lana. Krisi garai hortan Tillichek errealidadearen funtsa bilatu du, zentzua, izatea, errealidadea berpentsatzen ahalegindu da.

Pondu hontara iritsi nahi nuen: Tillichen pentsamendutik ikas dezakeguna ez da hainbat bere gogoetaren zenbait ondorio, gure bizitzan interesgarriak izan daitezkeenak – hauen garrantzia garbi dago –, gure eginkizunaz ondo jabetzea baizik. Gure eginkizunaz jabetu: gehiago zehaztu gabe eta orokor mintzatuaz honela adieraz dezakegu gure eginkizuna: errealidadea, gurea, berpentsatu, gure errealidadeari bere funtsa bilatu, zentzua, egia.

Hori esanda, ez da ezer berririk deskubritzen. Azken urteotan bat baino gehiago ahalegindu da eta ahalegintzen da hori egiten Euskal Herrian, zorte hobeto edo txarra goarekin, hortan ari dela jabetuz edo ohartzeko. Gure errealidadea berpentsatu beharra dago. Hori esatea errazago da egitea baino. Hala ere, eginkizun hau zertan dartzan laburki zerbait argitzen saiatu nahi nuke.

Gure errealidadea zer den aztertzen hasi baino lehen, alde zuzenik, gure errealidadea zeri deitzen diogun erabaki behar dela uste dut. Hori erabakitzeak arrisku eta eragozpen handiak ditu. Izan ere, gure herrian, gure gizartean jira-biraka jendearen onginahia berenganatu nahirik dabilzan ideologia eta teoria ezberdinak – errealidadearen interpretazio ezberdinak – alde zuzenik egindako errealidadearen erredukzio edo aukera batetan oinarritzen dira. Zer da beraz, berpentsatu behar dugun errealidadea?

Errealidade hori, eta lehen esan dugu zergatik, zuzenean hautematerik ez dadukagu. Beti ere, eta hau ere lehenago aipatu dugu, kulturaren bitartez iristen da guggana. Kultura hau, beraz, errealidadearen lehen interpretazio bat da, errealidadearen lehen aukera bat. Baina gehiengotan kultura aberatsa izan ohi da, hau da, kultura bakoitzaren barruan errealidadearen interpretazio bat baino gehiago bizi dira bata bestearen ondoan, bata bestearekin burrukan – zaharrak iraun nahian, eta berriak heuren lekua lortu nahian; eta zaharren eta baita berrien artean ere (zahar edo berri) jatorra izatearen dretxoak bakoitzak beretzat galdutzen duen hainbat eta hainbat interpretazio. Hauek guziek osatzen dute kultura – ez batzuk bai eta besteek ez –. Eta kultura osatzen dutelarik errealidadea ere bai, errealidadea kulturaren bakarrik hauteman dezakegunez. Hori da, beraz, berpentsatu behar duguna: gure ideologiak, gure teoriak, gure tradizioak, gure ohiturak, gure asmoak, itxaropenak, etsipenak, gure ezinak eta

ezin horien azalpenak, etab., guzi horrek osatzen bait du gure errealidadea.

Zergatik berpentsatu behar dugu gure errealidadea? Arrazoirik handienetako bat honako hau iruditzen zait: hori oharkabean egunero egiten delako, edo horrelako saiaerak gure herrian egiten hasi direlako, izen hori eman gabe, edo errealidadearen azalpen, interpretazio jator eta zuzen bakarra bezala aurkeztuaz. Errealidadearen interpretatzea egunero egiten den gauza da, baina gehienetan oharkabean. Eta ez oharkabean bakarrik, baizik eta egiten dena interpretazio bat dela jakinaren gainean egon gabe. Eta ez interpretazioaren jakinaren gainean egon gabe bakarrik, egiten dena errealidadearen hautemate zuzen eta jator bakarra balitz bezala baizik. Ez da esaten: nik diodan hau errealidadearen interpretazio posibleetako bat da, egokia dela deritzat eta gure etorkizuna antolatzeko bide jator bat, baizik eta honako hau esaten da: nire teoria hau da teoria bakarra, honek bakarrik hautematen du errealidadea den bezala, eta ez hautemate zuzen bakarra bakarrik, baizik eta nire teoria errealidadea da, eta ez interpretazio bat, errealidadea horrela da, kondaira horrela da, etorkizuna horrela izanen da.

Hori teori- edo ideologi mailan gerta daiteke, baina ez bakarrik. Ez dira teorikoak, ideologoak, eta *horrelako salsetan* dabiltenak bakarrik hori egiten dutenak (nahiz beroriek askotan hori uste). Gehienetan jarduketa hori bizi-baieztapen (*afirmación vital*) mailan gertatzen da.

Hortaz gainera, beste goragoko maila bat ere badago: interpretazio horien interpretatzea. (Ez naiz hitz jolasetan ari, edo ez nuke nahi behintzat). Hau esan nahi dut: gure arteko ideologiaren bat, edo ohituraren bat, pentsaeraren bat, tradizioaren bat, horrelako zerbait gure azterketaren gai egiten dugunean errealidadea edo honen zati bat berpentsatzen ari gara. Eta bigarren mailako jarduketa hau



ere askotan edo beti oharkabeen egiten dugu. Bainan oharkabeen egiten denez, ez da bigarren maila hori sekulan iristen, ez behar bezala, eta lehenengo mailarekin nahasturik gelditzen da. Eta bera nahasturik gelditzeaz gainera, ehundahalako nahaste-borrastea sortzen du. (Ohar-kabeen egiten dela esaterakoan hau esan nahi dut: ez noski ideologia bat kritikatzeko ari denak ez dakiela ideologia bat kritikatzeko ari denik, hori egiterakoan errealidadeari buruz betetzen duen eginkizunaz ez dela behar bezala jabetzen, eginkizun hori zein den ez dakielako, edo beste zerbaitegatik).

Zer esan nahi dut guzi honekin? Hau bakarrik: gizonaren ekintzarik larrienetako eta lehenenetako errealidadea interpretatzean datza, hau da, lehen esan dugunez, errealidadea osatzean. Hori ekintza bat da: kultura. Baina ekintza bat denez, giza ekintza guziak bezala, reflexio baten lagundurik joan behar du. Reflexio maila horri jakinaren gainean ekiten ez baldin bazaio, arriskuz jositako bide batetan ibiliko gara aurrerantzean ere, arriskuak hor daudela ikusi ere egin gabe, itsu moduan, Amerikak deskubritzen ari garelakoan, baina Asteasu non dagoen jakin gabe. Reflexio maila horri jakinaren gainean ekiten ez baldin bazaio modarik moda ibiliko gara, beti berriaren zai (edo guri berriena dela iruditzen zaigunaren zai, nahiz benetan ajeak jota egon), edo guzia esplikatu eta argi dezaigukeen teoria magikoren baten bila ibiliko gara, hizkuntzaren hizkuntzatasunaren metafisika desmitologizatu eta proletarioa eginaz, edo gure gaitz guzietatik askatuko gaituen heziketa berri eta modernu baten ametsetan. Reflexio maila hortara iristen ez bagara, gure errealidadea berpentsatzen ez badugu, gure itsutasuna argi dezakeen argi izpia bilatu nahirik gure iluntasuna ilundu besterik ez dugu egiten, metafisika idealista beldurgarri batetan eroririk (eta idealista diodanean, badakit saiaera guzi horiei idealista ez den beste edozein itsura ematen zaizela).

Izan ere – eta hemen ez dadukat hori demostratzeko astirik – honako hau iruditzen zait (irudimen bat da, berez, inpresio bat): guk bizi dugun egoera gogorra izanik, errealidadeak askotan gainditu ezinekoak izanik, mila teoria eta asmazio arrarotara jotzen dugula, errealidadetik ihes eginaz, eta errealidadea guk izatea nahi genukeena dela esanaz. Askotan inon ez dagoen errealidade bat asmatzen dugu, gizon abstraktu bat. Eta horrek ekintzarako efikazia guzia kentzen digu. Izan ere, errealidade naturalik ez badago ere, errealidade kulturala baizik – hau da, gizonaren interpretaziotik sortzen den errealidadea – errealidadea interpretatze lan hau burutzen duen gizona ez da ahalguztiduna (hortaz jabetzeko begiak irekitzea aski da), ez da izpiritu absolutu bat. (Absolutu adjetibu guziak idealismorik gaitzena salatzen dute beti). Gizonak errealidadea interpretatu egin behar du, baina ezin dezake errealidadea asma. Hori, etsipenaren menpean eta ezinak jota dagoenaren ihesbidea besterik ez da. Eta gure gaurko egoeran horrelakorik nahiko badagoela uste dut.

Horregatik, behar-beharrezkoa da gure egoera sakonki arakatzea, gure errealidadea berpentsatzea, ameskeriak utzita berriro errealidadera bihur gaitezen. Eta hori behar-beharrezkoa da interpretatze ekintzak, giza-ekintza guziak bezala, gogoeta lagun beharrezkoa duelako eta gogoeta hortan ikus daitekeelako gure interpretazioak benetan ekintza kultural bat diren ala ezinaren seinalea berekin darman idealismo huts, ameskeria eta iheskeria diren. Iheskeria, noski, era askotakoa izan daiteke, guziok dakigun bezala, eta era horietako bat egoskorkeria da, gauzak ez diren bezalakoak izan daitezen nahi izatea, ez aldaketa edo iraulketa gogo jatorrez, baizik eta itsutasunez, egoskorkeriaz, ezinaz, iheskeriaz. Bati baino gehiagori entzun izan diot, eta egia delakoan nago, euskaldunak, edozein koloretakoak direla ere, beren barruan karlistak direla: bai marxistak baldin badira, bai antimarxistak badira, bai ezkerrekoak, bai eskuinekoak.

Etta euskaldunak izpirituz karlistak izan direlako eta oraindik ere garelako, liberal tradizio sakon eta jarraiko bat falta zaigu eta ez dirudi tradizio hori gure egunotan ere osatzen ari denik. Errealidadea interpretatze lana seriocki hartzen baldin badugu, ordea, eta gogoeta sakon batez lagundurik, liberal izatea – pluralismoa – ezinbestekoa izanen dugu. Baina badirudi pluralismoari beldur diogula...

\* \* \*

Itzul gaitezen berriro Tillichengana. Ba dirudi azken hitz hontan esandako guziak teologiarekin eta Tillichekin zerikusi handirik ez duela. Horri buruz hiru pondu:

a) Gogoeta hauk egiteko aukera Tillichek eman dit, berak bere bizitza guzian errealidadea teologi eta filosofi aldetik berpentsatzen jardun duelako. Bestaldetik, gaur egun Euskal Herrian teologiarik egin nahi badugu, lan hori bazterrera uzterik ez dadukagu, oinarririk gabeko hitz jokotan eta inorentzat interesik ez duten teoriatan ibili nahi ez badugu: errebelazioaren positibismo batetan erori nahi ez badugu, nahiz eskuinekoan (Barthianismo jatorra), nahiz ezkerrekoan (Bonhoefferri itsu-itsuan jarraiturik eta nolabaiteko iraultzaren teologia eginaz).

b) Egoera osoa berpentsatu beharra baldin badago, berdin gertatzen da egoera oso honen zati bereziekin ere: Eliza eta Eliz bizitza. Hemen ere iheskeriak (eskuineko eta ezkerreko karlistak) ugari dira. Eta liberal izaten ikas-tea eta pluralismoa maila hontan (Eliz mailan) behar-beharrezkoak ditugu.

d) Guzi honek presupostu bat du: gure zuztarrak nondik norakoak diren jakitea. Zuztarrak esaterakoan ez dut hainbeste gure kondaira eta gure berezitasunetan pentsatzen – horiek ere garrantzi handikoak dira, baina orain

beste zuztar batzuk aipatu nahi nituzke —, baizik eta europear tradizioaren zuztarrak. Hau esan nahi dut: guri ondo iruditu ala ez, tradizio horren eraginpean bizi gara. Gure arazoetatik bat baino gehiago kultur tradizio horren arazoak dira. Tradizio hori luzea da, ez gaur goizekoa, eta gure artean guti ezaguna. Ezagutzen saiatzen ez bagara, mundua oraintxe bertan deskubritua izan delakoan jardungo gara, orain arte munduan inor izan ez balitz bezala. Hori gure burua arrotzeko oso polita da, baina okerra. Beste nonbait esana dadukat mundua ez dela Marxekin hasi eta ez dela Marxekin abakatuko, eta berdin esan daiteke, Levi-Straussekin edo Poulanzasekin edo Freirekin edo Freinetekin edo nik dakit norekin. Hontaz jabetzen ez bagara eta gure burua kultur munduan Robinson bat bezala ikusten badugu, oso ortodosoak izanen gara, nola eskuinean hala ezkerrean — inor baino eskuindarrago eta inor baino ezkertiarago —, baina alferrik, mundua eta kondaira aurrera joanen bait dira, eta guk beti berriro mundua lehenengo aldiz deskubritzen jarraituko dugu.

# World Perspectives (Mundu ikuspegiak)

## LIBURU SAIL BATEN ASMOAK

### World Perspectives

liburu sailaren tesia hauxe da: gizona, izpiritu eta moraltasun aldetik itxuraz kateatuta egon arren, kontzientzia berri bat hedatuaz doala. Kontzientzi honek gizona bera gaur egunez estutzen eta menperatzen duten beldurretik, ezjakintasunetik eta bakartasunetik atera dezake. **World Perspectives** sailaren asmoa, bada, hauxe da: kontzientzia berri hau, munduaren gainetik jarri den gizon honen ikuskera berri bat ematea, alegia.

Gaur gizon ikuskera hauek zabaltzen diharduten izpiritu gidariek eta jakitunek: gizonak banakatuta egon arren funtsean batasun bat dutela sinetsita daudenek, hots, edozein buruzko ustek baino oinarrizkoagoa den batasun indar batek elkartzen dituela gizonak: guzti hau sinetsita daudenek bakarrik har dezakete parte liburu sail hontan; gizadia sakabanatu eta zatikatu duten indar zentrifugoen orde bestea egitura eta indar biltzaileak jarri behar direla uste dutenek: egitura eta indar horiek ematen bait dizkio esanahirik eta xederik giza bizitzari: hau uste dutenek har dezakete parte sail hontan; zientziak berak bere metodoen mugak eragozten ez diotenean, bere neurritan eta baldintzapetan jokatzen duenean, gizonari ondorio pilo handia ekar dezaiokeela hauteman dutenek har dezakete parte sail hontan.

Zientziak alde batetik bakarrik ikusten duen errealidadea argitu nahi du sail honek. Errealidade hortan aritzeak ematen dio zientzilariazen pentsaera berrien eta zokokoenari bere orokortasuna. Honelaxe sartuko dugu berriz zientzia gizonen asmo handien artean: hots, gizonek giza elkartean izaki pentsamendun eta sentimendun bezala beren buruak osatzeko darabilzkiten asmo horien tartean. Izan ere, hauxe da gure arazoa: ezagutza zientziazkoaren, filosofiazkoaren eta beste guztien, arrazoimenezkoen nahiz begizko edo intuitibuen, berezkuntza eta harremana —beren elkartasuna onartuaz noski— zuritzeko eta garbitzeko printzipio beharainbat argia aurkitzea. Hauxe da kontzientziazko krisia, zientziazko krisian agiria, hain zuzen. Hauxe da gizonaren oharmentzeratze berria.

Sail honen tomu bakoitzak egilearen pentsaera eta usteak ematen ditu, eta horrela zera lortu nahi du: erlijioak, filosofiak,

arteak, jakintzak, ekonomiak, politikak eta historiak beren ezberdintasuna, aukerak, konplexutasuna eta zailtasuna kontuan izan ditzatela. Gizona, bere izkutuko handitasunaren bidez, bere bizitza birkreatzeko ahalpidetzen duten buru- eta bihotz-endar eku-menikoa definitzen saiatzen da **World Perspectives** saila.

Espezialistak aparte gorde ahal uste zituen gizonaren ahalegineko arlo guziak berriz aztertzea garamazki sail honek. Oraingo eta iraganiko gertaerak interpretatzen ditu, haziaz doan gure mundu-aro hontako giza bizitza ikutuaz, eta gizonak oraindik lor dezakeenari begiraten dio: gizonak beragan bikainena duenaren bila barne zirikada tinkoak zirikatuta dabilenean lor dezakeenari, alegia. Sail honen asmoa munduaren eta gizabidearen ikuspegi berriak eskaintzea da, orokortasunaren eta banakotasunaren, dinamikaren eta egituraren, askatasunaren eta destinuaren artekotasun hertsia urratu gabe, hala ere. Idazle bakoitzak hauxe agertzen du: izpiritua eta natura ez daudela bananduak eta alden-duak: intuizio eta arrazoimena barneko zer-izana eta kanpoko errealidadea autemateko eta alkarbatzeko bide garrantzizko bihur daitezkeela berriz ere.

Osoatasunaren, batasunaren, organismoaren burutakizuna materiaren eta energiaren burutakizunak baino garaiagoa eta konkretuagoa dela erakusten saiatzen da **World Perspectives** saila. Honela bizitzaren, biologiaren esanahi zabala eman nahi da hemen, ez laboratoriorio tubuetan agertzen den bizitza, organismoan bertan agertzen dena baizik. Izan ere, bizitzaren printzipioa izpiritua eta materia elkarlotzen dituen tensioan datza —sinbiosi batez lotu ere—. Naturaren muin-egitura du bere indarra bizitzak eta honela bizitza, biologia zientzia traspieriko bihurtzen dira. Bizitzaren legeak beren fisikazko agerpenak baino barrurago dute beren jatorria eta beren jatorria izpirituzkoa ausnartzera garamazkite. Izan ere, konzeptuen zabaltzeak ezagutzaren sail bakoitzean bere ordenua berriz jartzeko lagundu digu; eta baita giza esperentzia analizatzeko eta sintetizatzeke ezagutzaren sail bakoitzean jakitunek darabilzkiten bide ezberdinen analogiak argitzeko ere: eta honela bizitzaren esanahiaren azalpen gero eta zabalagoa eta egokiagoa eman daitekeela agertzen digu.

Ezagutza, sail hontako liburuetan azaltzen denez, ez da natura eta gizona kontrako indar bezala erabiltzea, ezta datuak estadistika hutsetan sartzea ere; bildurraren indar ondagarritatik gizadia ateratzeko bidea da zientzia; giza nahimena leheneratzeko bidea eta gizakien fedea eta konfiantza berriz sortzeko bidea ematen du zientziak. Argitaraturiko liburuak zera hau ere agertu nahi dute: hots, ekialdean nahiz mendebaldean, norbere dintasuna, osotasuna eta norbidea zaindu nahia zeinbat eta indartsuago hazi, aibat eta makalago hazten dela eredu-, erakunde- eta aginpide-nahia. Esperentzi arrazoimenezkoaren argitan eta asmo ohartzu-

koaren bidez oraingo aldaketa zuzendu ahal duen gizonaren eskubide utziezinak dira norbere dintasun, osotasun eta norbide horiek.

Sail hontan azterturiko beste zenbait arazo herriarteko elkar ulertzeari dagozkio eta baita bata besteaganako aurreritzi eta hortik sortzen diren tentsio eta etsaigoei dagozkienak ere. Gure mundua norbanakoa eta normultzoa elkarren osagarri direla konturatuaz doa. Eta baita eskuineko nahiz ezkerreko totalitarismoaren morrointza astintzeko bidea egiaren autoridadeaz eta gizonaren osotasunaz birjabetzea dela. Gizadiak jarri dezake azkenik bere usteona ez proletargoaren agintarismoan, ez humanismo sekularatuan —biok saldu dute historiaren izpirituzko jabeko eskubidea—, eta bai anaitasun sakramentuzkoan eta ezagutzaren batasunean. Kontzientzia berri honek gizonaren ikuspegiak bere txokokeriatik atera ditu eta giza pentsakera irauldu du: iraultza hau antzinako greziatarrek arrazoimenaren nagusitasuna onartu zutenekoaren antzekoa da; profeta ebertarrek argituriko moralezko kontzientziaren dirdariaren mailakoa; kristautasunaren erakatsi oinarritzkoak bezalakoa; edo zientziaren hasera bezalakoa, hots, dinamika zientziarena; Galileok zuzendu zituen. hain zuzen ere, Errenazimenduan, zientzi-aro honen espermentuzko oinarriak.

Sail honen garrantzizko ahalegin bat zera da: gaur egunetz demokrazia, askatasun, justizi, maitasun, bake, anaitasun eta Jainko hitzei ematen zaien esanahi eta aplikazioak berriz arakatzea. Azterketa honen asmoa, berriz, hau da: benetan **mundu**-historia izango denaren oinarria jartzeko bideak ireki, ez nazio edo enda baten edo kultura baten historia; gizonak Jainkoaganako, norbereganaiko, lagunurkoarenganaiko eta munduarekiko duen hartuemanaren historia baizik: hau norbere urreneko interesen gaitetik dago. Mundu-aroaren esanahia gizonaren esperantzak eta ametsak errespetatzean datza; honek garamazki herri guzien oinarritzko balioak sakonkiago ulertzeraz.

**World Perspectives** saila gizonaren esanahia argitzeko eta sakontzeko asmatua da, ez historiak determinaturiko gizonaren esanahia bakarrik, eta bai historia determinatzen duen gizonarena ere. Historia ez da gizonaren planeta hontako bizitzari dagokiona bakarrik, eta bai gizonaren mundu honen barnean dabilten indar kosmikoei dagokiena ere. Gure belaunaldi hau zera aurkitzen ari da: historia ez datorrela gure zibilizazioaren gizartezko optimismoarekin bat, eta giza elkartearen erakundea eta askatasuna eta bakea eraikitzea ez direla buruz lortzekoak bakarrik, eta bai izpirituz eta moralbidez lortzekoak ere: gizonaren nortasun osoa haztea eskatzen duela, «sentimen eta pentsamen osotasun zuzeneko» eta etengabeko ekipena ekatzen dizkiola gizonari, zentzugabetasunaren eta sufrimenduaren amildegitik irten eta bizitzaren osotasunean norbere burua eraberritu eta betetzeko.

Zuzentasuna bera, «errumes eta gurutziltzatua egonda gero», orain ekialdeko eta mendebaleko gizartezko eta politikazko demonologietatik ateratzen ari da: eta honela bere aurrezemanak zalantzan jartzen. Gizartezko justiziaren izenean gizartezko zuzengabekeria zaindu dela-eta, gizartearen erakunde sagaratuak astindu dituzten iraulbide modernuak berriz aztertu eta beren balioa berriz ikusi egiten da liburu sail hontan.

Guzi honen argitan ez dadukagu onartu besterik askatasun-eza —eta honen aurrez-aurre neurtzen dugu askatasuna— askatasunarekin batera hartu beharra dugula, hau da, gaua sortzen denetiko egiaren aldea, gure garaiko iluntasuna, gizonaren norbere aurre-rapena bezin baztergaitza dela. Honela bada, giza kontzientziaren bi iturriak banandu ezinak dira, ez hilda baleude bezala, biziak eta elkarren osagarriak bezala baizik; «elkar osagarritasun printzipioaren» alde bat da hau —honen bitartez saiatu da Nils Bohr **quantum-a** eta **uhina** batzen, biak zertzen bait dute bizitzaren energia dizdiratsuen egiazko fabrika.

Gaur egunez masa-kultura zenbatasunezko eta anonimuaren arriskuaren eta agortasunaren kontrako indar bat ari da gizadian; gizaki bakoitzaren nortasuna eta kultura ezberdinak errespetatuz gizadiaren batasunerako izpirituzko joera berri bat ari da, bartzutan oharrezina bada ere. Gero eta konturatuagotzen ari da gizona berdintasuna ez dagoela zenbaki hutsetan neurtzerik eta proportzionatua eta analogikoa dela bere mamian. Izan ere, berdintasuna eta trukagarritasuna gauza berbera bihurtzen direnean, banakotasuna ukatu egiten da eta gizonaren nortasuna deuseztu.

Giza bizitzak bizikera berriak antolatuzera bultzatzen gaituen garai baten atarian gaude. Gizonaren eta naturaren, noizaren eta nonaren, askatasunaren eta segurtasunaren berezketa okerra okertzat hartzen da, eta giza batasun organiko baten ikuspegia dugu aurrean, eta historiak orain arte eskaini ez duen xede bikaintasun eta handitasun aberats eta ugaria eskaintzen du. Mundu-aroaren errealidade berriari giza izpirituak pilaturiko jakituria egokitzean, bere pentsaera eta ustea artikulatzean, **World Perspectives** sailak esperantza berria sortarazi nahi du gizartean, eta gizonagan bere etorkizuna erabakitzearen segurantzia eta arrotasuna.

Aldaketa handi guzien aurretik buru lana indartu, balioztatu eta eratu ohi da: hauxe erakutsi nahi du **World Perspectives** sailak. Gure idazleak ohartuta daude **hubris** (arrokeria) pekatua era honetara bakarrik bazter daitekeela: hau da, kreabidea bera ez dela egintza librea erakutsiaz, libre hitzak arbitrarioa edo inolako munduko legeei loturarik gabea esan nahi badu. Izan ere, gizonaren kreabidea, natura bizidunaren aurrerabidea, eta izadi hilaren oinarritzko legeak erabide orokor baten agerpide ezberdinak besterik ez dira. **World Perspectives** sailak zera erakusteko itxaropenik badu: gure garai apokaliptiko hontan sokatira apartekoak izan arren,



munduan diarduen azkenburuko indar moralezkoa urratu nahi ez duen batasun mugimendu apartekorik ere badela —indar honi lotuta dago azken finean gizonaren ahalegin oro—. Honela uler genezake izpirituzko eta buruzko hazierak barneko beregaintasunik baduela: ingurumariak baldinpetzen badua ere, ez du sekula ingurumariak determinatzen. Honela, giza ezagutzaren oparotasun handia gizonaren zer-izana begiztatu eta sakontzearekin batera doa, gizonaren zer-izan hori gizonaren pentsaera esperentziaren zabalarekin eta sakonarekin armonizatuaz.

Gizonaren eginkizuna mugagabea izan arren eta bere indarra mugatua, nazionalismoak igaroestuak izan arren, eta zientziak indargabeturiko grina moralek «etxerik» izan ez arren, garai hontako itzurazko zarata eta nahasmenduaren pean, eta gure garai dinamiki hontako aldaketa eta mundu- kontzientziaren edapena direla bide, hauxe da **World Perspectives** sailaren asmoa: «egia biribilaren bihotz ikaratugabea» esnatzen lagundu eta, gizonaren munduarekiko elkartasuna sakonduaz eta indartuaz batera, gizona berri ere gizadian ezartzen duen etengabeko kreabide garbiaren mui-nean forma hartzen ari den mundu-aroaren elementu esanguratsuak adierazi eta azaldu.

**Ruth Nanda Anshen**

## TILLICH: Fedearen dinamika

**abiaburu**=printzipio  
**agerkunde**=goiagerkunde, errebelazio  
**akabail**=behindabetiko, erabateko  
**agerpide**=azalpide, expresión  
**agintzari**=eskaintzari, promesa  
**agiriztatu**=argiztatu, documentar  
**aizun**=sasi-, falso  
**alderantzi**=gibel, kontra-aldea, reverso  
**araubide**=disciplina  
**arlotu**=eginkizun berezi, función  
**aska-min**=libertade nahi  
**aurrealdintza**=aurretik jarririko baldintza  
**aurrezeman**=presupostu  
**aurkeztzaile**=ordezkari, representante  
**aurkintza**=egoera  
**atxiki**=itsatsi, lotu  
**axolakizun**=axolagai, lo que preocupa a uno  
**azkenburuko**=erabateko

**baikor**=optimista  
**bakarrikako**=bakarziale, eksklusibista  
**baldintzape**=baldintza  
**balioztatu**=valorizar  
**banatu**=berezi  
**barrundatu**=miatu, azterkatu  
**bateragune**=elkarbatzeko tokiune  
**baterakuntza**=integrazio  
**batzuntasun**=complejidad, complexité  
**begiespen**=begiratze, contemplación  
**behatarri**=ozotoparri, obstáculu  
**berezgoa**=berezkuntza, separación  
**bermatu**=finkatu, afianzar, éta-yer

**besteratze**=norgaltze, alienación  
**betekuntza**=plenitud  
**biderkor**=berriztakor, repetible  
**bilakatu**=bihurtu  
**bilgune**=biltzeko tokiune  
**bizikizun**=esperentzia, vivencia

**desbaterakuntza**=desintegrazio  
**doitasun**=exactitud

**erdezkatu**=ederkatu, landu, apaindu, refinar  
**egikera**=jokaera  
**egiztabide**=frogantza, comprobación  
**elkaralderatu**=alderatu, gonbaratu  
**eikarbarnetu**=barnekidetu, compenetrar (se)  
**elkargune**=elkartzeko tokiune edo pondu  
**elkarlotu**=elkartu, depender mutuamente  
**emari**=dohain, erregalu  
**erabakitzaile**=definitivo  
**eraberritu**=zaharrari itxura berria eman  
**erakunde**=organización  
**eratorri**=beste batetik atera, derivar  
**erdigune**=centro  
**erizpide**=ezagupide, kriterio  
**erlijio-gisako**=erlijio antzeko, quasi-religión  
**erlijiozikizun**=función religiosa (elizkizun bezala)  
**erraildu**=zaticatu, pitzatu  
**esakari**=esakuntza, aserción  
**esakuntza**=esakari, aserción  
**eskatima**=istilu, conflicto

**fidagarritasun**=konfiantza merezi izatea, autoridad moral  
**funtezkotasun**=oinarriko izate

**gainditu**=trascender, superar  
**gaidatu**=eskatu, exigir  
**gogaidetasun**=eritzi berdineko izate  
**goiagerkunde**=agerkunde, revelación  
**gurgintza**=veneración

**händikalde**=el más allá  
**hemendikalde**=la parte de aquí  
**historiako**=historia barnean gertatzen den zerbait  
**historiazko**=historiari dagokion gertaera  
**historiko**=historian zehar garrantzi handiko gertaera  
**hondo**=oinarri, barren, abismo  
**hondotasun**=barrentasun, funtsezkotasun

**£datzarazi (hitzez-hitz)**=dictar  
**igaroestu**=intransigente  
**igarokor**=transigente  
**igaropen**=tolerantzia  
**igarozale**=tolerante  
**ikertu**=miatu, investigar  
**ikerkunde**=investigación  
**ikugune**=punto de contacto  
**ikuskaria**=ikusgai, visión  
**itxaldun**=persona que tiene autoridad (moral)

**jalki**=ireki (abrirse una mazorca...)  
**jardunbide**=egikuntza, práctica  
**jardunezko**=egitezko, práctico  
**jazo**=gertatu, suceder  
**joankor**=igarokor, pasajero

**lehiakeria**=fanatismo  
**lehiatu**=saiatu

**mehatxu**=amenazo, zemai

**narbaritasun**=ebidentzia  
**nerau**=el yo, ego  
**neraugaineko**=superego

**neurrialde**=dimentsio, dimensión  
**noiz-nonbait**=espacio y tiempo  
**norbanako**=gizabanako, individuo  
**norberatasun**=identidad personal

**oharmeneratu**=kontzientzi mailara ekarri  
**oldar**=impulso  
**ondorengoenganatu**=besteenganatu, transmitir  
**oragaitz**=heltzeko zail, difícil de aferrar  
**oratu**=heldu, asir  
**ordezkatu**=ordez jarri, suplir  
**oreka**=equilibrio  
**orobat**=indiferentzia  
**osabide**=sendabide  
**osagarri**=sendagarri, curativo  
**osaki**=osagai, elemento  
**oste**=atze, detrás oculto  
**otezko**=badaezppadako, dudoso

**partzuergoa**=hartukizun, erdikidetasun, participación  
**pertsonaia**=personaje  
**polarte**=polaridad  
**proletargoa**=proletariado

**saio**=entsegu, ensayo  
**saiobide**=esperimentu, experimentación  
**saiopetu**=experimentar  
**salbuespen**=excepción  
**sekulargintza**=sekulartze, secularización  
**sendalaritza**=medicina científica

**taxumen**=kontaketa, cálculo

**urruntarte**=bitarte, distancia  
**ustari**=teoría

**zemai**=mehatsu, amenazo  
**zenbatasunezko**=cuantitativo  
**zio**=arrazoi, motivo